


TEOLOGILARIEN YARDUNAK



3 'GN ZENBAKIA



ARKIBIDEA

TEOLOJI-SAILLA

AITA SANTUAREN ITZA: Balerdi (beneditarra)	7
MARIA GIZONEN AMA: Madinabeitia (iosulaguna)	17
KRISTOREKIN BATEAN BERPIZTUAK: Eiheraberri (beneditarra)	22
ANDRE MARI GURE AMA: Galdona (sakramentinoa)	36

FILOSOFI-SAILLA

GURE PILOSOPIA ULERGAITZA: Goikoetxea (sakramentinoa)	44
M. M. P. JAKITUN KATOLIKOEN EREDU: Gaztañaga (apaizgai)	48
EKONOMIAK ELKARTE-MOTA SALLETAN DUAN ERAGIÑA: Dorronsoro (apaizgai)	62

KULTUR-SAILLA

MORAL BERRIA: Bereziartua (prantziskotarra)	71
NEORREALISMOA DALA-TA: Guarrotxena (prantziskotarra)	78
EUSKALERRIKO ANTZIN-KULTUR ONDARRAK: Mendizabal (prantziskotarra)	83
UNAMUNO "INDEX" EAN: Unzurrunzaga (prantziskotarra)	91
EDOUARD HERRIOT: Erdozaincy-Etchart (prantziskotarra)	97
GIZONA TA GOI-AGERPENA: Zurutuza (prantziskotarra)	107
MEZA SANTUA TA ZINESTUNEN BIZITZA: Goena (iosulaguna)	115

ANTZE TA ELERTI

NUNDIK NORA MUSIKA?...: Iturria (prantziskotarra)	119
OLERKI MUSA: —olerki— Berasaluze (prantziskotarra)	127
AMA SEMEAK: —olerki— José-Austin (pasiotarra)	133
SAGRARIO OÑETAN: —olerki— Muxika (sakramentinoa)	138
EURIA...: —olerki— Astigarraga (prantziskotarra)	141
ARGITAN: —olerki— Astigarraga (prantziskotarra)	142
ELURREAK MIN: —olerki— Bereziartua (prantziskotarra)	143

SASKI NASKI

AMAREN BEARRA UMEAREN EZIKERA ONERAKO: Aiestaran (prantziskotarra)	145
EBERKERA EREDU: Bastarrika (prantziskotarra)	147
EUSKAL FILOSOFIA TANTOKA: Mendizabal (prantziskotarra)	152
"GLORIA PATRI" EUSKERAZ: Bastarrika (prantziskotarra)	157

ELKAR IZKETA

Lekuona jaunaren bi erantzun: "Alemania'ko Catecismo Catolico'ren inguruan..."
"Aita gurea dala-ta, erantzun bidez..."
Goikoetxeari erantzuna: Jakintitzak.
Idazkiak: "Argibide txikia" (Zugasti).
Arpidedun kontua.—Ordain kontua.—Idazlan kontua.

YAKIN

(PRO MANUSCRITO)

A R A N T Z A Z U ' N

3'gn. zenbakia.

PAZKO ALDIKOA -1957-

ATARIÁ

Gaztetxo dezu oraindik "Yakin". Iru aldiz iriki ditu begiak, eta iru aldiz, zorionez, poz-dardara bat sentitu izan du barnean: euskal zintzoen eskuetan erortzearen poz-zirrara, alegia.

Ta... irripar egiten ikasi du gure "Yakin" maieak. Nola ez irripar egin ainbeste arrera on eta biotz eder ikusi ondoren!

Irribarrea ezpañetan loreta eskerronik beroena barnean dularik, bere begietan etorkizunaren kemena dizdira duan gaztetxo pertxeta iruditzen zait "Yakin" maitea. Etorkizunaren bidea argi ta dizditsu ikusten dulako... zuri, irakurle, eskerrek.

TEOLOGI SAILLA AITA SANTUA- REN ITZÄ

Esan bearrik ez da, Aita Santuak aspaldi ontan, obeto esateko, oraindik "pakearen alde" eman digun ikaskizunik bikañena, 1956'ko Eguberri deia degula. Amabigarren Pio Aita Santuaren deiak oro ots aundikoak izan dira. Baina azkenekoarekin berdinik ez dutela derizkiot. "Jakín" bertako aurreko zenbakian (111or) "Aita Santuaren Deia-aren oiartxunak" izendaturik Arantzazu'ko Bereziartua'tar Iñaki'k lan polit bat agertu digu gai ontaz. Mundu zabalean, alderdi, sinismen guzietako gizonek irakurri dute eta zabaldu. Batzuek txalotu egiten dute; besteak zapaldu. Auen artean askok oker ulertu dutelako, eta besteak besterik egiten ez dakutelako.

Garrantzi au gogoan izanik, Aita Santuak azken iru illabete auetan egin dituan beste lan guztiak alde batera utzirik, Eguberri Deia zabaldu nai izan det aundikiro. Abendu-otsailla bitartean egin dituan Dei, Itzaldi, Eskutitzen... artean -danean amabost dira- Analgesiari buruz egin zizkioten iru galderari erantzun-itzaldia da noski ederrena. (Otsaillaren 24) Itzaldi au, eta igazko "Mingabeko erditzaz" bat bestea osotzen dira.

Filipinas'ko (1956-XII-2) eta Italiko (1956-XII-16) Eukaristi-Batzar nagusiari egindako irratitzak aipagarriak ditugu benetan.

Gaztedi Katolikoan erriarteko Batzar-
rari (1956-XII-14) eta Gizon Katolikoan Batzar-
rari (1956-XII-8) egindako itzaldiak ere eraku-
tsi ederrez beteak ditugu.

Guraso eta irakasleak batez ere, bañan
egia esateko aurrekin nola edo ala ikustekorik
dutenak oro, bere betebeharreri buruz, zer ikasia
izango dute "Ama eta Aurraren egunari" (1957-1-
6) egindako itzaldian.

Eta orain, goazen, bete betean Aita, gu-
ra Irakasle degun amabigarren Pio A. Santuaren
eguberri deian murgiltzera.

MUNDU GUZIKO KRISTAU ETA ERRIERI AMABIGA-
RREN PIO AITA SANTUAREN EGUBERRIKO
IRRATI DEIA.

"Egi ta Pakearen egarri diran lur onta-
ko gizonek Kristoren jaiotz egun arrigarriaren
berri eman zaie berriro". Itz auekin asten zai-
gu Aita Santua Amabigarren Pio, 1956'ko Eguberri
Deian. "Transeamus usque in Betleem". "Goazen Be-
lenera, Jaunak agertu nai izan digun gertakizuna
ikustera...". "Kristo bera bai degu gure oker, ez-
bear guztietatik garaille aterako gaitun azka-
tzaillea":

1956'ko Eguberri Dei au, len esan beze-
la, Amabigarren Pio'k egundario eman dizkugunetan
lenengoa degu; pakearen alde argikiro mintza zai-
gu. Aspaldi ontan gizonak bat bestearen aurka gu-
da ikaragarria dabilkite: eriotz, negar, ixtilu...
sortzen diralarik nunnai. Baña, zer dala-ta guda-
keta auek? Alkar ezin-ikusi auek? Batak besteak jan
bear au? Ez al du gizonak bere barru barruen pa-
kea, lasaitasuna egarri? Zer degu bada gaitz guz-
ti auen iturri? Zer sortuarazten du munduaren
geurko larrialdi au? Ara zer digun Aita Santuak
" Bi gertakizunen alkar ezina ogeigarren eunki-
ko gizadiari zama ikaragarria zaio, gizonen arro-

keriari zauri sakona irikitzen diolarik. Alde batetik, yeknikari buruz gure artean ikusi degun antzaldatze onek, asmatzalle izanik zapaldurik utzi duan gizon onen uste au:txirotasun eta bi- arkoaren bildurrik gabe, aberastasunez gañez da- gin mundu bat sortuko duala. Beste aldetik, az- ken urte auetan ikusi ditugun erio-negar eta sa- kailketak, auen ondorio dan bildurra -gizonen ar- teko pakeari eta batasunari egonarririk eman ez diotela nabaiturik- aundiagotzen dalarik azken urte auetan". Zerbañt bada beraz ongi ez dijoa- na gizonaren bizikera osoan :erraiñ-erraiñean uts bat du usteltzen dualarik. Uts ori nun dago izkutuan? Nola eta nork zuzendu deike?"

Bi erantzun eman dira galdera auek e- rabakitzearren. Siñismendunen erantzuna eta zo- rioneko teknikak ematen diguna. Siñismendunak di- onez, bi gauz auen alkar-eziña sortu duana?... Kristau bizitz eta Kristau siñismenaren arteko osiñ au degu". Siñisgabeen erantzuna berriz, bes- te erabatekoa degu. Auek diotenez, teknika bidean iraindik aurrerago, bidearen azkeneneraño joatea izango litzake, eta jakiña, siñismenari begiratze- ke eta gañera siñismenak gizonari eta munduari buruz erakusten diguna gogoan artzeke. Itz ba- tean, usten dute ta baita ere erakusten, garai auetako gauzen alkar-ezin au Jainko ta sinisme- naren bearrik gabe, gizon berak garaitu dezake- la. "...Beste era batean, Belenera joateko goi- tik datorkigun deiari ajolik ez diote. Ta gizo- nak, gertatu zaiguna, ta Jaunak erakutsi diguna, Belenen bakarrik jakin dezake".

Sinismenak ematen digun erantzuna be- netakoa degula guri erakustearren, iru egi ager- tu ta zabaltzen dizkigu:

- 1) Gizona, aundi ta koskor
- 2) Gizona bere eginkizunetan aske
- 3) Gizona Jainkoaren menpeko

Iru egi auetaz itz gutxitan agertuko degu Aita Santuak luze adierazten diguna.

1) Gizona aundi ta kokkor.

"Gizonaren esiera, izatea, gerokoa ta bere edestia Aurtxoari, ots gure arteko bere Jaioztzari batuak daude". "Belenen jaio dan Aurtxoaren seaska surrean makurtu bear luke kristauak gizakiari buruz egi jakiteko".

Zer erakusten digu bada Belengo gertakizunak? Ona zer: "Gizonaren jatorrizko ontasun ta indarra, atsegin-baratzean utsean eman zitzaiona. Badian gogora dakarkio berebat, bere argal-keria, len garasoen erruan -geroztik etengabe izango ziran erruen ondorio- agerian jarri zalarik". Bere indarrari buruz, badaki gizonak, len erru arrek munduaren nagusitasuna etziola kendu, nagusitasun ori ondo betetzeko ziurtasuna baizik.

"Aurtxoaren seaska surrean bere igaro egunak eta bere zer-izatea argi ikusten du; bafia baita ere bere gerokoa; egun batez galdu zun goiatsegin ura ere nola lortu. Bai baidaki askatxo artan gizonen askatzalle dan Jesus dagola, gizonen artean bizitzea nai izan zuna, gizonen biotzetan egin zizkien zauriak sendatzera etorritako Eroslea; Jainko seme izatea berriro emango ziena, ta gañera, pekatu edo obenak sortuerazi zun naspil ura garsitzeko indarra. Bere biotz barrunaspil au beti geraituko du kristauak, gogoan baidu Aita maitale bat duala bere ondoan lagun bezela. Badian biotz kanpoko naspil ori? Zer egin bear ote kristauak naspil orren surrean? Alde batera utzita, ajolik ezta? Zer egin bear ote kristauak naspil orren surrean? Alde batera utzi, ajolik ezta? Ez, ez ori, Aita Santuak dionez: "Kristauak naspil oni erantzun egoki bat ematen saiatu bearko du, gizon arteko bizikerari begiratuz, noski". Ara zer erakutsi bear dion sinisedunak garurko gizonari: gizakiaren indarra noraño iristen

dan ezagutuerazi; ez ordea, itsu-itsuan, duan baño gelago ezta ere gutxiago, bañan bere neurriak argi agertuaz. Gizakia dan bezela artu artu, bere aunditasuna ezagutuaz, bañan baita ere, bere koskor tasuna.

Erljioari buruz, jakinerazi bear die berebat, erlijioa ez dala oztopo alkar-ezin au era bakitzeke. Ez ori bakarrik, Erljioa degula gañera erabaki dezekena, ta bera bakarrik.

Bere eginbear ori betetzeko ordea, buruan izan bear ko du kristauak gaurko sifisgabeak pekatuaz zer iritzi duan. Izan ere, onek jatorrizko errua aintzekotzat ez du artzen ta uste du gañera bere sulkeriak, erortze ta orrelakoak pekatuaren ondorio izateko ordez, bere izaki au, ergalaren ondorio dirala, ta jakiña sendatu ditezkenak; diotemez inguratzen dun mundu orrekin zer ikusteko dun argi-argi gizonak ezagutzen duanean gaurkoargalkeri guzti auek bere azken eguna izango dute".

Zorion-egun ori noiz izango ote degu? Iritzi onek ondorio onik ikartzetik ez duala ageri ikusten da. Zabarkeria toki guztietan...; naiz giza-azkerari buruz, naiz eginteari buruz... Nolaz ulertu diteke ori, ordea? Nolaz berdindu ditezke, oiek egiten duten eran, gizona eta beste gizakiak? Gizona eta landare bat? Gizona eta abere bat? Ori al da gizonaren aundia ezagutzea?

Erantzun egiazkoa gai ontaz damaiguna sifismena degu orain ere; berak ongi ezagutzen baidu gizonaren egiazko izatea: "...gizonaren nau sitasuna, neurtua ori bai, eta gañera pekatuaren egia". Onek bakarrik moztu deike gauz guztietan gaur egunean ikusten degun zabarkeri ori. Eta ori ikasiko degu, Jainko Aurtxoaren seaskara aolki joaten bagera... ikastera.

2) Gizona, bere eginkizunetan aske.

Gaurko gizonen bigarren utsa eta al-

kar-eziña ekarrerazi diguna au da: "Alkarte berri bat sortuarazi nai izatea; bañan, gizona Edestiaren jabe bezela ezagutzeke; jabetasun ori ematen dion askatasuna, eta askatasun onetzat bizi dan eta neurriak jartzen dizkion erlijioari begiratzeko".

Teknikan dute uste osoa eta igaroarekin ez dute ezer ikasi nai, atzokak biarkoarekin ikustekorik ezer ez baku bezela. "Ogeigarren eundiko gizona, arroturik dago lur onetan bizi dala jakinki; berak eta eta berak bakarrik eraiki duan etxean bizi balitz bezeña, eta egillearen eskubideak bereganatzen ditu". Utzi, bada, alde batera, diote, igaro-eguna, eta baita ere len igaroreri itsaten diranak, batez ere erlijioa.

"Erljioa oztopo bat besterik ez da ta biarkoari buruz, alde batera utzi dezagun bada."

Baña zer ote da itsu izatea? Nolaz aitor dezake itsuak argi bearrik ezduala ikus dezan? Erljioa alde batera utzi? Ez al degu bada, bera gizonaren argi, bere asiera, azkena... erakusten dizkiguna? Erljioak igaro egunak gaurko eta biarkoarekin ikustekoa aundia dutela erakusten digu; Erljioak, teknikari buruz oraindik aurrerapen aundi, lilluragarria ikustekotan gaudela ezagutzera ematen digu. Bañan, Jaungoikoaren eskuak guzti aukerabiltzen dituala bere oldera gizonak onartzen ditualarik, jakifia, eta orregatik gizonak Egilletzat bere burua jotzen badu, Jainkoa Egille bakar bezela ezagutzeari ukatuaz, gaurko gizonak geienik opa dutena arriskuan jarriko du. "Bene-benetan askatasuna eta pakea opa dituanak guztien egiazko Egille bakarrari itzuli bearko dio gizartea".

Len esaten genun alkar-ezin orri erantzun egoki bat eman nai badiogu, Belenerako bidea artu bear genduala, "Belengo askaren aurrean auspez erortzen dan Kristauak ulertuko baidu, len aipatutako iru egi oiek, ots, askatasuna, pakea eta

erlijioaren elkartzea zein bearrekoa eta zein garrantzi aundikoa degun", dio A.Santuak, "argi eta indar emango bai dio bere egiteko aundia betetzeko".

3) Gizona Jainkoaren menpeko.

Siñisgabeak -orrela izendatzen ditugu bigarren teknika berrizte edo dalako orren asmatzalleak- gaurko egunean, teknika bide ontan, erlijioak edo obeto esan Jainkoak, ezer ikustekorik ez duala aitortzen dute, eta aldr batera utzi bear genukela, aurrera bidean laguntza orde, oztopo izango litzaigukelakoan. Gizona bere buruaren jaun eta jabetzat ezagutzen dute Jainkoari zor di on menpekotasuna ukatzen dutelarik. Aientzat, gizona bera da teknika bidean Jainko ta Jainko bakarra gañera; Eta berbera, askatasun, pake, gizarte aurrerapen... guztien iturri; eta ez Belenen jaio zaigun Aurtxo. Dena Jainkogandik datorkigula, esaten diguten Pablo donearen itz aiek ez dituzte, noski, egitizat jotzen, obe bearrez.

Bere Eguberri Dei onen irugarren atalburuan iñoiz baño argiago mintzo zaigu A.Santua pakeari buruz. Munduan pakerik ez dala ageri agerian da, baña gizona iñoiz baño geiago gaur pake bearrean dala, Guztien aurretik pakea opa duala ere agerian da. Zerk lekarkiguke, ordea, ainbeste amesten degun pake ori? "On eta maitale diran guzti guztien batasun sendo ta iraunkorrak -eraman edo jasan eziñeko bizikera erri guztiei, nola edo ala ezarri nai dien etsai anker baten aurrean- lakarkigukela pakea, eta ekarriko ere digula ziur ziur nago". Europako errien alkartasuna, Asia, Afrika, Sortalde-erri, Palestinako Errien batasunak sendotzen dutelarik, bear bearrezko genuke gaur egunean. Baña alkartasun ori erabat iristeko, benetako eta egi-egizko alkartasuna bear luke erri batu guzti auen artean. "Ez bailitzake, alkartasun sendorik izango... alkarteko erri bat edo

besteari kalte eundi bat erortzeak, beste erriei onik ekarriko ez diola ulertu arteño". Bat arix kuan dagoenean, alkar lagundu, aitzeki maitzeki ibilli orde... "ez bakarrik gogoz, A. Santuak dionez, ez bai dago zintzo jokatzetik "politikaren" gogo utsean..." egitez baño.

Eta orain adieraztera ematen digu itz gutxitan -pakearen alde beti mintzo zaigu- gudaritza, izkillutza eta guda bera ere bear bearrekoak izan ditezkeela noizean bein gaurko egunean. Emen esan bearrean naiz A. Santuaren Eguberri De-iaren alderdi au, oker ulertu dutela askok eta askok. Izan ere, uste bai dute bere etsaiek, A. Santuak dion oro, berak nai duten eran irizteko eskubidea ba-dutela. Batzuek amabigarren Pio guda alde dagola aitortu dute lotsatzek; besteak, alderdi bat edo besteren alde; auek Budapest'en gertatua txalotzen duala eta gañera pizten; aiek, Euraton sinismen-egitza artu bear degula, abar eta abar. Bañan egia ote da ori? A. Santua guda-ren alde? Ez, ez. Ez ditzagula arren, "politikaz" jantzi A. Santuaren itzak. Ez ditzagun oker ulertu. Ara zer dion: "Guztiak jakin bear dute iñoiz baño okerrago arkitzen dala gaur mundua. Argi ikusten da zer nai eta zer opa duten bere aberrien mugaz kanpo lurra eriotzez betetzen dituztelarik, gudanontz datozen burniztatuko guda-gurdi oiek: erria, gorroto duten bizikera artzera bear artu. Berak nai duten zerbait lortzearren, berezko izan edo ez, alkar-izketa eta bitartekotasuna alde batera utzi eta atomika izkilluz bildurtuaz. Gertatu ditekena da beraz, gauzak orrela, alegiñak egin ondoren noski baztertze, eta ondorio ona izango duan uste osoan, erri bateri guda zilllegi izatea... "Eta ori bera erakusten zutela esaten du, amairugarren Leon eta amabostgarren Benedikto A. Santuak, bañan beti adieraztera emanaz, "gertakizunak agintzen ba zuten": eta ez bazuten, egunetik egunera kaltegarriago diran izkillu berriak egiteari uzteko erri agintariei

aginduz, eta egindakoak pakearen eta gizonen onerako bakarrik ibiltzeko. "Nere naia ere, ori da" dio garbikiro.

Gero, elburu guzti auek irixteko sortua dan O.N.U., ots, Erri Alkargoak, bear luken oro ez dagiala azaltzen du. "Iñori, ezta ere O.N.U. berari, ez ditekenik etzaio eskatzen. Banañan ala ta guztiz ere, gizonaren eskubiderik nagusienak arrixkoan ikusten ziran errietan, ikeretzalle batzuek badalita edo, bere indarra agertu bearra izango zuan". Badakigu itz auek zerk esanarazten dizkion: Ungariko guda garairik eldueanean zegonean, O.N.U.k ikertzalle batzuek bidali nai izan zitun Ungarira, eta agintariek, Komunistak izan, etzien sartzen utzi. Nolatan diteke bigegabe ori? Ez al du O.N.U.k indarrrik bere eskubideak alkarte ortako errieri beintzat ezagutu arazteko? Bidali O.N.U.tik kanpora bere eskubideak ezagutu nai ez duan erria, berak agindua bete nai ez duana, eta oraindak okerrago dana, ankapean zapaltzen dituanak.

Aita Santuak O.N.U.ri eskatzen diona au da: Beartu ditzala erriak oro izkillu berrien egiteari ustea, eta egindakoak gutxiagotzea. Eta gañera azken urte auetan egin diran aurrerapenak -batez ere egazkineri buruz- agintzen bai digute, ikerketan egin ditezela errietan oro, bakoitzak zer duan, zer dezaken jakin dedin, eta neurri egokiak artu ditezen. Pakea lortzeko biderik aukeratuena au litzake, Aita Santuaren iritzian.

Ortara irixteko ordea, erri guztiek pakearen alde gogo batez jokatu bearko lukete. Gogo on ori, Kristauak badaki Jaunaren emaitz bat degula, Belengo aurtxoaren seaska aurrean ikasi bai du.

Amaitzeko, 1956'ko Egunerri Deiaaren azken itzetan, Ungarian gertatua gogora ekartzan digu. Ain biotz onez, Ungariarrek lagundu dituzten

guztiei biotz biotzez eskerrak eman ondoren, eskari bat egiten du:" Erri zanpatu onen naigabeak arindu eta orain arkitzen dan egoera negargarritik ateratzeko, biotz oneko gizon guztiak otoitze an jarraiko dutela eta bere laguntza eskeñiko, uste degu". Asko eta asko dira azken urte auetako istillueri esker bearra zer dan ikasi dutenak. Besteak bearrean ikusirik geldituko ote dira auek laguntzeke? Ederki bizi diranak, berriz, bere lagun-urkoa larrialdian ikusirik ez ote dira ukituko? Bañan, zuen laguntzarekin bat, betozkie Egu-berri gauean agertu zitzaizkigun "argi" eta "bizitza", otx Kristo".

Aintza goian Jainkoari, eta pakea lurrean biotz oneko gizoneri!!! Au esan ziguten Eguberri gauean aingeruak Belengo estalpe ondoan; au bera dasaigu ogeigarren eunkian amabigarren Pio Aita Santuak. Biotz oneko edo biotz gaiztoko izan nai degu? ...

Jakin dezagun, bada, lur ontan biotz onekoak, eta ez bestekoak izango dutela pakea "... et in terra pax hominibus bonae voluntatis".

Balerdi'tar Ion'ek
Lazkao'ko Beneditarra

MARIA GIZONEN AMA

CARRAURRE

Tipi tapa, burua makurturik eta lotsatuta, Arantzazuko aldapan gora noa. Zer dala-ta? Ba, euskaldun soñekoakin lenengo aldiz jantzi naizela, ta, orbanduta, zulo askokin jantzietan arkituko nauzelakoan natorkizue.

Ezta arritzekoa. Amabi urte luzeak kanpoan daramazkit, eta Arantzazuko Ama Birgiñari agertutxo bat egiteko, euskaldun jantziak gertu ditut. Baña izugarritzko otza egiñarren (-21 grado ezkenengo astean euki ditugu), ia ia izerditan gelditu naiz, buruan ez neuzkan itz geienak iztegian ikusten, izkuntz motzak, nastu ez nedin, egin da gero ta abar.

Jaungoikoari eskerrak, biotzeko anai bateg azkenean zerbait obeto konpondu nau. ta ona emen: Arantzazura eldu naiz.

Orain, zuen Yakin aldizka-ingiko orrail eder oietan toki ezkutu bat ba-zenute, ixil-ixilik ta osopozik an sartuko nintzake.

Baña nere larrantza oraindak erakustekoa edo itxurazkoa ez baderizkiezute, orduan pakean, bildur gabe utzi nazazute: orko Elizara sarturik nere lenengo jantzi euskaldun lan auek Ama Birjiñari biotzez eskeñiko dizkiot, Agur Maria guztiogatik lenago esanaz.

Ta gero, aldapa bera, Onati ta Euskalerrri guztia aurrean dauzkadala, alai, bizkor, etxera biurtuko naiz, euskaldun jantziak txarki ipiñiak izan arren, oso poliki dagokizkidala jakinaz. Agur.

I. MARIA, GIZONEN AMA

Gogai nastuak, eta batzuetan okerrak ere bai, Mariaren gogozko Amatasuntaz kristau erri etan zabaldua sarritan arkitzen dira.

Ta ala ere Maria gure egizko Ama da. Egi pozgarria auxe. Egi ori egiztatzeko, ba, lendik ikusi ditzagun amatza orren gezur iturriak:

Ama Birjiña ez da gure Ama "maitatzen gaitulako".

Ama guztiak maitatzen bai dute; ama izateko, maitatzea ez da naikoa.

Ama Birjiña ez da gure Ama "graziakin gure gogoak janaritzen ditulako". Inudea ez da ama.

Geiago oraindik: ezta ere Jesusek Joani esandako itzagatik: "Orra or zure Ama. Itz auetan. bakar bakarrik Mariaren Amatasuna jartzea, ta izen onen aunditasuna berdin da. Benetako semetasunari ez dagokionera amatasun ori gutxitu eta txikitu egiten dutelako.

AMA BIRJIÑA GURE AMA DA DA "GOITIKO BIZITZA EMAN DIGULAKO".

Gizonak bi bizitz ditu: bata, gorputzarena, ilkorra; bestea, gogoarena, illezkorra. Gogoaren bizi illezkor au Mariak eman digu; orregatik da bera gure gogozko Ama, gure gorputzeko izatea eman diguna egizko ama degun bezelaxe.

Ez da au ametsa, egi zoragarri bat baidzik.

Gure goitiko bizitza, Jesusen bizitza da gudan: "Muhi vivere Christus est": Neri bizitzea Kristo da, Paulo doneak esan zigun.

Baia Mariak eman zigun Jesukristo, eta nolabait, bere bizi az bizi gaitezen eman zigun.

Maria, beraz, gure egizko Ama da.

II. MARIA GURE AMA EGIN ZANEKO IRU

ALDI.

a) Nazaret.

Ama Birjiñak, Jainko Semea bere errailetan gizon egitean eman zuareko baietzkoa ziur eta zeatz etzula ulertu diona buru eta

begurune gabe ari da. Bere baiaskoa jakinien gañe an emana izan zan, ondo baizekien bere esku zegon "bai edo ez" aren gain zegola bere gurekiko ama izate edo ez-izatea.

Begien aurrean zeukan Jesusek egizko bizitza, goitiko bizitza zekarkiola munduari; eta bere Semeari ematen zion bizia era berean guri ere ematen zigula.

Argi ta garbi ageri da egi au: gure bizia dan Jesusi bizia ematea beregan artu zun. Bere eskuko amatza, jaiñean gañeko eta biotz-zabaleko amatza.

Au izan zan Gure Amatza bidean Mariak eman zuan lenengo oinkada.

b) Guruzpidea. (Calvarioa).

Bigarrena Guruzpidean eman zun.

Golgotaren gañean gure Erospena bete, bukatu, osatu zan.

Antxe Jasukristok bere eriotzakin bizitze irabazi zigun. Bizi berri bat, bere bizitzaren zatiduna.

Baña gurutzearen ondoan an berari elkartuta Erosle lan onetan zutik zegon bere Ama. Onek bere erraietan opari bezela sortu izan zun; Gero, begi aurrean gurutzeko oparia zuala asi, ta azkenik eskurik zabalenetzaz Aita Jaungoikoari eskeñi.

Onela Gruzpide gañean Bere eskeintzarer oñazez, estutasunez eta naigabez Mariak sortu gindun. Une onetantxe bete zan, Jesusek Bere biziko lipar nagusi ontan zorientsu ospatutzen dun, Mariaren Amatasuna.

Baña Jesusen gurutzeko irugarren itsak etzan Amatasun au sortu, baieztu eta osatu baizik. Mariaren semeak baigiñan bere Jesusen Ama egin zan ezkeroztik.

c) Ugutza (Bataioa).

Au da Mariaren amaldeko izakeraren azkenengo oinkada.

Gu ilda alez gain jaiotzen gera. Bizitza Ugutzaren ur onetsiak ematen digute.

Eta lenengo Grazi au lortzen degu Mariaren bitartez, grazi guztien Bitarteko danez. Au egia bada, egia izango bearako du batez ere, gure animara, goitiko bizitzak, Bataioaren bitartez, sarrrera egiten duan une bertan.

III. MARIAREN GUPEKIKO AMATZAREN GOGOZ- GO IZAKERA

Naiz Ama Birjiña gogozko Ama baizik guretzat ez izan, benetan egizko Ama degu.

Garbi esan bear da Ama Birjiñaren Amatzari ezartzen diogun "gogozko" izen orrek, ez du la iñola ere Amatzara orren egia ukatu nai. "Gogozko" eta "egizko" ez dira elkartu ezin ditezken gauzak.

Beste aldetik Jesusen itzak garbiak dira: "Spiritus est qui vivificat; caro non prodest quidquam. Verba quae locutus sum vobis, spiritus et vita sunt": nere itzak gogo ta bizitza dira.

Maria gure egizko Ama da, izen onen esan nai betean, ez noski gaitsuan, gogozkoan baizik, berak gogoaren bizitza eman digulako.

IV. JESUKRISTOREN ZIÑESGAI EDO EZKUTUA-MARIA, JESUKRISTO UZKOLAREN (MISTIKOAREN) AMA.

Alegintxo bat egin dezagun zerbait geiago egi bertan barneratu gaitezen.

"Misterio" itz au Paulo Donearen itz berezia da Kristoren Gizadiarekiko batasun eta elkartasuna adierazteko.

Bakuntz eta elakrtasun oni Bidaliak sarri ezartzen dio bere eskutitzetan soñaren antz irudia, Jesukristo Buru ta gu bere gorpuzki egiñaz. (1 Cor. 12, 27); Ef. 4, 12; Col. 1, 18 etc...).

Mariak, ordea, osatu zun gizakunde edo Encarnazio au Kristoren ezkutukia, Gizon-Jainko elkartze arrigarri ori egiñaz, len morroi giñanok Mariaren Semearen bitartez Jaungoikoaren Seme biurtuaz.

Ta au, Jaungoikoaren Semea Mariaren Semea izateaz batera, egia izaten asi zan.

Ama Birjiñak egin zun elkartzeko arrigarri ori, Jaungoikoagan betiraunde guztitik izan zan asmo-amets ori; eta egin zun Kristo gure Buruaren egizko Ama izatearekin.

Baña Kristo gure Buruaren danaren gorputzakiko Amatza orrek berakin daramazkin bai gure gogoakiko Amatasuna ta bai gu berpizten eta erosten Kristok izan zun lanari laguntza ere.

Beraz, Kristo gure gizakera bera daramanez, Gizadiaren buru da. Gizatasun ori, ordea, Mariagandik artu du; bere giza-izate artze orieta gure Kristo. soñaren zati izate au, gauza baten bi alderdi besterik ez dira. Orrela, ta, Mariagandik datorkigu Kristo-gorputzaren zati izate au.

Orixe dakarte barnean Bidaliaren itz aiek: " Bañan epea edo dembora bete zanean, Jainkoak bere Semea emakumeagandik jaioa bidali zun.. bere semetzat gu artzeko" (Gal. 4, 4-5).

Ori bera esan nai digute Elizaren Gurasoak beren etengabeko erakutsia adieraziaz bein eta berriz Mariak bere Semea sortzean sortze orregan eta orregatik, Gizadi guztiaren Ama egin zala.

Agustin doneak, adibidez, onela dasaigu: "Kristoren gorputzkiak zeraten ezker, nola ez dagokizue Ama Birjiñaren Aur-gintza?".

Onela mintzatzeko zaigu Leon Magno donea ere: "Kristo gure Eroslearen jaiotza gurtutzean, geronen sortzea ospatzen ari gera. Kristoren gizakundea kristau guzien iturburua da, eta Buruareb jaiotza Gorputzaren jaiotza bera da".

Ama Birjiña, beraz, Agustin donearen itz sakonez esateko, "Jesukristo" osoaren " Ama da, Kristo" mistikoaren "Ama. Kristo buruaren gorputz-zati geranon" "gogozko" "Ama, eta Buruaren beraren" "gorputzakiko" "Ama".

Bukatu dezagun: Mariaren Amatasuna egi garbi eta sakona zaigu, gure animaren izate eta bizia dan Kristoren-Gorputzkiak geranon iturburua Maria dalako.

A.M.D.G. et B.M.V.

Madinabeitia tar Josu S.J.

KRISTO-REKIN BĀ TEĀN BERPISTUĀK

Dom Columba Marmionen
"Le Christ dans ses Mystères"
idaztitik euskeraldua.

Jesusen Nekaldi-egunetako ezkutuki guztia Paul Doneak itz gutxi abetan adierazten digu: "Bere burua apaldu zun, iltzeraño men eginaz". Ikusi degu noraño apaldu dan Jesus; apaltasunaren azken-muga jo du; "maledictus omnis qui pendet in ligno" idatzita dagonez, "dongetsi baten eriotza" aukeratu du.

Bańan gure Jaunak jetsi nai izan zuan laido eta ońazeko osiń oiek, berebat maitasun osińak dira; eta maitasun orrek erakarri dizki-gu bere aitaren errukia, Zerurako eta donetasunerako esker guztiak.

Apaltasun itzak Nekaldi ezkutukia adierazten digun bezela, Paul Donearen esan batek gogoratzen digu Jesusen Berpizkundea: "Jainkoa-arentzat bizi da". Arengan ezta arrezkero bizi oso ta aintsatsua baizik, gaxotasun eta eriotza-

ren bildurrik gabeko bizia. "Ezta geiago ilko; eriotzak eskurik eztu arrezkero aren gain". Bere bizia osoki Jainkoarentzat, Jainkoaren eta Aren aintzaren inoiz baino zaleago.

Bere Letanietan, Eleizak izen berezi batzuetaz deitzen oi ditu Jesusen ezkutukiak. Aren Berpizkundera "Donea" deitzen du: "Per sanctam resurrectionem tuam". Zer esan nai du orrek? Jesusen ezkutukiak oro ez al dira bada doneak? Bai, noski. Len-leenik Jesus bera "doneetan doneena" da: "Tu solus sanctus", Mezako Glorian abesten diogun bezela. Bai, Bere ezkutuki guztiak doneak dira. "Donea Bere Jaiotza" "Quod nascetur ex te Sanctum"; "Donea bere bizitza guztia"; "Bere Aitari atsegin zitzaiena egin du beti"; badakizute bestealde, inork ez diola obenik egotzi al izan. Bere Nekaldia donea da; gizadiaren ogenakatik il da bai, baiñan opari kutsugabea da; bildots orban gabea da-ta. Bera oparitzat eskeintzen dan apaizpurua ere "guren, utsik gabe garbi eta ogendi-tartetik berezia da".

Zergatik, bada, Berpizkundera, Jesusen beste edozein ezkutuki baino bikainago "done" deritza Elizak?

Ezkutuki ontan Jesusek era berezi batez darakuskigulako donetasun ezaugarriak; Ezkutuki onek nabarmenago azaltzen dizkigulako Jesukristo bere eredu eta iturburutzat daukan giza-donetasunaren eragingarriak. Izan ere, gure bide ta argi dan Jesus, bere Jainkoatasunarekin batu ditezken onomen guztien ikusbide azaltzen bazaigu bere bizitza guztian, bere Berpizkunderen batez ere donetasun erakuski dagerkigu.

Zein dira bada donetasunaren eragingarriak? Giza-begietan bi dirala genesake: alegia, bata edonolako ogenetikan aldentzea edo izaki orori bizkar ematea; eta osoki eta iraunkiro Jainkoarene izatea, bestea.

Orra bada, ikusi degunez, bi ezaugarriok garbi, Jesus illobitik irten aurrean ez beziñ argiago arkitzen ditugu bere Berpizkundeon. Gizon egindako Itza, betidanik "done" bikaiñena izan da, baiñan bere Berpizkundeon dagerkigu done-itxura argienaz ederkienik jantzita. Orre-xegatik dabes, beraz, Elizak: "Per sanctam Resurrectionem tuam".

Ederretsi dezagun bada, illobitik bizidun eta aintzatsu txutitzen zaigun Jesus. Or dakuskegu Berpizkunde ezkutuki arrigarria: bizia erioaren garaille, Zerutierra lurtiarraren garaille, Jainkotasunezkoa gizatasunezkoaren garaille; oartuko gera ere ontan osutzen dala egiazko donetasun-goiburua.

- I -

Bere Berpizkunde surretik zer zan Jesuskristo? Jaungoiko eta gizon. Betiereko Itza, ogendi-izakitasunaz jantzia; inola ere etzan ogenaz kutsatu gizatasun ori, baiñan guregan naiz ogen-ondorio diren eta bere Jaungoikotasunarekin batu ditezken soil-argaltasunen mende jarri zan. "Vere languores nostros ipse tulit, et dolores nostros ipse portavit".

Begira Jesusen ilgarritzko bizitzari: estalpean, orra or umetxo argala, bizigaillutzat amaren esne eske. Geroago nekea yastatu du: "Fatigatus ex itinere sedebat"; bere soil-ataletan nabaritzen du nekea; logaleak, itxurazko ez baiñan egiazko logaleak, begiak itxi diakio. Bera lotan zetzan ontzixka uñek astantzen zutela, ikasleek iratzarri bear izan zuten; gosetu zan: "esuriit"; egarritu "Sitio"; nozitu zuan. Barru-estuasunak ere yasan zituan: oliondo-baratzan bildurrak, nazkak, larritasun eta goibeltasunak estutu zuten: "coepit parere et taedere...et maestus esse; trsitis est anima mea usque ad mortem". Azkenik, ill egin zan: "emisit spiritum".

Orrelaxe, gure argaltasun, gaitz eta oñazeetan eduko egin zaigu; alere ogenikan gabe eta ogenaren iturburu eta ondorioak ezagutzeke gelditu da. "Debuit per omnia fratribus similari, absque peccato".

Berpizkundearekin ordea, gaitz guztiok ayenatu dira. Ez dute geiago Jesus ez logaleak ez nekeak, ezta inolako argaltasunak menpetuko; Jesukristok ez ditu aurrerantzean somatuko. Aultasunik ez dazaguke. Bere soina ez al da ba egizkoa? Bai, noski. Miren Neskutsarengandik artu eta Kurutze-gaiñean ildako soin uraxe ber-bera dauka-ta.

Ara nola Jesusek berak yoranez darakuskigun. Berpiztu zaneko arratsaldean ikasleei azaltzen zai. "Baiñan ayek, larri ta izututa, iratxoren bat zekusatelakoan zuden. Esan zien beraz: "Zergatik larri zerate, ta zuen biotzetan ustekeriak sortzen dira? Esku-oñak begira izkidatzute: neu naiz. Aztatu ta ikus nazazute. Iratxoek aragirik ez dute, ezta ezurrik ere, zerok ikusita Nik dudanez". Ta au esandakoan, esku-oñak erakutsi zizkien". Tomas etzegen orduan ayekin. Etorri zaneko, beste ikasleek zesaioten: "Jauna ikusi degu". Baiñan arek etzien siñistu nai izan. Siñisgaitz zegen. "Iltze-sakiak aren eskuetan neronek ikusi, ta nere beatza iltze zuloetan ta nere eskua aren sayetsean sartu ezik, ez det siñetsiko". Andik zortzi egun buruan, Jesus berriz azaltzen zaye; eta gentza opa ondoren, Tomari diotsa: "Ekatzu onera beatz ori, ta ikusi eskuak; ekatzu esku ori, ta nere sayetsean sar ezazu; ta siñesgogor ez izan, siñestun baino".

Orrelaxe Jesusek berak, bere soina benetan berpiztuta dala egiztatu egiñarazten die bere ikasleai; baiñan soin ori munduko gaitz guztien menpetik betikotz yare dago; soin zalodia da: izakaiak poxelurik ez dagikio; arkaitzean zuloeta ta arri astun batek atxitako il-obitik

irtetzen da; ikasleak zeuden tokiko ate guztiak itxita zeudela, erdian jarri zitzairen. Bere ikasleekin jaten du, goserik dalako ez, bere erruki ta adeibidez ayei bere berpizkundea egiazkoa dala erakustearren baiño.

Berpiztutako soñ ori gaurgero illezkorra da; beñ il izan da: "quod enim mortuus est, mortuus est semel", baiñan orain, dio Paul Doneak, "Kristo illartetik piztu ondoren ezta iltzen; eskurik arrezkero erioak eztu aren gain". "Mors illi ultra non dominabitur". Jesusen soñ berpiztuarentzat ez da geiago eriorik, ezta aldi-aldakuntzarik: gizakunde-garaian ontzat artu zituaneke bearkizun eta gaitz guztietatik yare dago; minezkor, gogozko, danetatik oso yare ta uske dago orain.

Kristogan dakusgu donetasun-eragingari edo bideetatik aurrenekoa, ara: eriotzgarri, lurtiar, irazaki antzeko guztietatik baztert; ezta ez argal, ez gaixo-bera, ez minkor. Berpizkunde egunean Jesusek illobian bere il-zapiak utziaz, gure gaixotasun, argaltasun eta itzalak erantzi dituala darakaskigu; illobitik garaille ateratzen zaigu; oso aske dator, bere izaera guztiak bizi osoen eta zabalena dariola. Arengan egiazko Bizitzak suntsitu ditu erioaren aztarnak oro.

- II -

Alaz ta guztiz ere Jesus, piztu ondoren lur-gainean bizi da oraindik; ain maite dituan bere ikasleen siñismen urriaz errukituta, agertzen zaye, ayekin izketan diardu, ayen maikide egiten da; Aren bizia ordeu, erabat zeru-bizia da: "Vivit Deo".

Berpizkundeari darraikion Jesusen Biziaz ezer gutxi dakigu. Ederresgarria izan bear zuan,

noski baiño noskiago! Bere bizia gizadiaren aldez emanaz, Bere Aitari darakuskio zenbat maide duan; orain zor guztia ordaindu dio. Zuzenbidea bete du; zorrikezta geratzen; gizadia Jaungoikoarekin berriz adixkidetua da; orra Erospea osotua. Baitan bere Aitarenganako Jesusen zaletasunak iñoiz baiño biziago eta osoago dirau. Jesusek bere Aita orduan nola goresten, maitatzen, eskertzen zuanik, Goizperkiak ez digu ezer aipatzen; baina Paul Doneak itz-biz dasaigu: "Vivit Deo"; "Jaungoikoarentzat bizi da".

Onatx donetasunaren bigarren eragingarria: Jainkoari batua, mendua, emana izatea. Zeruan ez ezik, iñoiz inun ez dazagukegu egun zoriontsu ayetako Jesusen gogo-bizitza; Gotzonak lilluraturik egon ere zegozkion begira; bear guztietatik aske, lurtiarron argaltasun danetatikan yare, Jesusen gizatasun donea, iñoiz ez bezela Jaungoikoa gorets eta gorets ari da. Bere Aitaren aintza darion agortu eziñezko iturri bat egiña dago orain Jesusen bizia. Argaltasuna erantzita, erabat argi, indar, edertasun ta bizi biurtua da; Aren izakia ezta ixiltzen bere gorespen aintzagarrietan.

Jaungoikoak egindako irazaki guztiak gizonagan batuta daude, onen bitartez beren Egillea goresteko. Zer genesake bada, berpiztu dan eta erioa garaitu duan Kristo, apaizpuru zoriontsuak Irutasun Doneari zuzentzen dion etengabeko goratzarreez? Jesusen gizatasuna orain indar ta argi bikainenetaz estali ta betetzen duan Jainkozko bizia, orren aundizki gorai patzen ari dan Kristoren goratzarre-abesti ori ezin azalduzkoa da ...

Orra zer nolakoa dan Jesusen Berpizkunde ondorengo Bizia. Orixe daukagu gure bizi-eredu, eta

Jesusek, Bera bezela Jaungoikoarentzat bizitzeko eta bere berpiztu-izakeraren erdikide izateko eskerra Jaungoikoagandik iritxi digu. Ez digu bada ori Bere Berpizkunderaz iritxi; azken arrasa emanaz bere izate ilkorra bururatu zuan: arrezkero irabaz-aldiari azken muga jarri dio; bere opa, gizakundearekin batean asi zuan, eta Kurutzean illaz osatu: aren bidez iritxi dizkigu iritxitakoak oro.

Bera illobitik aintzatsu ateratu ondoran ere, ordea, bere irabazkiek ba-diraute guretzat. Ikusi, adibidez, Jesusek gorde nai izan dituan bere sakien zauratzak: eder eta argi darrakuskio bere Aitari, Arengandiko eskerraren artzedun-agiriak bailiran; "Semper vivens ad interpellandum pro vobis".

Dakizutenez, Ugutzak billakatzen gaitu Berpizkunderako esker-erdikide. Ori Paul Doneak garbiki ta sendoki dasaikigu; ara: "Ukuzpenez Jesusekin ildakotzat eortziak gera, aitaren aintzarako illetatik Jesus piztu dan bezela, gu ere bizitza berritan ibiltzeko."

Ukuzpenean eman diguten ur doneak, Bidalaren iritzi, illobia adirazten digu. Ur arek anima erru, kutsu guztietatik garbitzen du, gogozko eriotzatikan askatzen eta Jainko-bizitzaren askiña dan eskerraz jazten: orobat illobitik irtetzean, argaltasun guztiak erantzi zituan Kristok, aurrerantzean bizitza berri osoan ibiltzeko. Orregatik, Kristaudiaren asiera artan, Ukuzpena ematen oi zan, bakarrik, Berpizkunde gabea eta Etorkunde egunean, egun ortan amaitzen dalako Pazko-aldia. Pazko-asteko elizkizunak ulertzekotan beti gogoan euki dezagun egun oyetan aundikiro ematen oi zutela, beñola, Ukuzpena.

Kristorekin eta Kristoren bitartez berpiztuak gera beraz, eta gurari leyatsuenaz nai gintuzke gu ere bere bizitz ospetsuaz bizi arazi.

Jesus berpiztuaren gurari osasungarri oni erantzuteko eta Bera bezelakotzeko, zer egin bear degu? Gure Ukuzpen-gogoaz bizi. Gure bizieran ogenaz kutsatutako zer edo zer baldin-badegu, uraxe erantzi; "beñolako gure izakia" gero ta geiago "erail": eskerra bedi gure agintari ta zuzendari bakarra. Auxe da gure donetasunerako bidea: ogen eta ogen-bidetik, irazaki eta lurtiar atsegiñetatik iges egin, alik eta osokienik eta aldage Jaungoikoagan eta Jaungoikoarentzat bizi-tzeko.

Egintza au Ukuzpena artzean asi genduan eta bizi geraiño jarraitu bear degu. Egiaz, Kristo beñ besterik ezta ill: bere eriotzaz darakuskigu ogeñari gu ere nola il. Gu, ordea, egunero il bearrak gera, ogen-erroak gugan dirautelako beti, eta ayei indar ematen ekin diardulako beñolako etsaiak. Erro oyek gugan igartu, gaiztakeririk ez egin, iñor ez ezez ez itxutuki maitatu, ezer ez egin ez erruz, ez ta ere giza-arauz; emengo ezertxori biotza ez itsatsi, zeru-gaietarako beti aske euki baño: onatx bada gure donetasunerako lenengo eragingarria: orixe bera dakusgu oso ta biziro, berjabetasun zabalenean aske bizi dan Jesus berpiztuari begiratzean.

Paska-doaiak ez digu besterik gogoratzzen. Ikusi Paul Doneak zeñ garbi ta zeatz azaltzen digun: "Orantza zarra zuengandik jaurtazute, ore berri izan zaitezten, otil zeraten bezela, Kristo, gure Paska-bildotsa, il dan ezkerro. Orantza zarra dan gaiztakeri ta maltzurkeria alde bat utzita, beraz, Paska ontako otillak izan bitez gure biotz garbi eta zintzoak".

Bidaliaren aolku bero auxe bera dirakurgu Paska-eguneko Jaupa-irakurgaian. Idazkun au, gaurko egunean, zenbat kristaumentzat eztago bada ulerkaitz!!! Alaz ta guztiz ere, beste ainbestern artetik auxe da bada Elizak aukeratu du-

an idazkuna, Berpizkunde-ezkutukiok ospatzerakoan, zer nolakoak izan bear degun guri adierazteko asmoan. Ta zer dala-ta auxe aukeratu?

Ezkutuki ontatik gure animak bildu bear duan arnaria sakonki bañan garbiki darakuskigulako. Zer esaten zaigu bada idazkun ortan?

Badakizute Israeldarreanean, Paska-egunerako -- Gotzon erailtzaillearen "Igarokunde" aipatuaren urte urrena zitzayen-ta Ebertarrei, Paska-eguna-- Paska-egunerako orantza ondarrak oro beren etxetatik ostendu bearrak zituztela; gero, jai-egunean, Paska-bildotsa il eta zutik jaten oi zuten otillekin, ori da orantzagabeko ta artzi-gabe ogiekin.

Egite guztiok egiazko Paskaren "iruditzat" yazo ziran. "Orantza zarra zuengandik yaurtazute"; "Lengo bizitzako gizaki zarra erauzi ezazute"; zuek Ukuzpenaren bidez uko egin diezuten ogen eta irriskerien iruzurrez irotua zenuten "lengo bizitzako gizaki zarra erauzi ezazute"; Ukuzpenaren bidez bizitza berrian sartuaz Jesusekin ildakotzat eortziak gera, gudan ogena erail duan Jesusekin, gero; eskerraren bidez ore berri egiñak zerate, ori da "izaki berri", Kristo berpiztuaren ereduz "gizaki berri".

Orregatik bada, Paska etorritakoan Judutarrek orantza utzi eta Paskabildotsa jaten zuten bezela, "zuek ere orobat, kristauok, Berpizkunde-ezkutukian erdikide izan nai badezute eta zuen alde il eta berpiztu dan Kristo-Bildotsarekin batu nai bazerate, ez dezute geaigo ogenean bizi bear; gaiztakeri eta maltzurkeri-orantza darioten griña txarretatik garbi zaudete: "Non ergo regnet peccatum in vestro mortali corpore"; Jaungoiko legean garbi ta zintzo bizitzeko indartuko zaituzten eskerrean irauzute.

Orixe da Paul Doneak Berpizkunde jaiean dirakaskigun garrantzizko egia; irakasgai ontantxe berean datza donetasuneruntz egin bear degun lenengo urratsa: ogenari uko egin; gugandik baztertu; orantza zarraren antzo, gure egintzak kutsutu lezazketen zargaiti lurtiarrak oro; Jesus berpiztua bezela, ogeneti eta mundu ontako gauzetarako zaletasunetik aske, gogozko bizitzaz bizi.

Esker-laguntza ori Jesus Berari eskatzen diogu, Paskoaldiko goratzarren bukaeran a-besten oi degun aopaldi ontan:

Quaesumus auctor omnium
In hoc paschali gaudio,
Ab omni mortis impetu
Tuum defende populum.

"Paskoaldi zorientsu ontan, arrenka otoizten zaitugu, danen Egille ori, eriotzaren oldarretik begira dezazun zure erria".

Bai, Kristok begiratu beza bere erria; Paul Doneak dionez: "Bere odolaz irabazitako erria", "populum acceptabilem" "atsegiñ litzaioken erria". Eta zertatik begiratu? Gogo-eriotzaren ausikitik, ots, ogen eta ogen-bide guztitik, gungan esker-bizitza ezereztu edo suldu lezaken edonolako gaitzetik. Orduan bai, izango gintezke la Kristoren gogokoak, "iñolako orban, zimur edo olakotsurik gabe". "Sine ruga, sine macula".

Donetasunerako bigarren urratsa, lenengoari bere izaera ta indarra damazkiona, suxe degu: Jaungoikoarenak izatea eta, Paul Donearen itza artuaz: "Jaungoikoarentzat bizitzea".

Zenbatu eziñ aña mail dauzka "Jaungoikoarentzat bizitze" orrek. Len-leenik, jakiña, erabat ogen larritik at egotea eskatzen digu: inolaz ere alkartu eziñak baitira, ezperen, o-
gen larria eta Jaungoikozko bizitza. Gañera, o-
gen ariñ, ogen erro eta jatorrizko gurarietatik
garbi izaten beartzen gaitu, alegia, irazakitako
ezertxori gure biotza lotuta ez eukitzera. Bere-
ixte ori osoago, ta gu yaregiago; gogo-yareikun-
tzaz askeago, eta gudan Jaungoikozko bizitza oso
ta zabalago: gure anima gizatasunaz utsago ta
Jaungoikotasunaz beteago, zeru-gauzez goseago,
Jaungoiko-biziz pizkorrago.

Izakera zoriontsu au irixten duan ani-
ma ogenetikan aske dago eta bere egintza guztiak
goi-indarrak eta Jainkozaletasunak eraginda da-
gizki. Orduoro eta geiago aldageko goi-maitasun
orrek ez beste ezerk ez darabillan anima, osoki
Jaungoikoari datxikio, muiñ eta zail, Kristoren
eta Aren Aitaren aintza-billa dabil: orduantxe,
bai, animaren bizitza osatua dala; orrelako ani-
ma donea da: "Vivit Deo".

Dakusazutenez, paskoaldian, Elizak as-
kotan aipatzen digu "bizia", Kristo berpiztuak
eriotza garaitu dualako ez bakarrik, betiko bi-
zitz-iturriak animai ber-ideki dizkielako baiño.
Bizitz ori Kristogan darkigu: "Ego sum Vita".
Auxe dala-ta, askotan gañera, Elizak irakurreraz-
ten digu egunotan, matsondoaren alegi au: "Ni
matsondoa naiz, diago Jesusek; mats-ayenak, zuek;
egon beti Neregan, ta Ni zuengan; Ni gabe ezer-
txo ere ezin zenegikete-ta". Kristorengan egotea
bearrezkoa degu beraz; eta Berak ere guregan e-
gon bear du, ale ugari ekarri al izan dezagun".

Nolaz bada ori?

Bere esker-laguntzaz, Berarengan dauka-
gun sifismenaz, Berak darakuskigun onoiemenak guk
ere antzartuaz: "galaxia, zitu ugari ekartzekotan,

lurrean erori eta il bear dan bezela", gu ere ogenari uko egilaz, gure bizitzari iltzen geranean; Goteunaren goi-argiak eraginda, Jesusen. Goizperkiko agindu eta esakunen arauz bizitzen geranean: orduantxe, Kristoren Jaungoikozko bizitza izkortu egiten da gure animetan; arrezkero "guregan Kristo bizi da": "Vivo ego, jam non ego, vivit vero in me Christus".

Orixe da osakuntzerako jarraibidea: "Viventes Deo in Christo Jesu". Ori ezin da egun batez iritxi. Ukuzpenaz asten degun donetasuna arian-arian baizik eta gudaldiz-gudaldi baizik ezin dezakegu osatu. Ogenari, lurreko gauza guztiai gero ta illagotzeko, eta Kristoren bizitzaz gero ta sendo ta yorikiago bizitzeko asmoan gure egiñal guztiaz saiatu gaitezen bada, egunero, Berpizkundetik eta Etorkundersaiño.

Kristok bear du gure biotzetan errege izan, eta guban ez bedi ezertxo ere egon Beraren mende jartzeke. Bere garaipena ezkerro zer dagi Jesusek? Aintzatsu ta errege bizi da Jaungoiko Aitarengan. Errege dagon tokian baizik ez da bizi Kristo, eta gure animan agintzen duan neurrian, bizi da bertan. Apaizburu bezela, errege da. Bakaldun ote zan, Pilatus-ek galdetu zionean, Jesukristok zerantzuion: "Tu dicis, quis rex sum Ego"; "bai, bakaldun naiz; nere yaurerria ez da ordea ludi ontakoa". "Yaungoikoaren yauraldia zuengan daukazute". Krisoteran aginte au gero ta osotuago izan bedi: orixe daskaiogu Jaungoikoari: "adveniat regnum tuum" esanaz. Betor bai, Jauna, zure Kristoren bitartez guregan egiazko bakaldun zaitezken egun ederra!

Zergatik bada, etzaigu oraindik azaltzen egun ori? Guregan ainbeste gauza: gure oldea, gerekoikeria, ekiñaldi lurtiarrak etzaizkiolako oraindik Kristori mendu; eztegulako oraindik egin Aitaren gurari au: "Dan-dana Kristo-

ren oinetan ipini", "omnia subiecisti sub pedibus ejus". Aitak gaugeru omen ospetsu orixe nai dio emen Bere Seme Jesusi: "Exaltavit illum et donavit illi nomen...ut in nomine Jesu omne genu flectatur". Aitak goraldu nai du Kristo; Kristo Bere Semea dualako, eta onek bere burua apaldu zualako; Jesusen izenari belaun guztiak makurtu dakizkion nai du; izaki guztiak mendu bekizkio: zerukoak, lurrekoak, lurpekoak; baita edonorengan dauden gauza guztiak ere: naimen, antze, irudimen, askuak oro.

Ukuzpenaz Errege etorri zitzaigun guregana; baiñan ogen-etzabaidak aginte au suntsitu nai dio; ogena, gaiztakeriak, ludi-zalekeria ezerezten ditugularik; Jesusengan sinistuz, bere esanak entzunaz, bere irabazietan itxaronez bizi geranean; gauza guztietan Jesusen atseginaren bila baldin bagabiltz, orduan bai, Kristo dala gure jabe, orduantxe bai guregan bizi dala gure Bakaldun, bere Aitarengan dagoan bezela; gutzaz bere Aitari lesaioke: "Onatx anima au, Aita zure izena donetsia izan bedin, onengan Errege bizi naiz".

Orra bada, zer nolakoa dan Paskoaldi ontako goi-eskerra: giza-izakerari, ludi ta luditari guztiai uko egin, eta Kristoren bitartez osoki Jainkoarena izatea. Gizon egin zan Itzaren Berpizkundea, bizitz eta donetasun biurtzen zai gu. Kristo gure burua dan ezkeru, "Jaungoikoak Arekin berpiztu gaitu". Berpiztutakoaren bizi-ezaugarriak izan bitez gure ezaugarri.


Paul doneak oratarakoxe aolkua ari-ta-ari damakigu egun auetan: "Kristorekin berpiztu bazerate, dasaigu, ots, Kristok Bere Berpizkundeezkatukian erdikide egin zaitzaten nai badezute, Aren biotzkada doneak jakitu nai badituzute, Arekin orain "Paska jan" eta egun batez garai-ospean Aren kideko nai badezute izan, "Goikoen bila ibilli zaitzete"; iraunkorrek diran "goikoak

itzazute gozagarri", ta ez igarokorrek diran " lur-gaiñeko" omen, atsegiñ, aberastasunak; "Si consurrexistis cum Christo, quae sursum sunt quaerite...non quae super terram. "Izan ere, o- genarentzat illak zaudete; Jaungoikoarentzat, ostera, Jesukristorengan biziak zerate. Eta, Je- sus berpiztuta, illezkor Aitarengan beti bizi dan bezela, zuek ere ogenari il zakizkiote, eta Kristorengan Jainkoarentzat bizi zaitezte. Ita et vos existimate: vos mortuos quidem esse pec- cato, viventes autem Deo in Christo Jesu".

Euskeraltzallea,

EIHERABERRI

Lazkao ko beneditarra



ANDRE MARI GURE AMA

Ama-semeak alkarekin dijoaz: a -
marik semerik gabe ez eta semerik amarik gabe
ere ez. Andre Mari`ri gizonokiko kidetasun gu -
zia, Kristo`gandik datorkio; Kristo gure anai
dalako degu Ama Andre Mari.

Bi ama:

I Soiña`ren ama. Ama! Ora or ao beteko itzik
biguñ eztiena; biotz-mugira oro, sendo, indar
ditzazkena; ordu sail garatzetan gogoz aitatzen
deguna. Ama! naigabe-miñetan oroitx-iturri le-
guna. Urrutira ezagun genezake ama gabeko ume-
zurtza: illeak narraz, aupgia zikin, tirantea
zintzilik, beatz-muturrak agirifñ... Ez da ori
aski. Aren begiratua! Errukarria, bakardadean
azi ume zorigabea! Nork iñutu ote du? ama-orde-
koren batek; ez numbait benetako ama izan; ez
baita benetako ama iñola ere umea`ri bere aur-
tzaroan kontu artu diona edo bularretako esnez
azi duana; oneri ugatz-ama deitzen diogu; ama`
ren egin`bearrak auk ere, baiño ez amatasuna
damaiotenak. Ama`ri izen eta benetako amatasun,
aurra`ri izatena, lur onetara alegia, emateak
damaio,, aurra erditzeak dakarkio.

Aurra`k ama`ren bearrean arkitzen dira; go-
gozko bizitzan, anima`ren bizitan, geienak beñe-
peifñ, aur ta ume gera; ori ala izanik, ama`ren
bearrean gera.

II Gogozko Ama. Naturalki, naturaliter, gertatzen dana, gogoki, spiritualiter, gertatzen ote? Andre Mari' ren guganako amatasuna, bere eros-laguntze, corredemptio, esker-banatzte, dispensatio gratiarum, eta guzien bitarteko, mediatio universalis, oiekin, osoro elkarturik dago. Ori dala-ta teologialrien arteaneztabaida batzuk sortu dira; au da, oietan ia zein lenen.

Batzuk, eros-laguntza, gogozko amatsuna' ren aurrez-aurre ipintzen dutenak. Andre Mari gizonen ama bada, diote oiek, eros-lagun dalako da. Beste batzuntzat barriz atzekoz-aurre; eros-lagun gizonen ama dalako. Neoni ere auri itxasten nartzale. Ta izan ere, ama izan ezik, zer ikusi bai al zukean gurekin? Zer dala-ta gu erosten Kristo' ri lagun egin? Edo, aiek diotenez, Kristo' ri oñazeekin lagun egin ziolako gure ama? Leenik ere izan baizan ama. Bafia oietaz ez diardugu.

Naturalki ama izateko, semea erdi bear duala esan degu, au da, gizona munduratu. Gogoki, spiritualiter, izateko ere erdi bearra zuan? Erdi giñuzen? Bai. Nun? Lenen, aingerua' ri, Jainko-Semeak beragan aragi artzeko, baiezkoa eman zionean. Bigarren berriz, Kalbarioan Kristo' rekin batera oñazeak jasan zituanean.

Bi eratara gaitu Andre Marik seme; batera edo pilloan, globatim, Kristo' ren atal geradenez, eta nor bakoitza' ren ama bezela, Ugutz bitartez Kristau biurtzean. Orrela bada, izatez eta danez, de facto esse, kristau guzien ama da; ditekenez, in potentia, kristau ez diradenen guziena ere bai.

Ikus zagun beraz, au da:

TESIS:

Andre Mari, egiz eta ereduz, formaliter, gizon oron gogozko ama da; ama berriz, aingerua' ri Jainko-Semea gizon egiteko baiezkoa eman zionetik eta gurutz-ondoan oñazeak jasan zituaneetik.

Azalpenak: ama; izena bakarrik ez, izena`k esan nai duana ere adierazi nai degu; au da, ama`ri amatasuna dagokiola.

Gogozko Ama: spiritualis; goi-eskerrak damaigun bizitzaren ama. Goi-eskerra Jesus`ek eman zigun; Jesus berriz Andre-mari`k; Jesus gabe eskerrik ez, Andre Mari gabe Jesus`ik ez; gero, Andre Mari gabe goi-eskerrik ez.

Egiz eta ereduz: Ez da Andre Mari gure ama Kristo`ren Ama dalako bakarrik; ez litzake ori naiko.

Aingerua`ri baiezkoa ematean: Andre Mari`ren "baietz", "fiat" arek, etzemakin, soilki, Kristo`ren amatasuna, gizonen ganako gogozko amatasuna ere bazemakin. Au da bada lenengo umea, Andre Mari`k semetzat artu gifuzen ume xoragarria.

Guk Kristo`kin izan gendun batasuna, alkartasuna, ondo ezagun zitzaion Andre Mari`ri. Ondotxo zekin jakin Andre Mari`k Jesus`ek esker ugari zekarzkiela eta esker oiek izakie`ri, bera, Mari, bitarteko izanik zijoazkiela. Ori ausnartuz eta gogoan garbi edukiz eta jakifia`ren gainean eta nai izan-da, scienter et volenter, onartu zuan Andre Mari`k gure amatasuna. Au izan zan ama`k aurra sortzen duan bezela, Andre Mari`k gu sortu gifuzen ume pozgarria.

Oñazea`k jasatean: Andre Mari`k Kristo erditzean, oñazerik gabe egin zuan. Ez orrela gu erditzean. Esan genezake: Nazaret`ko amatasuna, sortzekoa izan zan, Kalbario`ko bigarren amatasun au berriz, erditzekoa. Andre Mari`ren oñazeak bitarteko zirala ixuri nai izan zizkigun Kristok Bere eskerrak. Oñaze oiek sortzetik orduraño iraungo zuten. Beste era bat autetsi zezakean Aita Alguztidunak; gauzak ala dirala orde, Aita`ri atsegin zitzaizkioenetan Semea`ri ere zitzaion atsegin.

Andre Mari`k baietza ematean, Jesus`en opari neketsu`ari ere toki egin zion bere sabelean,

an, bere lurrun-babesean asi ta gorde sedifi. Andre Mari'ren onartze ori, eskeintz neketsuekin batuta, elkartuta zihoan; Kristo'ren naigabe ta ofazeerik lotuta alegia, Aita'ren gogoko zalako.

Eliz Ama'ren erakutsia'k:

I Andre Mari, gogozko Ama, Kristo'k aragi artzean.

Pio X'gnk, "Lux veritatis" idazkian: "Bera, Mari, au da, gizadia'ri Eroslea erdi ziolarik, Aren Ama da ta gurea ere on-ona, Kristo'k anai nai izan gaitulako. Ipsa scilicet, ex hoc quod Humani generis peperit Redemptorem, nostrum quoque omnium, quos Christus Dominus fratres habere voluit, quodammodo existit benignissima Mater".

Pio XII'gnk, "Mystici Corporis" idazkia'n: "Bera izan zan, sabel txit orban gabetik Kristo gure Jaun eta Eliz-buru... eman ziguna... Bera baita ere bada, Kristo'ren atal guzieren erditzalle. Ipsa fuit, quae Christum Dominum iam in virgineo gremio suo Ecclesiae Capitis dignitate donatum... edidit... Ipsa igitur, omnium membrorum Christi sanctissima Genitrix".

II Andre Mari, gogozko ama, gurutz-ondoan.

Pio VIII'gnk, "Praesentissimus" bula'n: "Bera izan ere da gure ama, Kristo'k gurutzean iltzer zegolarik eman zigun grazi ta erruki dun ama. Ipsa enim mater nostra, mater pietatis et gratiae, mater misericordiae, cui nos tradidit Christus in cruce moriturus".

Leon XIII'gnk, "Augustissimae Virginis" idazkia'n: "Eleizak beti danik euki duen bezela, Kristo'k Jon izendatzean, gizadi osoa adierazi zuan. In Joanne autem, quod perpetuo sensit Ecclesia, designavit Christus personam generis humani."

Pio XI'gnk, "Rerum Ecclesiae" idazkia'n: "Mari, gizon oro Kalbarioan semetzat eman zitzaizkiona. Maria, quae, cum homines universos in Calvaria habuerit materno animo suo commendatos!"

Idazteunak, zer digute?

"Stabat autem juxta crucem Jesu, mater eius, et soror matris eius... Cum vidisset ergo Jesus matrem, et discipulum stantem, quem diligebat, dicit matri suae: Mulier, ecce filius tuus. Deinde dicit discipulo: Ecce mater tua"... (Jo. 19, 25-27) Jon garbi mintza zaigu; orain, itzetik ortzera artu bear al ditugu edo erokitasunari begiratu? Adierazten dutena esan ote nai izan zuan Jesus'ek?

Elizak asiera duanetik ontzat eman zitun itz oiek eta adierazten dutena esan nai dutela azaltzen digu; au da: Jesus'ek Andre Mari amatzat eman zigula. Andre Mari'k bere sabelean Jesus sortu zuanean gertaturikoa ta orain-arte ixillan gorderik zegoana, Jesus'ek gurutzetik azaldu zigan.

Garbi erakutsi digu Leon XIII'gnk.: "Eliza'k beti-danik eduki duan bezela, quod perpetuo sensit Ecclesia,... Kristo'k Jon izendatzean, gizadi osoa adierazi zuan".

Jon'ek gañuntzean esan dizkigunetatik ere, ezin genezake beste ezertxo atera.

Apokalipsin auxe erakusten zaigu: "Et signum magnum apparuit in coelo: Mulier amicta sole et luna sub pedibus eius, et in capite eius corona stellarum duodecim: et in utero habens, clamabat parturiens et cruciabatur ut pariat" (Ap. 12, 1-3)

Andre ori, Mari, Kristo'ren ama da; ez orde Kristo Burua'rena bakarrik, atalena ere bai.

Pio X'gnk, "Ad diem illum" idazkia'n argi emango digu: "Guziek dakitena da, andre ura Andre Mari dala, gure buru dan Kristo erdi zuana. Mulier amicta sole... Nullus ignorat Mulierem illam

Virginem Mariam significasse, quae Caput nostrum integra peperit. Vidit igitur Joannes Dei Matrem ex arcano quodam partu laborantem. Quonam partu? Nostrum plane... "Kristo erditzean Andre Mari'k erdi-mirik etzuan; oraingoan miriak nabari baditu bada, gu egin gaitulako izan dira, ta erdi bagaitu ama da.

Luka ebangelaria'k (2,7) dionetik ere ikus dezakegu:"Lenen semea erdi zuan, et peperit FILIUM suum", Jesus aurrenengoa bazan, geiago izan zituan. Sifismenak erakusten digunez orde, aragi-semerik etzuan Jesus besterik izan. Aragi-semerik ezean, gogo-semeak erdi zituan, eta nor-tzuk ote oiek gu ezik?

Eliz-gurasoa'k:

Agustin deuna'k:"Mari, atalen ama. Maria mater membrorum".

Epifani deunak:"Mari, bizi dutenen ama. Maria mater viventium".

Alfonso deunak:"Ez dute uste barik bere otseña'k Andre Mari ama deitzen, beste izenez ezin baiditeke deitu. Non fortuito Maria a servis suis Mater vocatur; imo videtur alio nomine vocari non posse".

Grignon Monfort deuna'k:"Ez dezute arkiko burua, soilki, erdi duan amarik".

Eleizak sarri deitzen du Andre Mari "ama errukitsu, pekatarien iges-leku, gaixoen osasun, Mari, grazia'ren ama... Mater misericordiae... refugium peccatorum, salus infirmorum, Maria mater gratiae..."

Teologi-azalpena:

I Andre Mari, Jesus eman zigulako, artes eta egiz gure ama deitzen degu, ta ala ja izan. Izan ere anima'ri bizia pekatuak sortu sion. Kristo orde, errukiak eraginda, guk galdu bizitza

itzultzera etorri zitzailgun: "Ego veni ut vitam habeant" (Jo. 10, 10) eta Jainko eta gizon tarteko zalarik, aitagoa egin zuan. Kristo gure animen Aita baldin bada, Kristo ekarri zigun Andre Mari, ama da.

II Kristo'k anai gaitu; anai berriz, Bere atal gorpuzki geradelako. Orrela bada, Andre Mari'k Kristo, osoro, totaliter, erdi zuan: Bura ta gorpuzki. Orduan, gu ere erdi giñuzen, gu ere seme gera.

III Andre Mari, kristau guziena ama da.

Amarekikoa'k, egin-bear auel dira: semea erdi, maite izan, janari eman, onera zuzendu, gaitzotatik gorde, seni-zatia banatu... Andre Mari'k kristauokin au ta geiago ederki baño ederkiago betetzen ditu: Erdi giñuzen, anima'ren bizitzara alegia; benetan gaitu maite, goi-eskerrez asetzen gaitu, etsaien atzaparretara ez gaitzen bere babesean gauzka, azkenean dagokigun seni-zatia ar dezagu, Jesus'i otoika daukagu...

IV Noiz, Andre Mari'k erdi giñuzen?

Esan degu: gorpuzkia'k erdi zituaneetik dator-
kio Andre Mari'ri guganako amatasuna. Erditze o-
nek, orde, bi une garrantzitsu damazki: Jainko
Semea gizon egin zanekoa ta gurutzekoa. Bi une
bereizi oietan artu giñuzen bada semetzat Andre
Mari'k, ordu eskero da gure ama.

Orrela Bernardino deunak: "Ordutik, Andre Mari'k baietza eman zuneetik, guziori osasun iritxi zigun eta guziok, benetako ama'k semea'k daramazkin antzera, bere errailetan ginderaman. Et omnia saluationi per hunc consensum se dedicavit, ita ut ex tunc omnes in suis visceribus bajularet tanquam verissima mater filios suos".

Alfonso deuna'k: "Orduan, gurutz-onloan, esan ezin alako atsekabeen bitartez, esker bizitzara gu erditzean, Andre Mari, gure ama izendatua izan zan. Tunc enim parturiendo nos, vi incomprehensi-

bilis doloris, in vitam gratiae, Maria constituta est mater nostra".

-ztabaidarik gabe, Ama zaitugu, seme gaituzu.

Felix Galdona

Villaro'ko Sakramentinoa



JARRI

-44-

FILOSOFI-SAILA GURE PILOSOPIA ULERGAITZA

Bein baño geiagotan zalapartatzen ditu nere barne-muñak, aize burrundari antzo, onako beste aize onek: Gure pilosopiaren uler-gaitzak alegia. Ez gaude pozik askotan... ez alajañetan... Zergaitik ordea gure pilosopian diogu, ainbeste banatze, azalketa eta erabakitze...? Gure legorren legor au bustitzeko, ur apur bat bederen ez al degu izango, ez al zaigu emango?

Betiko pilosopia edo "Philosophia perennis" ikasi ta jarraitzen degunon artean, gogapen auker gutxitan bada ere sortzen direla, ukatu ezin leiken gauza da. - Egizkoak dira orduan gaurko ikaslearen buru-oyu abek? Azterketatxo baten ondoren ezezkoa arkituko degu. - Nun dituzte bada beren erroak? Nun? "Materia concreta" edo dalako orretan. Añ zuzen ere gaurko gizona, "quantitas concreta" orrek erabat inperatua dauka eta ez gaitu arritu bear, pilosopia ere aize makur abek, batetik bestera dinbili -danbala ba-dabilte.

XX garren gizaldiaren semeak gera bai, eta ama onen seme laialak lez, "Metaphisica" entzute utsak nazka ematen digu, ikusten da ikutzen degun ura bakarrik maitatuz eta aztarrikatuz. Gaurko jakitunak, ta baita ere pilosopoak, ikusten edo ikutzen duan "materia concreta" orren zatirik izkutuena ezin geiago arte aztertuko ditu; areago oraindik: gauza orretzaz, "quantitas concreta" orretzaz, arau edo teori polit eta zeatzenak ere ematen aleginduko zaigu, bañan ortik aurrera etzaigu joango, emen pot egingo du, bere jakinduria

oro emen bukatuko da; alegia, eskuartean daukan gauza orren azken erro edo "ultima^e causae" jakiteagatik, ez digu urrats txikienik ere eman naiko.

Jakitun edo pilosopo abek, galdetzen, dezu orain, gauzen oñarriak, "quantitas concreta" ori areagotutzen duten sustraiak ezagutzen al dizkigute? Ta baitik bat, zer guzi auen gañetik, berauen egille ta eusgerri lez, izaki nagusirik ikusten al dute?... Erantzuna bakoitzak bere leporako aurkitu beza; nik, soillik, gizon aben egoera adibide bategaz azaldu nai dizuet.

Nork ez ditu ezagutzen antxiña-antxiñako sofiste izeneko grezitar pilosopeak? Idaztiak datsatenez, baster guzietan jakinduria saltzen ibiltzen ziran gizon auek. Bañan, ain merke saltzen zuten jakinduri ura nolakoa ote?... Sofisten buru izan zan Abdera^{ko} Protagora^{ren} onako esakizun au, naiko izango zaigu noski, easi-jakitun-diruzale irakatsien muña zeatz-meatz ikusteko. Protagora-k zionez: "Zer guzien neurria, (mensura omnium rerum) gizona bera da; au da, diranena ba diranez gero, ez diranena berriz, ez diranez gero. (De iis quae sunt in quantum sunt; eta iis quae non sunt, in quantum non sunt).

Beraz, zer guzien neurria gizona berbera da. Bañan diot nik, gizona bai bere zer izatean, ("in sua existentia), bai bere egitetan, ("in suis actibus") aldakor da; illezkor ez bañan ilkorra. Crduan, sofiste auen iritziz, egi betikorrik ez da benetan makurra dana, Jainkorik ere ez.

Aldi aundia dagola iruditzen zaizute. antxiñako Protagora ta egungo pilosopo berrizale auen artean? Baliteke... baliteke aundi xamarra egotea; dano dala neri etzait iruditzen ain aundia izan bear duanaik.

Zubiri^k dionez: "Gizonaren adimenak, au da, gizonari gizon egiten dion adimen orrek, egungo eguneko gizartean tcki bereizirik ez du". Ta alaxen gertatzen da gertatu ere: ba batetik zentzu-grin edo "appetitus sensitivus" orren indarrak, ta bestetik naimen goraltze ("exaltatio voluntatis") geiegiak, adimen gaxoa okildua eta itoa uzten baitute oro. Ez dugu onekin esan nai, gizon

gizon orok izatez ("a natura) duan zentzu-grin ori bere galbiderako duanik; bere jo-muga erreza-geta egintza onagaz ornituago lortutzeko baino. Obeki ikustearren, berau adibide batez azaltzen aleginduko natzaizue.

Munduaren egalean baserri txur edar bat dager. Ama goizean-goiz jeiki-ta, arrautzak sal tzera edo azokara juana zaigu. Bitartean berriz semetxea bakarrik geldi da etxean, eta esan be- rrik ere ez dago, urduri, oso urduri dagola amatxo on-ona noiz etorriko. Geienetan lez, oraingoan ere gozoak ekarriko dizkiola uste bai-du. Eta amaren oiñak etxe-ataria urratu bezain laixter, an'izan- go dego amaren ondoan, eskuan daraman ura zer ote dan jakin nai bizian; an dakusgu amaren gonari ti- ra ta tira, eskuan daukan ura goxoa den edo ez ja- kin arte, esaidazu ba ama, esaidazu ba ama, asper- tzeke bein eta berriz esanaz.

Nere ustez adibide onek ederki baño e- derkiago, gizon orok beregan, "anatura" duan zen- tzu-grin edo "appetitus sensitivus" ori azaltzen du. Gañera oso ondo bai datorkio Eskolastikoen zentzu-grin erbakitze ura: "Inclinatio in sensi- bile conveniens". Beraz, zentzu-grin au berez gizo naren doal berezi bat da; bañan jakina, gaingiko almenagaz zuzendua egon bear du, ta auxe da gaurko gizonak ikusi nai ez dutena; alegia, zentzu-grinari nagusitza eman nai diote, bere gisara, abere txiki bat lez, amiltegitik amiltegitara ibil dedin.

Au dala ta aldi auetan zentzu irritsek iñois baño menderatuagoak ta kutsutuagoak dauz- ka bai jakitunak, bai pilosopoak; ba, ikutzen ta i- kusten dutenabakarrik siñistu ta egitzat eduki nai dute; ta onegaz, -izateagaz- "Summum Bonum" edo "Summa Veritas" etaz itz egiten ba-diegu, beroien- tzat gauz auek uler eziñak bailiran lez, sudurren aurrean parra galanki ere egingo digute. Ez bai dira oartzen gizagaxoak lenen "materia concreta" ori adimenagaz gogotua ta orotua (Abstraído, uni- versalizado) izan bear duala, osterá bakarrean, "in particulari" Yon edo Iñaki ri zuzentzeko. Entzun Pio XII garrenak "Humani Generis" idazki- nagusian zer digun: "Betiko pilosopia (philosophia perennis), zer-dan alda eziñaren pilosopia da; pi-

losopi berrizale edo modernoa berriz, zer-dan aldakorrena".

Eta Tomas Deunak, Epaillaren 7^{an} poza-
ren pozez ospatzen degun gizon aundi onek, nolako
pilosopia erakutsi zigun... Gaztea zalarik, "Bos
magnus", "Bos mutus", idi aundia, idi mutua, deitzen
zioten bereikas-lagunak. Bañan bere irakasle izan
zan Alberto doneak ederki zionez: "Ludi osora za-
balduko ziran idi aundi aren marruak". Idazle
aundi baten iritziz, Tomas donearentzat metafisi-
ca da: "Aliarum princeps sive domina". Ta Tomas en
iritziz metafisica da: "Ordinativa aliarum". Aris-
totel aundiari jarraituaz, ederki baño ederkiago
gotzen zan bai bere adimena, ludi onen aldakor
ta uts izatetik, "motor inmovilis" artaraño.

Ain irakasle onaren ikasle arduratsuak
al gera? Azterketatxo bat ondo etorriko zaigu e-
men; ba, gu ere gaurkoak gera ta, baliteke egungo-
eguneko erdoi onetzaz kutsutuak egotea. Ezta
denbora asko bati onoko au entzuten niola: "Ay
Dios mío, ese también andaré con los universales!"
Ez det nik emen ondo edo gaizki zegonik esan nai.
Bai ordea, pipiak edonun ta edonoiz, batek uste
gutxiena duanean, jotzen duala.

Indar guziagaz leia gaitezen bada ikas-
tan degun pilosopi jator, egitsu ta betikor au a-
rreta aundiz ikasi ta jarraitzen. Onekin ez degu
adierazi nai, Tomas Doneak egiña dalako jarraitu
bear degunik; ez, iñolaz ere ez; egia beregan duala-
ko bakar bakarrik. Orrela zion Tomas Doneak berak:
"Non propter autoritatem dicentium, sed propter
rationem dictorum". Ez da ere pilosopi esan bear
guzia, gure pilosopian esana dagoanik. Ara Lacor-
daire ospetsuak zer dasaigun: "Tomas Donea bidar-
gi bat da, ez ordea muga."

Ez dezagula ba esan gure pilosopia u-
ler-gaitza denik ostera, geldiro bada ere jarrai-
dalogun bai ain maixu aundiari alegin osoagaz;
ba, euskal esaera zarrak ederki dasaigunez: "orain
piske geroan piske, egiten baita puske". Ta azken-
ez eta bukatzeko Jainko onari eskaritxo bat egin
dalogun Tomas Donearen itz eder aiek bein eta be-
rriz esanaz: "Domine, da mihi intelligendi acumen,
retinendi capacitatem, addiscendi modum et facul-
tatem, ta batez ere, interpretandi subtilitatem".

Goikoetxea^{tar} Adorador (sakramentinoa)

M. M. P. JAKI- TUN KATOLIKOEN...

BIGARRREN ZATIA

Sarrera.- Ar ditzagun Espaini'ko Gongoztzaiek batera egin duten aitorenaren itzak orrialde oien ari lokarritzat. Ala bai diote jakitun katolikuen eredu erakusten digutelarik: "Bera dute erakuste eta eredu Espaini'ko jakitun katoliku orok Espaini'ar eta atzerriar idazleak irakurri ta aztertzen, naiz guziraiko irizpidez, naiz eztebaidatan goimaitasun eta egokitasun eundiko izaten. Gainera, sinismen osoarekiko ta Elizaren Irakaskintza'rekiko zintzotasun okerre-ragaitzaren jabe zan. Jarrai bekiote ikas-mifian jakitun katolikuak; irakaslekiko begirapen eta itzal agertzen, ikasleak; idazten eta irakaskintzan idazle ta irakasleak".

Beras, bigarren zati onek atal oiek daramazke:

- I Espaini'ar eta idazle arrotzen aztertze
- II Guziraiko irizpide
- III Egokitasun eta goimaitasun jabe, eztebaidatan.
- IV Sinismen eta Eliza'rekiko zintzotasun jabe
- V Ikas-mifaren jabe .
- VI Ikasle ta irakasleen eredu
- VII Biots-bera ta xalotasuna

I Idazle Españi'ar eta arrotzen aztertzele.

a) Españi'arren irakurle zalazkoa azal dezagun lenbizi, ontan ere jarraibide egoki ta bete-betea gertatu bai zan.

Aurrerakizun eta asmakari geienak atzerrian sortu oi izan diralako -edo nik ezin det zergatik ditekunik erabat konpreni- gaztel-idazle geientzuenak atzerrira dute beren joera. Alemani, Praintzi, Inghlaterra len eta orain Laterri El -kartu (EE.UU.) izan dira Españi'ko ikaslerik azkarrenak nolabaiteko sorginkeri ta lilluraz berenganatu dituzten errialdeak. Gar dezagun joera au bidezko ditekela, etxezkoz ondo baliaturik eta etxezko jakin-iturria agortu ondoren ba'lijoz. Ontan, orde, akatsa geientzat, noski. Bi-joa, adibidez, euskaldunen jokabidea ta beronen kaltea.

Garai batean Sorbona, Boloni, Tolosa, Alcalá, Salamanca ziran euskaldunen ikastetxe. Gaur ere Madril'en euskaldun asko, Salamanca eta Valladolid'en ere bai. Berdiñean inondik baño geiago zijoazen Ikastetxe-nagusi oietara 1951'garren urtearte, agor-urriko "Arbor" en ageri danes. Emen bertan dio gañera, Euskal-Erria ditekela Españi'tik berrogeita amar urte oietan ikastera atzerrira semerik geiena bidali ditun errialdea. Len da orain ta beti, zer gerta da? Bai, zorioneko ikas-miña eragifnik joan ziran. Txalogarri ditugu, beraz, Baña tamala! erderaz erantzuten jakintz-iturritik eta gero etxeratzean euskarari muzif, erderazko arrilluz eraikitzen asitako jakin-jauregia bai'zeukaten beren buruetan eta euskerazkorik -etxekorik- etzetorkien neurri aietara.

Adibide au euskerari buruz izan dan arren, Españi'arekin onelakoxe zerbait gertatu izan da jakintza-gaieran: Españi'arrek etxezko irakaskintza

ta irakasle argieri muzifi egifik, atarira jo oi dute. Zer gertatuko? Etxetik al dueneraño osatu gabe dijoana beti bearrean gertatzen eta lenen datorkionari el du bear. Gertatu bide zitzaien au Españi'ar askori ta betor M.M. Pelayo'ren aitorra. "Zifausleen Kondaira"ren VII'garren aleko 370'tik 374"garren orrialdetan dokarkigu Julian Sanz del Rio'ren jokabidea. Nore ustez ari geranaren abe'ausgarri onena. Alemani'ra ikastera bidali zuten Gobernukoak; bai, Alemani'ko eleder eta pilosopia ikastera ta txantxetan ere "krausismu"-eraketa txepelaz maitemindu. Zergatik? Berez ezer antolatzeko gai ez izaki, osaturiko eraketa toki-aldatu zun Españi'ra zatirik-zati bere artan.

D. Fernando de Castro'ri buruz ere antzeko zerbait dio liburu ta ale bereko 402-4 orrialdetan. Ikasketa buruzkorik egin gabe, zeero nastu Buda, Estoiku, Pulutarko, Kikero, Erasmo, Terento'ko Elizbatzar, Cano, Fenelon, Pascal, Montesquieu, Vico, Renan, Macaulay, Lecky, Hegel, Lessing, Tiberghien, Humbolt, Sanz del Rio irakurri omen zitun Castro onek ber-beraren aitorrez. Aitor' au, dio M.M. Pelayo'k, gizaldi artakoen irudi egokia, noski, ezereen begirapenik gabe eta itxu-itxuan zetorkiena irakurtzen zutela adierazteko. Begira ta geienak arrotzak dira aipaturiko idazleeetan.

Liburu bereko VI'garren alearen 266'garren orrialdetik aurrera Azkoiti'af Konde de Peñaflorida's mintzo dala ere, auxe bera erakusten digu: irakurri egin bear eta irakurtzen zutela beste oifarririk gabe. Pozikago, noski, atariko idazleak ba'lira. Ala izan geienik-bat aipaturiko iru oiek erabilliak.

Zer jokabide artu zun M.M.P.'k? Aren gaztealdiko lanak aipa ditzagun, berrietan bai dager

egokien. Gañera, gaztaroko jokabidea izanen degu gerokoaren oiharri. "Ciencia Española" ideki besterik ez degu bear Españi'af jakitun ororen barri izateko. Ez, orde, beste gabe, ba'zirala adierazteko; geientsunen aurrerapen eta erakusketa nagusiak berri ta aztertuz, baizik. Lena-go ere esan degunez, pilosopiari jaramon eta garrantzi aundiena emanez, iru-pilosopi-eraketa nagusi azaltzen dizkigu: Vives'ena, zenbait eta zenbait gauzetan Kant'en aurretiko adierazteñ digularik. Lull'ena, asmorik onenez, bafia, 16-rokoan arrazoikeri galgarri gerta bear zutenen aintzindari. Suarez'ena, berriz, Españi'z landa garrantzirik aundiena eman dioten irakaskintza.

Etxealdeko jakintzaz -beti ere nor beragandik gertuagoko ta nor beraren antzekoago izaki, askoz eraskorrago ta onuragarriago- etxealdeko jakintzaz, diot, oinbesteraño jabeturik ageri zaigun gazte azka' ua atzerritarren irakaskizunak aztertzeke, nai ta nai-ez, gaiago zan iñortxo baño Ingura dezaizkiogun naiz berazko gai izatez, ta naiz aberriko jakintzaz, -sakonki aztertu, ikasi, ta bereturik bai zeukan, gerokoaren oiharri- Fernando de Castro, Sanz del Rio ta Peñaflorida jakitun-ustekoak. Tarte ondorea gerta bear nai ta nai-ez arengandik oiengana.

"Ziñausleen Kondaira" begiztatu beste gabe ageri zaigu aren jokabidea. Ziñausleak aztertze-koan bakoitzari berea ematen dio -gero "guzirako irizpide" atalean areago dakusgunez- gezur, utsegite, oker, eta gaiztakeriaz gañera, egokitasun, irabazi ta agno onak ere erakutsiz. Areago ere bai. Ziñausle-irakaskintza bakoitzaren ondoren, beraien akatsen aurka mintza diran jakitunak azaltzen dizkigu, utsune ta egokitasun. Bijoaz adibidez: "Cortes de Cádiz" deritzaienen ziñauslekeria aztertu bezain aguro, Frai Alvarado edo "Filósofo Rancio" erakusten digu. Torres Amat,

ajo Solorzano, Vélez, Hermosilla, ta Vidal, ber-
 rriz, Fernando VII'garrenaren aldiko ziñausleen
 aurka. Balmes ta Donoso Cortés, Kraustafen aitzit-
 tik.

Berebat "Ensayos de Critica filosófica/ko bi
 itzaldi goraipetuetan ere naiz Kant'en aintzinla-
 riak aztertzean, naiz Palaton'en usteak Españi'
 an zear aztertzean ditunean.

Zer diokegu, beraz? Etzuela Españi'af idazle
 ta jakitunik bazterrera utzi Españi'af izate u-
 tsagatik, oitura izan danez. Erri-esaera zarraren
 muiña zurgurki bete zula, baizik, mioke. Ama ez
 dala maite oi ederra dalako, ama dalako, baizik.
 Aberria, bigarren ama izaki, orixe bera egin zun
 M.M.P.'k:Aberria sutsu maite ta aberritarrak ere
 bai, aberri ta aberritaf ziralako lenago, eder
 eta goresgarri ziralako baiño. Maitasunaren joe-
 ra zuzen onek bultza zion ain benaz maite zuena-
 ren eder, apaiñ, eta aberastasunak azaltzera. Jo-
 kabide zugarra egiz, seme ama-maitalearenaren
 antzera. Gaurko eta betiko Españi'af orok jarrai
 bear lioteke Gongotzaian esanera ta jokabide egi-
 egiz burutsu dalako. Ark, beste ainbat gaietan e-
 zetik, ontan ere ideki zun bidea.

b) Jakitun arrotzen aztertzealle

Ba'ote zun atzerritarren ikuskizunik biziro a-
 bertzale azaldu degun M.M. Pelayo'k? Bai ta ez
 gutxi, gero. Ala diote Gongotzañak. Azal dezagun
 leburtxo bederen.

Etzan aldiz egokitu oi diran, aberzale itsueta-
 koa. Inola ere ezin Marzelino'ren argi ta azkar-
 tasunik ortaraino alderditu ta okertu. Erakutsi
 degunez etxekoz ondo jantzirik zegon eta, beraz,
 jakin zezaken atarikoetaz zer aukeratu ta gai
 zan azterketa ori egiteko. Edozein jakin-lanetan
 jalkitzen dizkigu zenbat eta zenbat jakitun eta

idazle arrotzen izenak, naiz iritziak. Nik irakurri dizkiodanetan Parmenides eta Heraklito etzaizkit egokitu ezagunenetatik. Oiek ezik, aipatzen ez duenik bai ote diteke, gero, pilosopuetan? Amaikatxo ez-ezagunen berri ikasi arazi dit. Au Españi'koetas mintzo dalarik eta soilik Españi'arekin antz dutenak aipatuz. Zer dioket "Ederrizki-kondaira"ri buruz, emen gaie-rik bat arrotzak aztertzen bai ditu lanegogandik bere egunekoenganaño? Sokarte, Palaton, Aristoteles, Polotino, Longinos Grezi'arretan Ederriztiari buruz ustekabeen bezela bederen mintzo ziran Kikero, Kintiliano, Ovidio, Virgilio ta Horazio Erroma'n. Oindadatxo bat katoliku-zinismenaren goresle Tazianu, Arnobio, Tertulianu, Origenes'en esku dagoke. Agustian sun-
diak, berriz, betiko Ederraren argi berriaz argitu zizkigun oparo Grezi'arren eder-iritziak.

XVII'garren gizaldiak -Estetika aro edo Ederriztiaren gizaldi- Descartes, Bataaux, Locke, Hutcheson, Wolf, Baumgarten (ederriztiaren eragille nagusi), Winckelmann, Lessing opa izan zizkion M.M. Pelayo'ren eder-goseari. Aipa ditzagun Kant, Schiller, Goethe, Herder, Hamann, Jacobi, Richter, Humbolt anaiak, Schlegel anaiak, Bürger, Novalis, Fichte, Schelling, Hegel, Rosenkraz, Weisse, Feuerbach, Vischer, Carrier, Krausse, Jungman, Herbart, Zeising, Waitz, Lotze, Max Schesler, Fehener, Wundt, Witmer, Hanalick, Schopenhauer, Franenstöttdt, Hartmann doirtafetik. Inglaterrako Cowper, Wordsworth, Thomas Moore, Walter Scott, Lord Byron, Percy B. Schellleg, John Keats, Hamilton, Macaulay, Carlyle, Ruskin, Spencer, Grant Allen. Franzatik Coussin, Jouffroy, Lamennais, Rictet, Carlos Leveque, Voituren, Chariguet, Tonnellé, Laprade, Ravinson, Gyau, Proudhon, Hipoloto Taine, Stendhal. Zertan jarraitu? Ez al degu naiko ezaugarri? Aztertu zitun jakitunen berri omatea naikoa degu aren

jokabide zuzenaz jabetzeko, aberzale izan zala ta ez aberzalekeriaren mendeko, adierazteko. Ala ere ba'nioke beste zerbait. Egizko Españi-maitale izaki, XIX'garren gizaldiko pilosopa ta jakitunik ezak zeero naigabeturik ageri da, "Zifiausleen Kondaira"ren VII'garren ale osoan barna, Españi-maitale egizko izaki, ta biziro pozturik txalotzen ditu Donoso Cortés eta Balmaes, gañera katoliku zintzo bai, ziran. Pi y Margal etzan oso katoliku, baiña ala ere buru argizko zala-ta ba' ditu arentzat zenbait txalo.

Beraz, au diagoket bi itzetan eateko: aberzaletasunak Españi'afen maitale egin zula, aberzalekeriitsuak atzerritakoengandik urrutiratu barik ta jakin-miak etzula, berri-zale uts, Españi'z atarikoengana eraman lenik bertakoen jakintziak ziranez-ziran xurgatu arte.

Bijoa beste ezaugarri bat atal beraren argi bide: Idazle ta jakitun arrotzekin izan zun ar- emana, liburuz ezetzik, eskutitzez ere. Adibidez izendatu genitzake Raymond Marcus'ek aipatzen ditunak. Lenen, Españi-zale Ernest Merimée, Fouché-Delbosc, Martinenche; baita ere urren, S. Meriadec, Abbé V. Verliague, Professeur Colignon, diplomate Paul Cambon. Arrotzekiko ar- emana oiek zenbaterafiki ziran adierazteko Marcus beraren itzak toki-aldatuko ditut, an bai dio Praintzi' arretiko utsa lareun eskutitzetaraño iritxi zala ta ortik kontu egifi guzira zenbat. Eskutitz oiek zettareko diran ere garbi erakusten digu, garrantzi sundi dutela esanaz, "biografi" osorako egoki zetozen arren, guziak ezin bildu tamalez Marzolino'k egindakorik ez du ifior gorde Pierre-Henry Cazac'ek ezik, naiz-ta berak arturiko guzik gorde. Argi bide ontaz gelo gabe, urrengo atalera.

II Guzirako irizpide

Nundik nora jo nezake etengabeko gai berekin dun atal oni axalekoz zirriborrolotu bat gutxi-enaz ere damaiodan? Bere ta beratzazko zombait orrialde uxatu ondoren, bete-beteko "humanista/" zala adieraztea dirudit bidezkoen lenengo, iza-kera orri baidarraikio M.M.P.'ren irizpide gu-zirakoak. Aitor dezagun, lenen, Greci ta Lazio' ko izkuntzak bere garaiko iñortxok ez bezela ze-kizkiala. Garbi adierazten digu au "Bibliogra-fia hispano-latina" k batetik eta -naiz berak ez argitaratu ta ez idatzi ere- "Bibliografia gre-co-hispana" egiteko ainbat gai pillaturik zeukan. Zalantzi gabe esan dezaket bere erakusle Bergues de las Casas, Bordón eta Milá y Fontanals askoz ausi ta garaitu zitula naiz izkuntza-jakitez -ez, noski, izkuntz-jakitun edo filologen arauara-ta naiz eleder oiek beretutzez. Ontan bai atze-ra utzi zitula! Jakite utsari etzion eskerrik ematen, klasikuen kutsua sumatzeari, baizik. E-zagutu bakarrik ez, beraz, Aien antzekotu, aieta-kotu nai izan zuan. Zertarako? Bere irakasle Milá y Fontanals'i buruz zionez, Grezi ta Erro-ma'ko eledergilleak kutsutu zioten bare ta otzan-tasun, batetik, eta guzirako izatea, alderdikor ez izatea, bestetik. Bare ta guzirakotasun au i-ñola ere ezin oraiñaldiko elederretan arkitu. Begira ontaz gañera nola aipatzen dun "Estudios y discursos de crítica histórica" liburuan ira-kaslea, aren omen-aldi zala-ta.

Guk gaur diokegunez, maixuagan txalotzen zun klasikuen kutsuzko "humanismu" ta guzirakotasunak M.M.P. beragan ere kokatu ziran sekonki. Berea-laxe dijoazke ezaugarri batzuk, gaiñontzekoak urrengo atalerako gordeaz; au da, eztabaidatko jokabideaz mintzatzekoan azaltzeko, alegia.

Grezi ta Erroma'z maitemindurik ala dio, naiz-ta aiek siñisgabe izan, aien azkartasunak aintza-

tuz: "Nork ukatu, jakitez ta zintzotazunez aundi zirala? Adimen-naimenek berenez iritxi dezakete-na, zalantzik gabe, lortu zuten aiek, "Ignacio Montes de Oca"ren "Poetas bucólicos griegos" i ipiñiriko itzaurrean dio. Dakusgunez, arrigarri zaio Grezi ta Erroma'ren azkartasuna, gizagaindiko sinismenik gabe lortu al guzia berekin zutela aitortzeko. Une ontan bertan, 1880 zan, Greziaz aurreko jakintza ta kondairari ez die ajo-larik ematen. Ala ere gerora aldatu zun iritzi zu, Lain Entralgo'ren aitorrari elduz.

Noizpait esan det eta aipa dezagun areago. M.M.P.'k etzun filosofi-eraketa berririk sortu, etzun bere-bererik eta are gutxiago zegon, befiz, beste batenera zearo ta its-itsuan loturik. Azkenengo au bai egi dala! Lain Entralgo argiak erakusten digunez, Menendez Pelayo bere garai nastuak gogaiturik, XVI'garren gizaldi igesi ibilli zan bere gazte-aldian, jokabidez ta joeraz ordungoxeen antzekotu nairik, Berbizkunde-garaikoen kideko izan gose zan. Zer zan aien ikurritz, esate baterako? Siniskaiari lotu adimen, gañontzean zearo aske! Joera beraren indarrez mugitzen zan Marzelino bera ere. Egundo etzun jakintz-bidea aurrez aukeratuko, gero naita -ez, burni-bide antzo, bertatik ibiltzeko. Ez du pilosofi-eraketa bereizirik eta beti bat aurrez autatuko. "Zalantzazkoetan, aukera!" zioken Agustin donea jarraituz ta biziro atsegin zitzation jakintza-eraketarik-eraketa ibiltzea, bate-tik au eta bestetik ua aukeratuz jardutea. Egi-zale bezain askatasun-zale genuen. Lenengo zatian esanera bilduz, jakintza-elkafderrian bizi nai zula, uririk gabeko izanez, ordea.

Ona beste ezaugarria: Enda-zale ageri zaigu gaztaroan. Ikus dezagun zenbateraino. Au, orde, nolaz dagokioke M.M.P.'ren guzirako irizpideari? Lenik eta gaztaroan ez dagokio atal oni, moko-z-moko-z datorkio, baizik. Alabaña, berealaxe zuzen-

du zun iritzi au. Irrialde bakoitzak, enderri ba-
koitzak ba' du bere zer berezia ta zer ori izkun-
tzatik baño ereago datorkio endatik. (Oar deza-
gun euskeraz dabizkidan bi itzez errexegi elkar-
tzen dirala "enda" ta "enda-erri", elkarrengan-
dik sortuak bailira, itzez bai, baña mamiz ez
da orrela. Ez da bata bestearen iturri ta are
gutxigo iturri bakar. Beraz, garbigo legoke "a-
rraza" ta "nazio" erabiltzea). Gure jakitunak
izkuntzaren indarrrik ez du ukatzen, baña gaiti-
kako jazkin eta nortasunaren ezaugarri besterik
ez dala, dio Irakaskintzarako erasoan 1878' ga-
rrenean. Arrazari begiratu azaltzen digu Lute-
re'ren berrikuntza: Batetik doixtar ta bestetik
arrotz, barbaru, klasikuen aurkako. "Zifausleen
Kondaira"n IV garren aleko 163' garren orrialde-
an dionez, doixtarrek berenezko duten Italia'
fen aurka joan bearrez zabaldu zan ain aguro. A-
rraza-arteko gorrotoa zuten zirikalari. Doixtaf-
enda beti burrukari, jo ta ausi, beti zatitzen.

Españi'ko sinismen'zaletasuna ta zintzotasu-
naren jatorria, nun jarriko ta, enda beraren zer
bereizian kokarazten du. Zifausle guziak edo ge-
ienak Españi'arrengandik sortu ziran arren, etzi-
ran Españi'arrenak. Seneca, Maimonides, Averroes,
Servet... zifausle ziran, baña ala ere etzuten
sinismenarekiko zintzotasunik zeoro eten, berak
bide ontatik baztertu ba ziran ere. Berealaxe
itzali ziran, ustekabean bezela sortuak izaki.

Endazalakeria dirudin arren, etzan Hitler' de-
rren antzekoa ta kideko. Ezta gutxigorik ere!
Begira. Jainkoak, kondaira eratu ta euntzean de-
rabillan tresna lenen eta nagusia omen arraza,
Marzelino'ren ustez, Lain Entralgo'k 93 orrial-
dean dionez. Ala ta guttiz ere, onerarikotan iriz-
pide zabal eta guzirako ez baña, estu ta bere-
koa dabilkila diokegu. Alabaña, berealaxe jo zun
suzenera, zabalare, dakuskegunez. Endak berekin

dakarren zer bereziaren alde sutsu mintza-ta laister, izaturik-edo, atzera jo zun. Bidezko zan azken-jokabide au, endazalekerian murgildu-ez-murgildu bai zebillen eta zalekeri orrek bi ondorio kaltegarri ematen bai die bizia. Begira, guzijainkokeri makurraren eragifnezko enderrizalekeriari, naziozalekeriari, ta norberaren aukaramenaren kalteari, ondamendiari, bestetik. Igesteko, begira zer dion "Ciencia Española"n (II,73) "Enderriçjakintzak, España'arrak besterik ez bezela egifik eta jakintzarako eraturik dauden uste parregarririk ez daramaki berekin, eta bakarra bai du giza-adimenak pilosopi-korapilloak inortxok askatu ta azaldu ez ditun eran guk azaldu ta askatu al izateko". Zertarako zekarren, ba, enderri-nortasuna, enderri-izakera? Jakintza-korapilloak ez dira or-emengoak, nunai-koak, baizik, eta beti berak(maiz aipaturiko ustea du au M.M.P.'k). Gañera gizadia ere bakarra da. Eta, beraz, enderri-izakerak betiko korapilloetatik batzuk eta bere erara xetzen ditu ta iragazkitzen. Ontan ere naiz endazalekeri kutsutua dirudin lenbizitik, gerora zabalera irten.

Beste ezaugarri bat Pi y Margall'i buruz "Ziñausleen Kondaira"n dionetik dakart. Ziñauslerik gogorrenetakoa omen degu. Ziñausle izatez gañera, ez ao-gozo, ez ederzaletasun eta ez gogamentajuz ez da mintzatzen jaun au. Origenes'engandik Hegel'enganafio ez omen da gairik nagusi entan onenak ainbestekox itxuragabekeririk esan. Parragarri diteke Aristoteles'i buruz "berak ez du errurik" esatea. Zer ote diteke zeru-lur-inpernuak belauna makurtzen dioten Kristo gure Jainkotchaz ori bera esatea? Onelatsu mintzo zan Pi y Margall zeero nardatzen du, ziñausle izaki, ez orde, buru argidun zanez. Onek diona ezetsiz ta nardatuz ere, idazle bera gorai patzen bai du, nastu ta jakintzaz antzu dirudion aldi ta garai-

ari errua emanik. Ikus berak diona(1). Era be-
rean goraiatzzen du zifauslearen adimena.(2).

Urrengo ezaugarria, Pérez Galdós bere adis-
kidearekiko jokabidea. Zuzen zirudiona onartu
ta txalotu odonorengan. Oker ba'zirudion, beriz,
gaitzetsi adiskideenarengan izan arren ere. A-
uxe benetan guzirako irizpide. Eleberrigille
danez biziro goraiatzzen digu aren "Episodios
nacionales" dirala-ta. Teologu balitz-edo min-
tza zaigun Galdós bera, berriz, arrigarriri, e-
gurtzen digu "Gloria" eleberria zula-ta. Pérez
Galdós berari Jakitun-batzerrerakoan egin zion
itzaldian goraiatzzen ditu geienik aren iraba-
ziak. Balzac 'en urren eledergille artean bai
gaiz ta bai idatziz ugarien dala esenaz ekiten
dio itzaldiari

Begira zer dion, lenen, gaiari lotu aurre-
tik. Eleberrien garai berekoeri, dirudienaren
berri ematea -ta au zif-zifnez- dagokiela. Bes-
terik ez. Geroak esanbear guk ikusi gabekoa ta
gure geiegikeriak neurriratu ere. Baita gafia-
ra iritzi oni zegokionez eta egi-egiz mintza-
tu ere Pérez Galdós'eneri buruz. Txalogarri di-
rudio eleberrigillea bere irakurleekiko arreman-
netan. Irakurle ta idazle, biok batera omen
dabiltz aleberri guziak barna. Zer eleberrigi-
llearen ezaugarri oberik? Txalogarri zaió bai-
ta Galdós'en etengabeko lanzaletasuna ere. As-
mamen ugari, trebetasun burutsu ta beste doai
asko jalkitzen ditu.

Oreifartekoak adiskideari esatea ez da a-
rrigarri. Ikus dezagun, orde, bestelakoak ere
esaten dizkiola ta zer-nolako garbi, gafiara.
Lenen, adimenzalekeria egosten dio, naiz-ta bu-
rrukari ta asarrea ez izan, bai orde, gutxienez,
ere bare ta ixilpekoa. "Onela asi zan -dio- oi
zun iritzi zuzen eta jatorretik baztarreratzen".
Au goian aipaturiko itzalditik: "Zifauslearen

Kondaira"tik ar dezagun aurrerakoa. Txalozale berekoi en esanera, noski, esate baterako Balzac eta Dickens maixu argiak ez baña, De Villarmínio jarraituz ta onen antzera idatzi zun "Gloria". Parregarri azaltzen du katolikuen jokabidea... "A diskide dut Galdóz jauna, atsegia eta zuzen dalakoan nago. Nolas komprenitu dezaket, beraz, onen itsumena?" Irakurri ber-beraren itzak(VII, 486-487).

Goien aipatu itzaldian, gaztaroan gogorki epaitu zuelazkoa dakar eta ua -liburuari zegokio- nez- sinismenaren aurkako usteerik buruzko iritzia zan. "Gloria"ren gaitzespen ez baña, egillearen joera okerrarena, baizik. Irakur ditza- gun M.H.P. beraren itzak eta garbi dakuskegu ga- iari dagokion iritzitari irno eusten diola: ele- berriari bat eta egillearen joerari beste neufia erantsis. Goxo-goxo ari ba zaio ere orain, ez du bere lengo iritzirik aldatzen. Ikusi itzaldi- aren azken-aurrako orrialdean(3). Eta azkenik, joera okerretik ostera zuzenerakoa aipatuz ta biziro opa diolarik, onela bukatu itzaldia:(4)

(1)"...Kementsu mintzatzen da ta esan nai duna garbi adierazi. Biziro baiotsua egi-zaletasun au, onela ez bai dio ifiori ziririk sartzen. Batez ere Kreuzarren azaluskerik nastu ta illun artan. Irakurritako liburuak ulertzea etzan gutxi adimen- gaia artan. Gaffera, beretu egin zitun ikaskizunak eta gutxienez ere, ulergarriro adierazi"(Ziñaus- lean Kondaira",VII,358.


(2)"...Ez da adimen gabea, ba du errextasun eta ugaritasunik itzegiteko..."(Ziñ.Kond.VII,361 of.)

(3) "...Neronek ere nere gazte-aldiko su-garretan gogor baño gogorrago egin nien (eleberriari). Labaña Galdos'ekiko nere adiskidetasuna etzan gutxienik ere zärtatu... Nere iritzi ua ez dago eder-liburu, estetika-lisurayen; erlija-kondaira-koak, baizik. Eta au beste gabe ba dut zuribide-rik aski."

(4) "Etika-mallari dagokionez ere nani sakonagoa ageri zaio. Gañera, aldi bateko bete estoiku-kutsua leuntzeko kristautasun jatorrarer izpial ere ixurtzen ditu. Jarrai beza ontan alde-kuntza onurakor onek, idazlearen gai onak itxo egin arazten digunez. Bekie lagun Jainkoa'ren grazia gizon argi onen ekin leialeri, gizakion gerokoaren morapilloa Gurutzea'ren babesean askatze lortu dezan".

Gaztañaga'f Jexux

Donosti'ko apaizgaia



EKONOMIAK ELKARTE- MOTA SALLE TAN DUAN ERAGIÑÄ

Arri batez bi txori bota omen ditezke. Bai ote? Nik beintzat bota ditut. Eta, filosofian esan oi danez "de facto ad posse valet ilatio". Ona nola: emen dijoakizun lantxo au, 30bat teoligilariren aurrean esateko eginarazi zidaten, itzaldia duzu, beste asmorik gabe. Baña nere entzuleek ari zitzaizkadan zizta ta zizta "YAKIN"-erako ere ona dala-ta bidali egin bear nukela-ta... Aizkenean berotu egin naute ta or dijoakizu itzaldi berbera ikutu ere gabe. Ona bigarren txoria bota.

* * * *

Adiskideok;

Orain urrengo itzaldian garbi asko agertu zigun Auzmendi jaunak politika, guda ta matxinadaek erlijioari damaioten ikutua.

Egia esan, Auzmendi jauna ta ni atzekoz aurrera gabiltsala esango nuke. Izan ere ekonomia dugu gaurko guda ta matxinada gelinean soñarazle galen lenena. Egokiago zan, beraz, lenen ekonomia gai onetaz itz egitea ta gero, bere ondore diran, guda ta matxinadaz. Baña, diranak diral, gaur ekonomiaz itz egitea dagokigu ta beste itzaurrerik gabe gaiari natxikio al dudan tinkoen.

Irutan zatitu dut nere itzaldia:

- I.- Ekonomiaren atzpegia:
- II.- Ekonomiaren ondoreak:ekonomi onaren eta txarrarenak alegia.
- III.- Erabakiak:Soziografi-zaleek ikusi bear dutena alegia,ekonomi txarra dagon tokian obeagotu ta onela ondoreak ere aldatu ditezzen.

EKONOMIAREN AZPEGIAK

Bi azpegi ditu ekonomiak:

- a) Ekonomi-gaia.
- b) Ekonomi bizia.

Izenak berak dakerkigu ekonomi-gaiaren esan naia. Toki bakoitzak ze ekonomi edo bizibide mallatara iristeko aala duan adierazten digu: izadiaren emankortasuna alegia.

Ekonomi biziak,berriz,toki bakoitza gaur ze ekonomi mallatan dagon.

Ikusten duzutenez,ekonomi gai ona ba'di-teke ekonomi bizi eskaxa dagon tokian ta ez beste aldera.

Ekonomi bi alderdi auek era auetan arki ditezke errietan:

- 1.- Ekonomi-gai gutxi ta ekonomi bizi bizi gutxi.Ala gaur Grezi'n eta abar.
- 2.- Ekonomi-gai ona ta berdin ekonomi bizia ere.Ala Holanda'n,Suiza'n et.
- 3.- Ekonomi-gai oso ona ta ekonomi bizi oso txarra.Ala España'n et.a.
- 4.- Ekonomi-gai oso ona ta ekonomi bizia ere bai.Ala Eskandinabia'n et.a.

Ekonomi-gai edo Jainkoa lurralde bakoitzari eman dion emankortasun ori bitan zatitu genezake bereiziki:

1) Lurrak berez duan emankortasuna.Eta au txarra edo ona izango dugu,nekazaritzarako lurra, ura,giroa ta industrirako meategi ta oianak txarrak ala onak ba'ditugu.

2) Gizonen emankortasuna: Adimen eta beso-
etako indarrari dagokionez.

Manuela Galardo andreak dionez(1),eko-
nomi bizi ona dutela-ta len aitatu ditugun "Pai-
ses Bajos,Suiza t.abarrek baño,ekonomi-gai askoz
aberatsagoa du Españi k.Ta ez lurrari dagokionez
bakarrik,baita gizakiari dagokionean ere. Ala
dio berak,"aski duzute uda garaian Holanda ra
joatea izadiak eman dion beartsutasun izugarria
ikusi nai ba duzute. Itxasoari kendu bear izan
zioten nekazaritzarako bear zuten ondoa,ta gero
lurrez estali ta bear bezela landu".

Españi an ez omen dago orrenbeste lan
egin bearrik lurra antolatzeko.Gañera,giroa ere
oso txarra Holanda n.Españi an,berriz,aukerakoa.
Españi k,bere beartsutasuna ezereztako,gai ta
ekinbide utseziñak dauzka.

Españi an urik ez dala diote askok.Ona
zer dion "Consejo Superior de Hombres de A.C" k
atera duan "Así son los pueblos" izeneko liburu-
an(2): Gaztela iparralden eta Leon en aztertu
diran 83 erritatik 61 urez ase ditezke erregadio
bidez. Ba al dakizute zenbat dauden aseak? 5 bes-
terik ez.

Lebret ek ere ala dio,Paises Bajos ez
omen zan len aberats.Ez,ez.Mendez mende itxaso-
ari kendutako lurrez aberastu omen da (3).

Españi,meategiz ere oso ongi ornitua o-
men dago M.Gallardo k dionez (4).Munduko meategi
edotarikoena omen dago Españi an,eta langite on-
tarako gizonik egokienak gañera.Mea-mendi osoak
omen ditu Españi ak oraindak lantzen asi ere ga-
beak.

Holanda rrak omen dira euren meategiak
Europa guzian aizkena arkitu dituztenak. Ala ere
gaur danetan obetoena mekanizatutako meategiak
dituzte.

Lebret k dionez,Suezia k orain 50 urte
etzuan batere industririk eta nekazaritzak ematen
zion ekonomia oso kaxkarra. Gaur,berriz,bai neka-
zaritza ta bai industri arloan munduko aurreratu-
enetakoak ditugu (5).

España rrak Europako adimen argienetako-

ak omen dira gañera(6).

Auek ola, nolaz diteke España, gaiz orren aberats dalarik, orren beartsu?

Ona erantzuna: Ekonomia jakinduriak darrabil. Jainkoak adimena eman dio gizakiari Jainkoa ren eta bere buruarekiko dituan betebesarrak bete al izateko. Beraz, gizakiak adimen ori landu egin bear Jainkoa k izadiaren sabelean jarri dizkion aberaskiak ateratzen jakin eta dagokion bizibidea iritxi dezan. Jainkoa k lurralde guziri eman die bear ainbat ondasun. Batzuei beste ei baño geiago, baño guziei bear ainbat (7).

M. Galardo andreak dionez, (8) ekonomi ona dutela-ta aitatu ditugun laterri oietan aurren ezierari garrantzirik aundienetakoa ematen diote. Jakinduriak egin ditu erri oiek aberats. Laterri oietan ikastoleri ematen zaien ajola España an emango ba litzate, erri oiek baño askoz aberatsago izango omen litzake urte gutxi barru. Holanda n estaduak 5.316.859.418 laurleko ematen omen ditu ikastoletarako. España k malla au berdintzeko 16.000.000.000 eman bearko litzuke. Ba al dakizute zenbat ematen dituan? 1.308.040.490 besterik ez. Beste olako amabost eman bear litzuke Holanda ren mallara iristeko. Noruega k dituan biztanle bakoitzeko 700 laurleko ematen ditu ikastoletarako. España k 45 lo laurleko.

Ontatik eski dugu. Ikusi duzute arintxo ba da ere, ekonomiaren muña bi alderdiak aztertuz. Utzi dezagun orain alde bat ekonomi-gaia ta ikusi ditzagun ekonomi biziaren ondoreak; txer eta on. Auxe da izan ere nere itzaldiaren muña.

EKONOMI BIZIAREN ONDOREAK

1) Ekonomia dugu elkart-motaen sortarazle. Adan eta Eba narru berdinez jantzi zitur gure Jainko ak. Biek berdin lan, baita jan ere. Gaur, toki askotan, alde aundia dago batzuen-gandik besteengana. Bai, gure kaleetan sail ezberdiñak ageri dira jantziz; gure etxeetan mai ezberdiñak. Lan orduetan ez dira guziak langille. Ta langille ez diran auek maian langilleen. Dirudunak ondo datoz alkarrekin eta nekez egiten

diote diosal beartsuari. Beartsuek, berriz, au dala-ta, gorrotatzen dituzte aberatsak. Ona oinpear urkoarekiko dugun maite-bearra.

Toki batzuetan esan dugu gertatzen dala ori. Bai ta alaxe da. Ekonomi txarra dan tokian bakarrik gertatzen da. Izan ere ekonomi ona duten laterrietan bestelako bizibidea dakusgu.

Ekonomi txarra da, Hervas y Panduro jaunak dionez(9), bakarkabtzuek aberastu ta beste asko ta asko mixeri errukarrian pulunpatzen dituzana. Izan ere asko dan tokian guzientzat oi da zerbait. Baña gutxi dan tokian aundizkienak zuputzen dute dagon gutxia.

Aberaskiak jauntxo bakar batzuen esku egotea dugu mixeriaren onarrietako bat. Ikusi Andaluzi aldean gertatzen dana. Ala dio, berriz ere, Hervas y Panduro Jaunak: "Diruak egin du aberatse nagusi ta diru ezak beartsua aberatsaren moroi".

Beraz, ekonomi txarrak kendu dio beartsuari Jainkoak'k emandako askatasuna ta aberatsari aginte gelegia eman. Ontatik sortu da elkarte motaen elkarrenganako gorroto bizia. Ona lagun-urkuarekiko Jainkoa'k eman zigun maite-aginduari ekonomi txarrak ematen dion jipoi.

Bestelakorik dakusgu ekonomiz ondo dauden laterrietan.

Lebret jaun ospatsuak Suiza, Holanda, Noruega t.abarren bizibide bikaña agertzen digu bere "Cibilisation" liburuan(10) Berak dionez errioietan ez omen da elkarte motarik.

Auxe bera dio, ainbeste aldiz aitatu dugun, M.Galardo andreak ere(11).

2) Ekonomi txarra dugu guda ta matxinadaen sortarazleri gaitzuna. Ala dio Galardo andreak(12): Ekonomi txarra dan tokian ba omen da ixkanbilla ugari; matxinada ta abar. Bestalda, dio berak, bizibide aberatsak bakarrik ematen die komunismo ta beste ismo guzietan ezin irau-na.

Leandro R.Grazia'k Suezia, Holanda ta Suiza jotzen ditu gaurko munduaren jarraitbide. Baña berak dionez, auek ere garai batean beartsu ziran eta gudaldi bigurriak izan zituzten. Maite

omen dituzte orduko euren gizaundi edo heroeak.

Orain ordea, gizaunditza edo heroismorako biderik ez omen da. Gaur ez omen dute guda bildurrik(13)

Izan ere etxean naikoa daukana zeren billa dijoake gudara? Bizi-bide egokia duten erri oitan poliziak ere askoz gutxiago omen dituzte, ez geiago bear ere. Eta Galardo andreak dionez(14) dauzkaten gutxiak ez omen dira gaizkileak arrapatzeko bakarrik; beste egiteko jator bat ere ba'omen dute: urrutietako umeak euren beribiletan ikastoletara eramatea alegia. Poliziari, Noruega'n, 29 milloer ematen dizkio Estaduak. España'n 1.000.000.000 lauerleko.

3) Erriz-aldatze edo emigrazioaren sortarazle ere ekonomia dugu. Ekonimi txarra dagon tokietatik ona dagon tokietara dijoaz gendeak sailka. Ori emen bertan ikusten dugu garbi asko. Brugarola jaunak diola uste dut onako au:Ekonomiak darabilzki gizonak batetik bestera. Ekonomia da giza-aldaketaren igitzale edo motorra. Ezin biziak daramazki obeto bizi diranen artera. Omen agerbide Australi'n gertatua dagerkigu Rubio Garcia jaunak(15). Ona zer dion: Australi'n 1900'ren urtea ezkerro, industri ta nekazari arazoan aurrerapen izugarria egin dute. Gaur bizibiderik egokienetakoa dute Australiarrak. Bai bizibidea obegotu ala biztanleak ugaritu ere. 1850'rren urtean 400.000 biztanle besterik ez omen zeukan. Gaur berriz, 9.000.000. Entzun ongi adiskideok: orain eun urte baño 22 aldiz biztanle geiago ditu gaur Australia'k. Jakina dago guziak ez dirala an sortu. Eta Leandro Garcia berak ere ala dio: geienak erri beartsuetatik etorriak dirala bizibide egokiagoren billa.

Esan bearrik ere ez dago giza-aldaketa onek erlijioari buruz kalte izegarriak dakarzik. Barberentzat eta bai sartzen diran erriarentzat. Izan ere gaurko langile taldea erlijio jakintzan mota dago ta ala aldatzen diranak euren errietan oitura onak izan arren, lotsatu egiten dira sartzen diran errietan oitura on oiek agertzea. Bestalde ez dute euren errietan zituzten akats eta oitura txarrak agertzeko lotsarik. Sartzen diran tokikoek ere auxe bera egiten dute, oitura

onak barruan gorde ta datozeneri txarrak agertu. Ona alkarri neurri gabeko kaltea egin.

4) Ekonomi txarrak bizia motxagotzen du, gairxoak ugaritu. Eta zillegizti edo moralari buruzko kalteak ere amaikatxo ba' ditu. Ona zer dion Brugarola aitak(16). Gozeak eriotza dakar. Zenbat eta erri aberatsagoa ta gizakien bizia luzeago. Au erriak alderatuz garbi adierazten digu. Ala Ijito'n 25 urtekin iltzen omen dirala batatz beste. Estados Unidos'n, berriz, 64'kin. Gosearen beste adiskide miña etxerik eza dugu. Gañera mi-xeriak zillegiztiari buruzko kalte izugarriak ere ba' ditu: adibidez, lapurreta, mozkorkeri, ankerkeri, aur amak zapuztuak ta abar.

Brugarola'k diona "Paris" Chonbart de Lauvve' en liburuan argituko duzute garbi. Paris'en egin dako encuesta batean ateratako berriak damaizki-gu irudi bidez(17). Garbi ageri da naiz osasunari ta naiz erlijioari buruz ongi bizien eta be-artsuen artean dagon aldea.

Baña, ekonomi onak arrixku onak ere ez ote du erlijioarentzat? Bai, ba' du ta galanta gañera. Zera, Jainkoa'k izadiaren bidez eman dien aberastasan orrek, Jainkoa'rekin ikustkorik ezer ez ba' lu bezela jokutzen dira. Ta ala, gauza guz-ien emale dan Jainkoa alde bat utzirik mukuluki-ari degiote gur. Baña korapillo au ez da ain es-tua bestearekin alderatzen ba' dugu. Au askatu di-teke. Izan ere ondasunak ugari dituanari nundik datozkion adieraztea ez dugu ain zalla. Baña ezer ez daukanari, zer esan bear diogu? Jainkoa ona dala? Ez dizu bereala siñistuko! Nola sinistu o-lakorik Jainkoa'k bizia ematean ere kalte egin diola uste duanak? Ta au uste ditena ez dira gutxi.

Ontaz zerbait geiago ere esan nezake baña au luze dijoa ta jo dezagun erabakietara.

ERABAKIAK

Ekonomia gaizki dagola-ta ez dugu etsi bear, daukagunarekin aldugun eran bizi-az. Etsipen o-ker onek atserapena lekarguke, okerrago bizitzea, askatasun galtzea ta len aitatu ditugun ainbat e-ta ainbat ondore nergargarri.

Bai, negargarri da, baña negar egitea ez dugu aski. Ondore oien sortarazle dan ekonomi txarra geroz ta obeagotzen saiatu bear dugu, ondo-reak ere pozgarriagoak gerta ditezen. Izan ere au baita Jainkoa'k nai duana: Alegia, Berak emandako talantak landuz, gero ta gero urkoen bizibidea obeagotzen saiatzea, era ontan Jainko emalea guziok goretsi dezagun. Baña, ekonomi zuzentze lan ontan ere, beste edozer lanetan bezelaxe, lan-bideak aukeratu bear ditugu lenen; ta dagokien mallan jarri. Ala, irudigilea ez da lenen zintzelez asten eta gero pikatxoiz bukatu. Ez, pikatxoiz asten da edo malluz, gero, aizken ikutuak, zintzel zorrotzez emateko. Ona soziografi-zaleen bete bearra: lanbide egokienak aukeratu ta bakoitzari dagokion malla izendatu, zein bidetatik asi ta nuñ jarraitu bear dan adieraziz.

Lenen, ekonomi-gaia zenbat eta nola landua dagon ikusi bear du: Izadi adingabeari dagokionez eta, batez ere, giza adimenari dagokionez.

Eta len esan dugunez izadia bear bezela lantzeko, lenen gizaadimena landu bearra dagon ezkerro, ontarako biderik egokienak aukera bear ditu. Ona emen bereiziki ikusi bear dituanak:

a) Ekonomi ona duten errietako gizadiak, batz beste, duten jakinduri maillara iristen ez diranak zenbat diran. Ta onen zergatiak.

b) Bear ainbat irakasle ta irakasleme al dau den eta onak al diran. Dagokien lan-saria ematen al zaien.

c) Estaduak, beartsua izaki, erri aureratuetan ematen duten maillako dirutza ikastoletarako ezin eman ba'du, dirutza ori nola osatu diteken.

Aberatsak zenbat eman dezaketen. Ta auetako zenbategi batek emango luteken.

d) Irakasleak bear ainbat ez ba'ditugu, utsu-ne ori bete dezaketen gizon eta emakumeak zenbat dirugun, apaiz eta abar.

e) Buruz azkarrak izaki, karrera bikañak ikasi lezaketen neska-mutil zenbat gelditzen diran lenengo edo bigarren ikasmalan eta abar.

Lurrari buruz beste orrenbeste egin bear dute. Ta azkenik daukagun ekonomi gutxia nola erabiltzen

dugun ikusi: griña txarretan edo utzikeriz zenbat alperrik galtzen dugun eta abar.

Galardo'ren liburu "Por qué somos pobres" ontatik orrialde asko aitatu dizkitzutet. Egia esan, ez oiek bakarrik, orrialde guziak irakurri bear zenituskete. Liburu bikaña auxe. Jainko ta urko maitasun goriak eragin-da idatzia.

Nere lantxo onek zuetakoen bati mesede ba'legio, gora Jainkoa! Ezertarako gauza izan ez ba'litz, berriz, barkatu eman dizuedan asperaldia. Adiskideok, bukatu dut.

Doñonoro'tar Lukax
Donosti'ko Apaizgaiak

- (1) "Por qué somos pobres" Editorial Gomez Pamplona, 1954, 30, 34, 51, 54, or.
- (2) "Así son los pueblos" 27 or.
- (3) "Cibilissation" 132 or.
- (4) aitatu liburuan 36, 59 or.
- (5) " " " 130 or.
- (6) M. Gallardo, ait. lib. 133 or.
- (7) " " " " 121, 137 or.
- (8) " " " " 43, 48 or.
- (9) Revis. Int. de Sociol. n. 49-50, 127 or. eta n. 48, 771 or.
- (10) Ait. lib. 130 or.
- (11) " " 137, 79, or.
- (12) " " 13, 22, or.
- (13) Revis. Int. de Sociol. n. 48, 763 or.
- (14) Ait. lib. 45, 132 or.
- (15) " " n. 51 - 351 or.
- (16) Fomento Social, n. 44 - 412 or.
- (17) "Paris" erdialdean

MORAL

BERRIA

Berririk asko ikusten dugu gizaldi ontan. Eunkiek beren errailetan, naiz-ta zaararak izan adiñez, "berririk asko"ren kutsa dute, aro bakoitzak sortu bai ditu asmakari berri ugari: aldi guzietan darie berri-kutsu au, mundua munda danetik.

XX'gn gizaldia etzaigu iñola ere antzu gelditu arlo ontan. Aurrera baño len oar bat itsas dezaiogun gure adimenari, alegia, gauzen joan-etorrian ez dala deus sortzen bere aurreko zerbaitekin zer-ikusirik izan gabe, au da, gertakariak oro arazle bat dute eta gertakari au arazle orren ondorio besterik ez da. "Non est effectus sine causa" ez da "arazirik arazlerik gabe". Naiz-ta sarritan sor ta lor gelditu zenbait ia-zoeren bat-bateko azaltzeaz, azter ditzagun zezkiro gertakari orren aurretikoak, eta, ziurki, ondore onen iturria arazle batengan arkituko dugu: arazle onek gertakari ura du sortu, ekarri, "arazi".

Oar au oñarritzat aurturik, "Moral Berria" idazburuaren zertarakoa edo zergatia mugatu dezagun. Moral Berria ezarritut gaitzat: "berria" danez, berritasun orrek sortu-joera aztertu bear da, berri-keri gerta ez dedin, eta joera onen jarraitzalleak, on itxuran, eder itxuran lilluratu ta, oker bidean jausi ez ditezen.

Beraz joera edo jokabide berri onen nundikoa edo iturriak miatzea bidezko deritzat.

Ba'dirudi, eta jakintsuak lekuko, praktika bizitzan ikusi oi diran bizi-joerak, bizitz-kerak

beti filosofiko-lurretan errotuta daudela; au da, filosofiko-joera berriak beri dakarzkite bizitzarako kera berriak: oro begi berriaz ikusten dugu, filosofi-bultzadak eraginda, noski.

Moral Berria ere auxe dugu: filodofi-pentsa kera berri bateri dagokion ondorio zintzo bat: ondorio zintzo diagot, existenzialismo filosofi-pentsakera orrek ezin bait-zuan, Moral edo zillegi saillean, ondore "egokiagorik" eman.

"Erroa nundik,
ondorioa andik".

* * *

Existenzialismoa aipatu dugu. Gizaldi onen lenen-erdi aldeko filosofi-pentsakera berri au aztertu ba'geneza, azaletik bederen, bapatean o-artuko gera Moral Berri onen jokabidea zein adarretatik zintzilikatu ditekén

Aita Santuak bere itzaldi batean, onela dio filosofiko pentsakera onen eragipenari buruz: "Izan ere, Moral Berria, existenzialismoagan tinkotuta ta sustraituta dago. (Moral Berria, iturriari darion ur loitua dugu edo, obe esan, aitatu-joera oker ark kutsatutako jokabide bat). Dakigunez, existenzialismoak Jainkoa ' ukatu edo gure gogotik lekutu egiten du, edo-ta gizona ' norbere esku erizten". (AAS, 416, or.)

Onezas gain Aita Santuak beste zerbait ere geitzen du, joera berri onezaz: "Baña jokabide au, egun, katoliko-soroetara aldatu zaigu, katolikoan egin-bear nekegarriak arindu, edo katolikoan aginduei darien zailtasuna erreztako asmo --tan..."

Filosofilari auen idazki muiñari, "norbertasun" edo sujetibo-tasun kutsua dario, ta onezaz gain, norbere buruaren ezikeran "askatasun muga-gabea edo gelegizkoa" damaiote bakoitzari: Auek baitira, izan ere, ezaugarri argienak.

Pentsalari auek aldi-oro egiaren inguruan darabiltzkite beren filosofi-saioak eta iardunak. Ba'dirudi "egiak" azpiko gora dabiltzkila guziok: nork "egia" objetoagan ipiñi nai du, Hegel'k

adibidez, nork sujetoagan, norbere bakoitzaren-
gan, esatebaterako Kierkegaard eta existenzialis-
mo-lari geintsuenak.

Moral Berri-zaleak, azken auen aizun argi
izpiak itsututa nunbait, beroiek aldeztu-subje-
tivo-tasun orri uztartu dira.... eta "erroak
nundik, ondorea andik".

Onelatxu dio, adibidez, Kierkegaard'ek: "E-
gia subjetoagan, norberegana datza, egokiago esan,
egia norberegana soilik datza; egia ' artu-eman
estuenean bai dago norbere bakoitzaren "zer" o-
rrekin. Emendik dario bere pentsakera-oiñarria:
-norbere-tasun edo subjeto-tasun ori da egia".
Beraz egia "gugan" datza. Ta onelatu dio beste
existenzialismo-lari batek, Sartre'k alegia:
"Bakoitzaren morala (moral subjeto) besterik
ez da; askatasunera gaitz-etsia, makurtua, nago;
lege-moral baten idea atxitzea, ene askatasuna
itotzea litzake".

Ona, ba, Moral Berriak bere kolkoan gor-
detzen dituan erruen itur-burua.

Konziientzi, ta konziientzi-ezitze.

Existenzialismo-gogapenetan arroturiko gi-
zonak ere, konziientziaren bearra ba'du; existen-
zialismo-lariok ez ditugu konziientzi gabeko gi-
zakiak; izan ' ba'dute konziientzia, oker ezitua
izan-arren.

Konziientzia, gizakiek barnean daramaten "zer"
ixil ta kutun bat da, giza-egiteaz epaia eman
al izateko eskubidez ornitua. Azken puntutxo on-
tan esanak, katolikoak esan ditzazkenez kide-
tutea. Baña... bide-kurtzea, epai-eskubide o-
rren edukitzea nundik edo norengandik datorren
erabakitzeaz sortzen da.

Katoliko zintzoeri dagokien konziientzia o-
nela zertu genezake: "Gure barrunbeto bakar-ixil
ortan Jainkoa'k eta gerok soillik dugu toki. Ja-
inkoa'ren edotariko itzak betetzen du ixil-gorde
ori: Jainko-itx ori oiartzen biurtzen da gugan-
dik kanpo-aderuntz, gu ta gure giza-egiteak oro
itz-arau orri lotu gakiak. Konziientzia lagun
dukegu bizi-araon, naiz zuzen naiz oker ebaki:

lagun eta epaille, bizi-aroan eta azken auzi egunez".

Baña konzientzi zuzena, tolesgabea, izateko, ezitze-lanak edo saiokak alde bat uztea eziñezko dugu.

Jainkoak Egia eta Grazia ekar zizkigun: Egia bide-erakusle bezela; Goi-eskerra edo Grazia, bide orrek darakuskigun muga edo amaia iritxi aal izateko tartea. Bide au ibiltzea, Jainkoaren naiak eta aginduak jakin eta beroriei gure bizitza egokitzea da; jakiña, naimenak iñolako oztoporik gabe aukeratu ta erabaki barneko edo kanpotiko egiteen bidez. Aukeratzeko eta epaitzeko eskubidea, konzientziak ezik, zerk edo nork damaioke naimenari?.

Baña epai zuzena, Jainko-ats egizkoaz kutsuriko konzientziak, naimena eragiñaz, eman dezake soilki. Giza-izate osoa' Jainko-arnasak kutsu beza, giza-izateari darioten egiteak oro kutsu orrezaz orniturik.

Baña batez ere, Konzientzi-ezitze lan ontan iru iturri ditugu: bata, lege naturala edo geron giza-izateari dariona, ots, Paulo doneak bere eskutitzean diona, alegia: "Lege gabeko jentillak, beren giza-izatea dutelarik zuzendari, onen aginduak betetzen dituztenan, agindu auek "lege" biur-tzen zaizkie", ta Revelazioa edo Goi-agerpena ta Tradizioa edo Antsiñatea besteak. Paulo donearen aipamen onezaz, azalpen bat egoki litzake: "...berentzat lege dira": Paulo'k lenago, Moises'en lege positiboa irutan aipatu zuenez, azken itz oiekin lege naturalaren "ba-dalazkoa" epaitu nai du: barne-legea, berezkoa, gizakiaren izate adimenkorraz kidetua edo aibatekoa da; Jainkoak emana, ez gizonak. Gizona lege onen otsein edo mendeko dugularik

Ok begien aurrean ditugularik, onako au baietsi genezake, alegia, konzientziak, bere epai-emanjardunean, "aurrez ba-dan arau bat, betiraundikoa, igikaitza duala oñarri. Au da katoliko-konzientziaren muiña, ezaugarri eta iturburu. Onezaz landako konzientziak oro ezikera okerra, esku-motza, gerekoa, subjeliboa soilki, izanen da, urrengo letroran nabari danez.

Moral Berri-zaleak, Kierkegaard'en subjeliboa-

tasuna onartuz, beren lenengo erasoladia Morala edo Zilleiztia Elizaren zaintza ta aginpetik askatu nai-izatea duzu. Au lorturik, diote, Zilleiztia bere jatorrizko egoerara biurtuko litzake, "norbera bakoitzaren" konzientziaren agindura eta adierara soilki makurtzen dalarik. Era ontan, Etiko-erizpide edo kriterioa "nor-bakoitzaren" epaiari menderatzen diote, Kristo-Bidea gaitzetsiz.

"Bakoitzarena", au darabilkite gora-bera beren Etika Berria ezartzean. Ba-dirudi Moral Berri-zaleak Jainkogandik aldendu nai ez dutela; Jainkoa oso begi-ninitan daukate, ez arau-maille edo bide-erakusle, edo gure erabaki-eustarri bezela, Jainko Aita bezela baizik, baña beren arara.

Gizona, konzientziak epaia eman-garaian, Jainkoarekin alde-alde, aurrez-aurre arkitzen da, diote, eta Bere begitan erabakitzen du, edozein lege, edozein aginte, edozein bazkun edo elkargo, edozein erlijioaren eskuarterik gabe: "Jainko-nor-izanaren "Ni" ori, ta gizonaren beste "Ni" soilik; ez Jainko lege-mallearena, gizona ' semezko maitasunean elkartuko zaion Jainko Aitaren baizik. Onela ikusiki, konzientziaren epaia "bakoitzaren arrisku" bat litzake, nor beraren ezaugeraz eta neurritz, zintzotasun osoz Jainko-aurrean erabakia. Bi ok dira Jainkoak nai ditunak -diote-, alegia, "egin-nai zuzena eta erantzun tolesgabea; egintzak ez dio ajolarik, jararik". Era ontan, konzientziaren erantzun ori, kristau fedearen zenbait egi edo erro aldatzeraño ditekete, esate baterako "lapurreta, ezkontz-euste edo naaste, izorraldi-ebakitzea, ... bidezkotzat" artzeraño, edo onelatxu.

Eta ausardiaren ausardiz onela diote berri-zale auek: "Mota ontako jokabidean, gizonaren Jainko-ganako semetza egokiago dager; ta "Aita Gurea" zintzokiago, biotz-zabalez, Jainkoakiko artu-emanik estuenean esatera garamaski." Moral onek zenbait gezurbidetatik alienatzen gaitu -diote-, batez ere aldi bakoitzeko gure jokaera, lege ta agindu oien mugatik landa dabillenenetz neurtu bearretik; itxurati ta azal-uts izatetik gordetzen gaitu, azaletik lege-zale ta kolkotik

gorrotoa baiño kabitzen ez duten fariseuen antzo".
"Ez, guk Jainko-begitan erabakitzen dugu, aldi-
an-aldiko epaia, gu lepalpen osoz Jainkoari aur-
kezten gatzazkiolari. Ezin genezake gure norta-
suna lege ta agindu orokor edo universalei men-
peratu".

Onelatxu mintzo dira. Baiña ezaldu dezagun
besterik ezean, joera guztiak oñarritzat artu
dezaketen ezaugarri agiriena: len aipatu katoli-
ko-moralaren eustarrria, agindu-ta lege orokorak
ditugu; berri-zale auek, aitzetik, ez dute onela
jokatzen=aldian aldiko egoerak, eta egoera onen
ingurukiak gogoan edukiz, epaitzen dute beren
jokabidea: ni, ta nere egoera bere ingurukiakin
dira nere konzientziaren arau, edo, obe esan,
epaille eta epai: ene erabakia, auetatik zin-
tzilikatzen da.

Beraz, bakoitzaren konzientzia ezin ezi di-
teke "bakoitz" orren giza- ta bizitz orren gora-
beraz baizik; orregatik, arau orokorrak, idea
orokorrak ez dute zer-ikusirik "bakoitzaren"
konzientzi-ezi-saioan, ez-eta bakoitzaren konzi-
entziaren erabakitan. Itz batean: "aldian-aldiko
bakoitzaren goraberak izango dira giza-konzi-
entziaren epai-iturri, eta subjektivo-jokabide au,
diote, ziurtzat daukate Jaungoiko aurrean".

Moral Berriaren soñean bi puntu nabari di-
tugu txit gogoangarriak: bata "konzientzia nor-
berak bakoitzaren aldetik ezitzea", bestea, "be-
ren konzientziaren erabakiak lege orokorretan
ez oiñarritzea".

Lenengoari atxikiz: Jainkoa'k Bere Legea
Goi-agerpenaren edo revelazioaren bitartez eman
du, ez "gizonari soilki", Elizari baizik, onen
elburua au baita, alegia, Goi-agerpenagan daukan
egi-tegia zaintzea. Beraz, Goi-laguntza Elizari
damaio Jainkoak, eta ez gizon nor-bakoitzari, be-
rak bere kaxa epaitzeko. Goi-agerpena ta, bertan,
Moral zatia, Elizaren ardurapean utzi du Jainko-
ak. Elizak moral-agindu oiezaz argi ematen digu,
baita sakondu ere, baiña aldioro, muiña ikutzeke,
"aldian-aldiko bear berriei agindu oiek egokituz"

Bigarren puntuari gagozkiolarik, aurkakizun
edo ojezio au dakarte: "orokorra den moral bat

aski, eta beartu al dezake "gauza bakar bat, gertaera berezi bat, egun eta bein bakarrik iazodan bat dala-ta?" Lege orokor batek erabaki al dezake bein gertatu gauza bakar baten on-tasuna edo txar-tasuna? Aita Santuak onela erantzuten die: "Ala bearrez, beartu dezake, bere "orokortasunak, bearrez eta ala naiez, besarka baiditzazke gertaera bakoitz oiek..." "Lege auek ez dute balio, gizona "ut sic" artuta, "ut hic" artuta baizik"...

* * *

Eta amaitzeko, orain arte esandakoen la burtzapen bat eman dut, Moral Berri onen ezaugarri-oiñarriak adieraziz:

- a) Norbere konzientzieri geiegizko aalmenak eta balioak damizkiote.
- b) Moral-bizitzan, berizaleak, egi orokorren igez dabiltz. (Moral katolikoa ordea, egi auetantxe oiñarritua dugu).
- c) Gertaera edo egite baten ingurukiak zerikusit garrantzitsua dute oso, konzientzi-epaia ematerakoan.

Onatx, labur, Moral Berri onen joera okeñak. Asieranesan dugunez, Moral Berri au, existenzialismoaren ondorio bat dugu, eta existenzialismoa XII'gn. Pio Aita Santuak "Humani Generis", Eliz-agirian gaitzetsi edo kondenatu zun. Beraz, "erroa nundik, ondorioa andik..."

Onezaz gain, ara Santo Oficio ' ren galezpena gaitz etsipen bat bailitz artu ditekena: "Moral Berria ezin diteke, ez irakatsi, ez-eta on-iritzi ere".

Bereziartua-tar Iñaki
(o.f.m.)

Idaz-lan ontan erabili-iturriak:
AAS.44(1952)270...,413 or.;45 (1953) 280-281 or.-"El Existencialismo y el pensamiento catól."
"Humani Generis", Sal Terrae, 1950. [Toisfontaines]
"Salmanticensis". Vol.3, 1956. Fasc.1. [51...or.]
"Historia de la Filosofía", F.Klinke, 553-54...or.

NEORREALISMOA

DALA-TA

Gizonaren adimenak ninitu dauan lorarik ederrenetarikoa zinea dogu. Bardingabeko pitxi solia, ondo deitu yaroako zineari zazpigarren arte. Gauregun mundu guztian zabaldua dago, eta ezin ukatu daiteke gizon artean daukon artu-emona.

Zine landarea gaur ezkerro tantai egin yaku, eta zeinbait adar be badorkiguz arbola onek. Onetan bat neorrealismoa, aurki. Alderdi auxe axolaz ikutu gura neunke. Lenengo, ostera, zinearen sorburutik gaur arteko aundi-maundia aratuko dot, eta neorrealismoaren bide-kurutzea argitu.

* * *

Tantairik aundiena be noizbait txikia izana da. Zinea landare txikia genduan 1895'an. Asia lenagotik be bazan, landarerik ezpazan be. 1832 ra ezkerro Plateua'ren "Fenakistikopio"ak irudien mobimentua crakutzi eikean; baiña mobimentu ori ikusteko errubeda baten zulotik begira egon bear. Reynaud'ek(1888) errubedearen orde zintea erabilli eban. Beste aurrerakada bat egin euskun Edison'ek, bere aurrekoen ikusi-ikasiak bilduz. Luis Lumiere(1864-1948) dogu ostera, zinearen benetako aita. Aurrekoen esperientzi guztia, bere zineko makiñan batu eban 1895'an. Ordudanik zinea landare berri lilluragarria genduan. Lenengoz gentearen aurrean Lumiere'k agertu eban pelikulea "La sortie de les ouvriers de la fabrique Lumiere"zan, 1895-eko martiaren 2'n.

Baiña Lumiere'n zinea mobimentuzko argazkia besterik etzan. Zineak apurka-apurka lortu dau bere gaurko nortasuna.

1895'ean dagerkigu zine sailleko beste gizon ospetsu bat: Georges Méliés prantzitarra. Onetxek sortua dezuz, txukuntasuna emonaz, zineetan egiten diran zeinbait sapokeri. Montsenill'en asmatu ebazan "trukoak" deituten deutzen engaño politak; esate baterako "encadenado" deritxoena: irudi bat astiro-astiro illuntzen duan bitartean, bere gañean beste irudi bat yoaku poliki-poliki agertzen. Iruzur au, irudi batetik bestera bitartean denbora aldi bat igaro dala adierasotekoa da.

500 film inguru egiñ ebazan Méliés' ek; sonatuena "Le voyage à la Lune"(1902); ameseta antzekoa berau.

Griffith (- 1948) dogu Ameriketako ziñe egill een maixu.

1900'nerantza zinea garrantzitsu biurtu zan, eta lorak eurak antzo, diru iturri gertatu. Diru-trukeko lenengo zine-mutillak(1905'ean) eguneko 20 franko artzen ebazan. Zineko len izarra Mary Pickford dozu.

1909'an eraiki eben "General Film" famatua, eta ordutxetik asi zan zeñek geiagokea. Enbidi ta gorrotoa ugari sortu ziran "General Film" onetan, eta zine egiten ebiltzan bitartean, pistole a eroan oi ei eben eskuan. Diktadura onen menpetik anka egin eben askotxok. Iges egindako oneek eraiki eben Hollywood.

Zinearen "Urre-aroa" 1920'tik-1928'raiño luzatzen da. Aldi onetako filmik onenetarikoa "The four Riders of Apocalypse" izango da nunbait. In-gram dozu bere zuzentzalea. Alemaniak be badau bere saillea, sonatuena "Nemuk, der eskimo" dau-ala(1922).

Baña guztien artean, Charlot dogu txapeldun. Berea dau "La quimera del oro", txukuna(1925). Eta amaitu ezineko erreskadan yarraitu leiteke: Harold Lloyd, Pudofkin errusitarra, Eisenstein ta abar. Aldi onexetakoa dogu, gaur be eredu leitekean, Dreyer'en "La Pasión de Juana de Arco",

zoragarria(1928), ta beste antzeko "Mickey Mousse", Walt Dinney'rena. 1928'tik 1940 bitartean, toto eginda gelditu zan ziñea.

* * *

Egun be, gizonaren adimenak biotzagaz batean, zine eder asko erne daus. Amerikek, Prantziak, Ingeleterrak, Alemaniak, lore txukun asko garatu dabes zine landan, Italia, ostera, ez yoaku azken.

Prantzian eta Alemanian, azkenengo gudaketaren erpekada negargarriak esisten-zialismo kimua lertu eben. Italia'tarren biotz olerkariak, bere soina gorrotoz urratuta ikustean, neorrealismoan utzitu ebazan bere malko garratzak.

Heidegger'ek, esistenzialismoa "azur ta aragizko gizonaren errenkurea" dala esango. Eta esistenzialismoa gerra ostekoa bakarrik ez izan arren, orduntxe gorrien agertu yakun.

Neorrealismoa be Italia birrinduaren odol gorri gañean loratu zan; onek be "azur eta aragizko gizonaren errenkurea" uneraño sartunda dauko. Niretzat esistenzialismoak eta neorrealismoak arazo bardiña dauke. Arazo ori dakusen begiak ordea bardiñak ez dira; bata adimen begia dozu, biotz begia bestea...

Neorrealismoa gerra sauriaren gainean sortua dala esan dot: 1945'an izan be. Jaio, negarti jaio zan, umea antzo, gerokoan beti begi gorri jarraitu ezpadau be.

Antxiña eztela, Carl Dreyer'ek esan dau: "Gaur neorrealismoa dala esaten dabes ori neorrealismoa bada, orixe berori egin neban nik 1924'an, "Du skal aere din hustru" aretan". Dreye'en ori baleiteke neorrealismoan sartu al izatea; baña ortik, neorrealismoan lendakari bera dala ezin esan. Era onetako zinean errusitar klasikoen aztarnea aurkitzea ezta saila, batez be Rosellini'n "Paisá"n.

Neorrealismoaren bidea atondu eben pelikuleak 1942'an eta 1943'an agettu ziran. Viscontin

"Osessione" lenen; gero Zavattini-De Sica'n, "Los niños nos miran", eta "Cuatro pasos en las nubes" Blassetti'na. Baiña neorrealismoari, Rossellini'n "Roma, Citta Aperta" k emon eutzam bere nortasuna.

Benetako neorrealismoaren arti-izarra Rossellini dugu. "El limpiabotas" agertu ezkeroz, ordea, Zavattini-De Sica'n argiak, Rossellini'n izarra ez taldu egin dau. Azkenengo zinerik ederrrenak bikote onexek egiñak dira.

Zavattini'k teknikeari edo ideologiari garrantzi aundirik eztautzo emoten bere zineetan, moral alderdiari bai ostera. Bere zineetako gizonak, gauza guztien gañetik, fededugak gura dauz. Cesare Zavattini'ntzat neorrealistar filmak eguneroko zera soilki agertu bear dabe; bizitzako arazoak billotx-billotxik egia lau zotu leikean jantzi barik.

Fellini'n zineek ("I Vitelloni", "La Strada") zavattinitarrereri ez yakez atsegin; biziaren izatez ta berezko zengletasuna ito egiten ei dabe. Atxaki bardiña aurkitzen dabe Rossellini'netan. Bere azkenekoan ("Viaje en Italia") Ingrid Bergman'en nortasun erakarria (eta lerdena) kutsu bat dozu Zavattini'n neorrealismoan.

Kimu bi eukazan neorrealismoak erne zanekeotik: batal errusitar arnasea eroyan, besteak gozko bidea artu eban; eta gaur, ia gizonak beste bidexka ditu; Zavattini-De Sica alde batetik, Rossellini-Fellini bestetik, Blassetti, Visconti ta Zampa bere bideetatik, ta abar. Danena da ordea, "gizonagazko errenkurea"; gerra osteko mundu triste ta urratua guztie b erraietaraño sartun da dago.

Fellini-Rossellini'n zineek "biotzberatasuna" dabe esaugarri: "neorrealistar eskolako prantziskotar bidea" dala esango neuke. Zavattini-De Sica'k izatez eta berezkoa ez tana, bizitzatik garbi-garbian artunda eztagona, inñolaz eleukee berean artungo. Zavattini'ntzat, ziñeko gizonak edonon aurkitu leitekezenak izan bear dabe. Orregaitik "bikote" onen filmak bizitzakotasun arrigarria dauke; eta euren ziñeek burura baiño biotzera zuzenago doaz. Batak bizitzattik ika-

garrizko bizitasunagaz arrapatutakoari, bere olerkari kutsua damotse besteak. Gizon bi oneek bata bestearentzat jayoak direla dirudi; eta, orregaitik, Zavattini k idatzitako ziñerik ederreren zuzentzaille Vitorio de Sica da.

Oraino asko ezatala agertu zan Pietro Germi n "Il ferrobiario", neorrealistar filma: txukuna ta egi-egizkoa. Geroago Federico Fellini k loratuta dau beste zoragarri bat, "Il bidone", bere, len aitatutako bien gaiñetik ipintzeko diña. Azurretaraino sartzen da bere izatez eta berezkotasuna.

Baiña onek, il-lorian neorrealismoaren, ordu argi batzuk besterik eztira, zori txarrez. Egia ikusi ta ikasteko adorerik eztagoan lurrean, egi landarea il egin bear. Ameriketatik datorkigun ganora-bako ziñe guzur-ontziak ito dabe lora eder au.

Blassetti, De Sica eta Zavattini k, iruren artean, Film barri bat atontzen dabiltz. Gino Cervi, zine-mutil ospetsua, ei da ziñe onetan lan egiteko aukeratutako bat. Azkenengoz España alde tik izan danean Cervi ri itaundu dautse: "- Neorrealistar saillekoa izango ete dogu zure barri ori? - Ez, ez; onezkero, nire ustez, neorrealismoak berea egin dau. "Il ferrobiario" k bizitasun apur bat emon ba-etsan, azkenik garbitu da betiko. Egunero etzean dakusana ikusteko iñork eztau ziñera joan gura: bere bizitzatik urrun dagoan zerbaitetzaz amets gitea atsegiñago yako jenteari"

Dakusgunez, adorerik aundienagaz neorrealismoaren alde jokatu dabenak eurak, azkenik pot egin dabe. Izan be arrera epela euki dabe neorrealistar filmak; Europatik kanpora ia batek be eztau urten; ostera Amerikatarren ziñe tentela ugari da gure artean. Auxe izan da neorrealistar pitxi zolia pipiatu dauan dongea.

Von KEPA Guarrotxena.

(Arantzazu ko teologari)

-83-

"UNAMUNO
"INDEX"-ERA
KONDENATUA "

Aurtengo Ilbeltzaren 31 n. OBSERVATORE
ROMANO egunkariak onako dokumentu-agiri au zeka-
rren:

Santo Ofizio'ko

Lenen Kongregazioa.

- Erabakia -

- Liburuen kondena -

Santo Ofizio'ko Lenen Kongregazioak,
fedea ta oiturak gorde naiean, kondenatzen ditu
eta liburu debekatuen "INDEX"ean ipintzen Miguel
de Unamunok idatzitako suak:

- 1) "Del sentimiento trágico de la vida".
- 2) "La agonía del Cristianismo".

Gaiera apaiz nagusi agurgarri aien iritziz, esan egin bear zaio kristau-erriari idazle onen beste zenbait liburuek ere fede ta oitura onen kontrako gauzak badituztela.

Aita Santu Pio XII garrenak Ilbeltza-ren 24 n. onetsi zun erabaki au, Sto. Ofizio'ko Kardenal Prosekretarioaren eskuetan, eta argitaratzea agindu du.

Erroman, Sto. Ofizio-Etxean, 1957'ean
Ilbeltzak 30.

Arturo de Josio,
Notarioa.

Unamunoren kondena dala-ta "YAKIN" zerbait esan bearrean arkitzen da euskaldun jakintsu aipatuari buruz.

.....

Euskalerrriak ez du oraindano jakin-mallatara Unamuno bezin izen aundiko gizonik eman. Unamunoren idaztiak munduko izkuntz getantan, egillea bizi zala, irakurriak ziran. Jakintsuaren artean oso erabillia eta sakon aztertua izan da Unamunoren gogamena. Oraindik orain Amerika aldean Unibersidadeak philosophi-gaietan "Unamunologia" bereizi omen dute. Kondena onek adierazten digunez, Unamunoren idaztiak asko eta geiegi zabalduak ziran.

Gure jakintsuaren gogamen-theologikoak

zertxobait azalduko ditut emen; ortik zear ontaz bildutako errenkadak bata bestearen atzetik ezarri besterik ez.

Unamunoren idaztiak era askotako iritziak sortu dituzte kritiko artean, batez ere gogamen theologikoari dagokionean; emen bilduko ditut, irakurri al izan ditudan auetako iritzi batzuek eta irakurleak jakingo du nori arrazoi eman.

1864 garren urtean, Bilbo'n jaioa, guraso zintzoak kristau-bide zuzenetik aurreratzen ondo erakutsi zioten. Urruti-miñez saminki oroitu-tuko zituan gero aurtzaroko sentipen garbi aiek. Euskera ere Bilbo'n otoitzarekin batera ikasi zuan; gure izkera zerbait lantzeagatik ere ifioiz eman zion; "Milla euskal olerki eder"-liburuak ba-dakar olerki bat Unamunorena. Azkue ta bera Azkue ta bera agertu ziran Bilbo'n euskera-irakasle izan naiean norlenka batean, baño Azkuek irabazi. Ordundik alde batera utzi zun bere izkera.

Jakin-miña ere gaztetako urte aietan piztu zitzaion. Bachillerato ikasten ari zala aitarean liburuetan filosofi-gaiak zitun gogokoen. An ezagutu omen zitun lenengoz Balmes'en liburuetan, Kant, Hegel...

Universidadean -karrera egitera joanda- jaio zan Unamuno berria, mundu osoa arritu bear zuan nortasun berezi ura. An nabaitu zitun aurrenekoz erligio-etzabaida zoritxarreko aiek. An sortu zitun bere irudimenak sistema berri aiek. An idatzi bere liburuak, sentipen larri aiez kutsatuak. Eta il ere Salamanca'n il zan Miguel de Unamuno 1936'ko Abenduaren 31 n.

Madrid aldean ekaitz gogor aiek sortu zituzten eztabaidak lur-jota utzi zuten Unamunoren fede katolikoa. Fedea adimenak argitua ikusi

nai du; berak ezagutzen ez zituanik, naiz-ta edonork sifistera beartu, etzituan ifola ere onartzen, etzuan bere burua makurtu nai.

Bere barneko erligio-egarrria nolabait astzearren Lutero, Harnack, Kierkegaard... eta beste zenbait onelako gizonengandik, gogoko zitzaizkionak artu zitun. Iturri oetatik sortu zun bere gogamen theologiko naasia. Batak emen, besteak, Unamunoren teoria norabait sartu naiean dabilta kritikoak, baina ezta ifun ere egoki kokatzen.

Fedearen ingurumari dabilkizu beti Unamunoren gogai nagusia. Sifismen-arazoari erantzun guztiz okerra, heretikoa ematen dio, baina jakingarria oso. Biotza, barnea, bere baita betikotasunaren egarri du: ezilkor-naia "izatea ifoiz ere ezereztu gabe", auxe du bere "bizitzaren sentipen larria". Sentipen orrek bakarrik sortzen du Jainko alguztiduna, Betikoa, bere biotzeko grifia bero ori eusten duan Jainko bakarra. Ezta-go beste sifiste-oiñarri edo motiburik. Biotzak arkitzen du Jainkoa, ez adimenak. "Itxaropena fedearen ama; fedea Jaungoikoarena". "Zuk egin ninduzun bezela, nik nere baitan sortu bear zaitut". Buru-biotzen arteko guda amaigabea, auxen dezu Unamunoren sistema guzia. Buruak bere joerak, ta biotzak bestelakoak "Biotzak baietz, ta buruak ezetz", onatx bere sentipen larriaren erro sakona.

Unamunoren fedea zer-ikusirik ez du katoliko-sifismenarekin. Argi ta zabalik ukatu zitun gure erligioaren egi oiñarritsuenak: Kristoren jainkoatasuna, Irutasun Deuna, Sakramentuak, dogma guziak. Harnack protestante razionalistek erein zuen gaitza ugari Unamunoren adimenean.

"Del sentimiento trágico de la vida", dezu Unamunoren sistema-muifia osoen eta argien azaltzen duan liburua; luzeagotxo dezu alere

liburu onen idazpurua: " Del sentimiento trágico de la vida en los hombres y en los pueblos". Emen azaltzen du Unamunok bere beti-naiaren biotzkada, Jainkoaren sortarazle bezela.

Azkenengo "Euzko Gogoa" k ba-dakar "Unamuno ta gu" deritzon idazlan muintsu bat "Abendats" izenpean. "Abendats" onen iritziz, (eta guztiz bidezko deritzait) gure bilbotar jakintsuaren "sentipen larri" ortan bere Erriarena agertu nai du Unamunok: Euskalerrriaren betikotasun-nai itzal-ezifia; euskal enda bereizi oni iraunkor gordetzearren gizaldietan ain gogor jokatu duan Erriaren irrika bizia; edo "Abendats" berak ain bizi ta gartsu dionez, Euskalerrriaren "bizi-naia, menderakaitza, agoni-burruka, askatu-leia, ezilkor-gosea, azi-bearra,..." azaldu zitun Unamunok "sentipen larri" ortan. -Betor lenbailen "Abendats" en idazti ori.-

.....

Gure jakintsuaren gogai-teologikoa katoliko artean geienak, protestantetzat jo dute: protestante razionalista.

Hernan Benitez apaiza, epaille leguegia agertu izan da beti Unamunorentzat; berak dionez "euskaldunaren" kartak irakurtzean ikusten omen dira anima aren ibillerak. Berrogei urte zitula, Protestantismu aldera zerbait jo zun, baño azkenengoetan berriro Eleizaren mende genun, bere idaztiak bestela itzegiten ba'digute ere.

Unamunogan zerbait onik ba'da, Jaungoikoa arkitu-naia, geroaren kezka artega ura... Gai ikaragarri oietzaz iñoiz ere pentsatzen ez duten anima alper-loti ugari esnatzeko, ongarri alde ontatik; baña, kontuz! erantzunak Eleizak


gaiztetsiak daude-ta.

Urteak dirala, gure Unamuno gaztedi ikasleen gidari ipintzen zuten, España'n idazle goraiatu askoek; gaitza galanki zabaldu dute bere liburu ain irakurriak. Asieratik usmatu zituzten katoliko zizntzoak gaitz oiek. Aldizkarietan, eta zenbait Eliz-Barrutiko debekazioetan beti ernai agertu izan da Eliza Unamunoren aurka, azkenengo egun auetan mundu osora zabaldutako erabaki nagusi ontara arte.

Makurtu ditzagun apalki gure buruak E-leiz dena Santaren erabakietara.

Unzurrunzaga'tar Imanol

Arantzazu'ko teologil.



EUSKALERRIKO AINTZIN-KULTUR ONDARRAK

Joxemigel Barandiaran Jaunaren
konferentzi bat.

Ez daukizut esan bearrik nor dan euskaldun ospetsu su;sobera ezagutzen baiduzu len-dik ere. Orra, ba. Aurtengo epallaren 24-25 konferentzi batzuk ematen izan genduan Arantzazu-n. Iru eman zizkigun: bi españeraz eta bat euske-raz. Oso gai jakingarri ta atsegiañak dira eta la-burtzapen bat egiñik YAKINen argiteratzea pen-tsatu nuan, gure irakurleek' pozik artuko zituz-ke-tela-ta. Ortarako eskatu nion, eta oso pozik e-man zidan baimena. Gaiñera, nere laburtzapenean egon zitezken okr txiki eta zeazgabeak' berberak zuzendu zizkidan.

Milla esker, ba, Joxemigel, nereganik eta Yakin-lari guztion partetik.

Emen jartzen dizudan au' iruetako lena da. Onela zuan idazpurua erderaz: "PERSISTENCIAS CULTURALES DEL PAIS VASCO". Beste biak' urrengo aldizkarietan banaturik emango dizkizut. Bera itzegiten ari balitzaizu bezela idatzi dut emen; editza ere' lenmallekoa. Laburtzapen danez' ez duzu berak esanda bezin atsegingarri arkituko: baña errua' nerea da eta ez arena. Azkenik, Joxemiguel Jaunak ainbat aldiz esan ziguna esango dizut: "guk ezin duguna' zuek gazteok egin bear duzute".

o o o

Arantzazu-n 24 - III - 1957

Euskalerriko oi bizikerak' beti izan dira arduradun jakintsuentzat; baña guretzat izan bear lukete batezere: oiturak, legeak, bizibideak, sinisteak, izkera, etab... Eta iñori baña geiago' guri, euskaldunoi, zaigu egoki euskal-"kultura" eta bere zati edo erloak ikastea.

Emen' ez dugu guztietaz itzegingo. Atal bat besterik ez: idazpurukoa, alegia. 1916-17 inguruan asi nintzan gai ontaz lenengo azterketak egiten, eta auxe oartu nuan: nik fitxatan artzen nituan oar aiek eta beren barneko uste eta bururapenak' txit antziñatik dakarzkiteela beren erroak, eta tamalez, ia galtzen ari zirala.

Konturatu ziran beste antziñalariak ere ontaz. Paris-en parte-artu nuan biltzar batean ere' ortaz ziarduten. Alegia, antziñako kultur-iraukinetatik, edo gaur gelditzen zaizkigun arrastoto ondar oien bidez antziñatea ikasten. Baña beti dauka jokabide onek akats bat: ori' urrutitik begiratzea baida beti, eta jakiñal, urrutitik ez dira gauzak argi eta garbi ikusten. Gaiñera' ez dira berdin aztarren oiek ematen digutena eta ikerleriek, askotan, ortik ateratzen dutena. Beti daude illune asko, eta kontuz ibilli bear da. Ba-

ña ba-dugu joera, ezin ukatu: antziñako "kultura" gaurko argiz ikasi nai dugula, alegia.

Zer aztarren utzi digute, ba, gure asabarrek, aien leenkultura ori ezagutzeko? Ona: ba-dira gaur ere antziñako egitea eta irudia gorde dituzten gauza asko; ots, ba-dira antzin-ondar edo iraukiñak, eta oiek aztertu bear ditugu. Ona batuk:

Ba-dira gure Euskalerrian leengizonen artzaintzari beren moldea eman zieten lurraldeak. Eta artegiak egon ziran toki oietan arkitzen ditugu antzin-ondar oiek. Or arkitzen ditugu lenengo megalitiko-aztarrenak. Leenartzai-oroaren mugak eta oraingo artzai-kultur mugak bat batera datoz. Triku-erri edo dolmenak eta gaurko saroiak ere berdin. Ain xuxen, antiolako toki oietantxe dago gaurko artzai-erria ere. Aien premiak eta auenak berdintsu dira: eta aiek bezelaxe auek ere aldatu egiten dira tokiz. Urte-aro bat emen eta bestea arako artan igarotzeko oitura ori txit antziñakotzat daukagu.

Megalitiko monumentuak artzai-bideen erara mugaturik daude; eta bide oietatik atera genezake zernola, eta nundiko ziran tokialdatze oiek. Gauregun ere "erriko lurretan" bizi oi dira artzaiak, uda garaian beintzat. Eta lur oietxetan bizi ziran antziñakoak ere. Ona zergatik. Beren txabolak "erriko lurretan" zeuden, eta guztienak bai eta etziran iñoren. Ezaugarri bat daukate ortarako. Txabola oiek etziran sekula tellaz estaltzen, beti LUR-ZOTALEZ baizik. Tellak bakoitz jabetasuna esan nai du, eta txabola oiek ez baiziran iñoren, ezin estali zitezkean tellaz. Bakoitz jabetasuna zabaldu zanean orduan zabaldu dira tellazko tellatuak ere.

Beste bat: E T X E A. Beti izan da etxea jabedun. Orregatik, opari ta eskeintzak egiten ziran etxean; eta beti asabarren atsedentokitzat daukate oraindik etxea erri eskotan; toki santu

bat bezela zeukaten lenagokoak. Au' kristauaro-
aurreko ezeze, kondaira aurreko ere ba-da. Eguz-
kia eta illargia zituzten beren siniskizun; eta
etxearen arpegia' sortaldera egon oi zan beti.
Txabolak ere berdin. Siniste ori galduta gero
ere' antziñako oitura bezela gordetzen zan beti.
Kristautasuna etorri ondoren, beren oiturei ja-
rraituaz' sortalderantz begira egiten zituzten
beren etxe ta txabolak.

Etxea' illobi zan. Orregatik, kristau
eragipenez etzegitenarren' etxe egalpean lurpe-
tzen zituzten beren gorputzillak, bataiogabeak.
Esan ere egiten omen zan inor gaizki bizi bazan:
"ori' bere tellatu egalpean (ittuzurean) eortzi
bear da".

Sukaldearen erdian zegoan sutokia: be-
ti' zulo bat izaten zan sukalde erdian, eta or'
sutokia. Sua ere' beren siniskizunetakoa zan eta
etzuten sekula itzaltzen, zulo ortan utzi ta e-
rrautsez estali baizik.

Beste bat: E I Z E A. Eizekerak ere'
kondaira aurreko dira, eta oraindik betetzen di-
ra abeluzu, otso, basurde, ta olakoak eizatzean.
Talde aundian irtetzen ziran. Bi mendien artean
lerroan ipiñi, ta oiu ta deadar abiatzen ziran,
denak batean, ordekan beerantz. Bitartean zeuden
basapiztiak izutu egiten zituzten eta oiek' or-
dekan bera joaten ziran. Bide-estu edo mendi-a-
rratera iristen ziranean' ortarako egiñik zegoan
zulo betera jausten ziran. Orrela arrapatzen zi-
tuzten eiztariak.

Gaur ere egiten da ori otsoak eizatze-
koan. Mendibei, zaldi ta beorak ere' orrela esku-
ratzen dituzte erri batzuetan. Baña ez dira zulo-
eramaten auek, arpe edo illoor batera baizik. An'
lakioz arrapatzen dituzte. Bearrezko zuten eiza
era ontan egitea; aiek zituzten izkilluak' ez
baiziran gauza pistiak-eta erailtzeko, ez eta ta-

juz zauritzeko ere.

M A K I L L A edo karrota. Egur botagarri bat da. Oso antziñakoa: Ejito-n ere arkitzen zan. Onela erabiltzen da: makilla ori bota, eta eizea jotzen badu bertantxe jausten da, bestela botalariarengana biurtzen da berriz. "Bumerang" du bere izena. Baña ez dira berdin bumerang guztiak, eta asko motarikoak ez dira biurtzen. Olatkoa da Euskalerriko **MAKILLA** edo karrota.

Geur ere erabiltzen dute tresna au usoekin, sarez arrapatzen dituztenean. Jartzen dituzte zutik sare aundi batzuek, eta eiztari askoren artean sareetarantz eramaten dituzte, sataragak astinduaz eta makillak jaurtiz. Usoak sarea jotzen dutenean erortzen dira sareak, eta beren azpian artzen dituzte usoak.

Txit antziñakoa da, ba, **MAKILLA** ori eta oraindik leenerrietan ere arkitzen da.

L A I A K. Lurra lantzeko biortzeko luzeak dira. Gauregunarte iraun dute Euskalerrian. Goldeak baño antziñakoago dira, eta ba-ziran goldeak Euskalerrian burniaroan.

E S N E - E G O S T E A. Nola egosten zuten esnea leeneuskaldunek? Guritzen zituzten arriak surtan eta arri guritu oiekin egosten zuten gero esnea. Onek esan nai du: pertzak etziralala burnizko, ezta buztiferrezko edo lurrontzi ere: etzan sortu artean ontzi mota ori. Errezago da, oiekin, surtara jarri eta orrela esnea egostea. Aien pertzak ordea zurezko eta larruzko ziran, eta ezin jarri oiek surtara, erre egingo baizitzaizkieken. Ortarako berotzen zituzten arriak, len esan bezela, eta gero esnetara botatzen zituzten. (Pertz orixe da "kaikua"). Olaxe da oraindik ere. Baita "apatza" ere: askotan "erre" izan dugu esnea kaikuan naiz apatzean. Oitura au paleolitiko aroetakoa omen da nai ta naiez.

I L L O B I E T A K O A R G I A K.

Neolitosaroko oitura da, eta aldi ortako illobien ondakinetan su arrastoak ikusten dira. Bada esaera bat: "ildakoei naiz lasto argi egin bear zale". Illobietan janari-eskeintzeak ere berdin dira. Oraindik orainarte ere eramaten ziran janariak illetetara, ardiak-eta. Auek ez dira kristau oitura, sortzez; antziñakoago baizik; baina kristau-kutsagaz iritxi dira guregana.

Ori agirizteko ona ipui bat Kortezubi-n esan zidatena. Motil bat meatzetara joan omen zan Somorrostro-ra. Meatz-aska batean zebiltzala lurra erori eta guztiak zapaldu omen ziotuan. Motil orren amak ori jakin zuanean argia jartzen omen zion elizan egunero, eta janariak ere bai. Ola urte batzuetan. Jarraitu zuten beste langilleak meatzetan, eta urteen buruan, lurpetutako meatzalleak zeuden tokiraño iritxi, eta ara!, bizirik arkitu omen zuten motil ori. Arribelarra gelditu ziran gure gizonak, eta galdetu ere bai motillari: ia nola bizi izan zan lurpe artan jan gabe, eta argi gabe?

- Jan gabe eta argi gabe? Bai, erantzu zien motillak, egun bete besterik ez naiz egon jan gabe.

Eta ainzuzen, berebiziko ekaitza ari, eta egun ortantxe bakar bakarrik ez omen zitzaion joan ama, janariak eta argia ipintzera. Eta ipuia amaitzean esan zidaten: Orra zergatik egin bear dan eskeintza illengatik, eta jarri bear zaien argia.

Esan dezake norbaitek: nola ez dituzte, ba, jaten eskeñitan ematen zaizkien ogiak-eta? Janariak len bezela gelditzen dira agirian, baina beren zumua eta sustantzia illak jaten omen dize, eta orregatik gelditzen omen dira jaki oiek elkor elkor eginda.

"A R P E K O S A I N D U A". Bidarayko aitzulo bateko troska bat da: eta errikoak di-

otenez' santa bat da arri biurturik. Ba-omen-du bere ipuis ere. Eta santa orri eskeintzak eramateko oitura dago inguruko errietan. Oitura ori' ildakoei txanponak-eta botatzeko oitura bezela da. Aitzuloetako antziñondarretan' arkitzen diorrelako txanponak-eta; kondairaurreko oitura da aztarna oiek diogutenez.

Aztikeriak ere ba-dira. "Aztikeri sinpatikoa", esate baterako. Ona: ba-daukat nik irudi bat, eta nik irudi orri egin dezaizkiodan orozitatez eta berez dan gauzari gertatzen zaizkio gero. Arazlearen eta araziaren arteko artuemana bezin indartsu omen da irudi orrek eta gauza realak beren artean daukatena. Ainzuzen, onexegatik egiten zituzten aitzuloetako marrazki-irudiak, eize irudiak-eta. Egiten zituzten egipen batzuk auen gainean: eta beren ustez, benetako eizea arapatzera joan zitezenean' aitzuloan aiek egingdako gauze beraietxek gertatuko zitzaizkion, eta errezago eizatuko zuten. Ikusten denez' txit kondairaurreko oitura da auxe; bari oraindik orain arte iraun du. Ona beste adibide bat edo beste.

Nik inori' gaizki nai diot. Artzen dut txanpon bat, eta bigurrittu ta okertzen dut. Txanpon orrek daukan irudia' nere nai gaiztoaren kizun dan gizon ori dala pentsatzen dut. Gero' elizan edo santutegi batean botatzen dut txanpon okertu ori. Bai, ba; nik gaizki nai diotan gizon orren gorputza' txanpon ori bezelaxe okertuko omen da.

Beste onen antzeko bat' "kutsu-aztikeria" (magia de contagio) izenekoa da. Arantzazu-ko Santo-Kristo ermitan gertatzen da auxe askotan. Santo-Kristo onek' garatxoak sendatzeko almena omen du. Oneka egiten da: artzen da txanpon bat, eta igurtzitzen da garatxo txanpon orrekin. Gero' Santo-Kristori botatzen zaio txanpon ori. Onela' garbi geldituko da garatxo ortaz. Au da

gertatzen, gauregun ere egiten dana.

Siniste one sorburua lenagoko antzeko xamarra da. Len esandakoagatik garatzea igurtzitzen duan txanponak eramaten du berekin gaitz ori. Eta orrelako txanponik ez omen bailuke inork nai izango, Santo-Kristori botatzen zaio.

Eta bukatzeko Aralar-ko jentillen ipuia. Joan gihan bein nere lagun bat eta ni Aralarren arako toki batera, Jentillen illobi bat omen zela-ta, ikustera. Motil gazte batek erakutsi zigun bidea, eta bai zindo esan ere, — etzeukan aretxek ez bai aundirik! —: "Alako tokitan arri aundi bat dago zutik, eta ori beste arri batekin jo ezkeror kanpai-otsa egiten du. Orretxen azpian eortzi zituzten beren buruak jentillek.

"Ona nola gertatu zan. Igande batean, onoko lur ontan dantzan zebiltzan jentillak. Zebiltzan olaxe, bapatean laño argi aundi bat ikusi zuten sortaldetik. Ba-zuten aitona jakintsu bat, eta onengana joan oi ziran beren estualdietan. Itxua zan aiton ori. Joan ziran, ba, aitona-rengana eta esan zioten: olako ta alako ikusi dugu. Eta aitonak erantzun zien: jaio da Kismi, — Kismi deitzen zuten Jesukristo Jentillak —, eta gure endak egin du. Nik ez dut geiago bizi nai, bota nazazute ortik bera. Eta amildu zuten. Gero, jentillak sartaldera asi ziran korri ta korri izututa. Azkenean arri ortaraño eldu, eta orretxen azpian lurpetu zituzten beren buruak. Orrela bukatu ziran betiko jentillak".

Ona, ba, zenbat balio dezaiguketen gaur diauzkagun antzin-ondakiñak, antiolakoen bizikera eta gauzak ezagutzeko. Txit jakin bearrezko dugu au; auzo-inguru ortantxe, ta pentsakera-siniste oietantxe murgildurik bizi bear baidugu.

Azkenik Joxemigel Barandiaran-en betiko leloa: oraindik asko dago egiteko, eta ori zuek gazteok egin bear duzute.

Artu Fernando Mendizabal-ek (ofm)

EDOUARD HERRIOT

Zonbeit urthe hontan jakintzak egin du urhats haundirik alde guzietarat; oldar gaitzean badoa bethi barnago bere ikhertzetan, bethi hobekiago bere asmatzetan. Ez dakigu geroan zer izanen diren jakintzaren ondorioak, on ala tzarrak. Bena orai dakiguna da erresumen arteko mugak gainditzten ari dituela eta herri-aldeak elgarretarat hurantzen. Hortarakotz gure erresumen artean geroago eta gehiago elgarrekin mintzatuko, elgarrekin kurutzatuko, elgarren herri jakiteko, elgarren arrangurak ezagutarazteko, ez bakarrik kultura zeretan bena bereziki ekonomia eta gizarteko zeretan, baitezpada politika zeretan. Horrek erran nahi du oraiko gizonok beharko dutela gogo lehengoek baino zabalago; kaskoa hobekiago eginga; bichta bat frango urrun eta zabal ikusten ahalko duena; hitz batez gizonago beharko dute agertu zuzentasunez, zintzotasunez betheak; besten zeretaz hartuak.

Egun Edouard HERRIOT beitugu gure idaztiaren ekheia, erran dezakegu zerbait gisaz gizon horietarik bat izan dela, beharba Ameriketara, Russian eta Angletarlan Frantzian baino gehiago estimatua. Gogo haundiko gizona baitezpada, bena anitzetan bakarrik zoanan... eta oraiko egunetan nehor ezin ibili bakarrik, nehor ezin egin zerbait bakarrik; bena bere ber ibiltzea eta lanean artzea ez othe da Frantsesen defaut bat, Euskal-

dunena bezala!

Edouard HERRIOT aipatzera goatzi. Ez alta nahi ginduken bezala, ezen gure ahalak ttipi beiti-re eta gure jakitatea arras labur. Norbait, entzutez baizik, ez delarik ezagutzen biziki neke da hartaz zerbait erraitea edo idaztea. Besteñez ere goizegi da Frantziako edestian holako tokia atchiki duen presuna batetaz zerbait aipatzea. Bestalde ere, ez dugu nahi gintuen idazti eta chehetasunak bildu ahal izan. Barkamendu galdegiten dugu gure irakurler heien izpiritua goserik baizik ez beitu-gu utziko. Ez dugu aipatako HERRIOT radikal-alderdiaren buruzagi bezala, ez dugulakotz aski ezagutzen haren gogaia; bakarrik haren norbaitasunaz dirdiraño bat bederen...

o

o o

Martxoaren 26-ko arratsaldeko lauak eta laurden ziren Edouard HERRIOT-k eman duelarik bere azken hatsa. Jadanik duela lau ilabete bazuen eritasunak beretu zuela; ordu berean eremam zuten "Sainte-Eugénie" ospitalerat soñatua izaiteko. Haren azken hitzak izan dire "La Ruhr, La Ruhr" erhoitaraziz bere politiko biziko aspaldinoko gertakari bat.

GIRIORTINO IHORZKETAK

Honq ezagutza osoa zuelarik, astelehenean, bietan galdatu zuen, Andere HERRIOT bere emaztearen aintzinean, GERLIER Kardinalari girichtino ihorketak ukhaitea. Nahi bezala ukhan ditu, ostegun goizean, "Sainte-Eugénie" ospitaleko kapera. Ba omen zen jende: GERLIER Kardinalak eman du absolbea. Zeremonia hortan aurkitzen zirenetan ezagutzen ahal ziren Jules JULIEN Jauna, minichtro ohia, VOYANT eta BRUYAS Jaunak Rhône-ko zenaturrak, CHARRET, deputatu ohia eta beste anitz jaun ospetsu...

Edouard HERRIOT hil aintzin Eliza kato-likoari buruz itzuli dela! Bere alderdi-kideko

askok, bereziki Edouard DALADIER Jaunak, beltzuri batekin ikusi dute HERRIOT-en egitate hori eta ez dezakete sinets zer gisaz itzuli ahal izan den Eliza Amaren eskuetarat; entsegatu dira Eliza zerbait gisaz nahiz beltzatu eta HERRIOT-en egitate hori nahiz ukhatu. Maltzurkeriak bethi zerbait estakuru pentsatzen du!

Eztabada hortan nehork ez dezan dudamundarik ukhan huna GERLIER Kardinaleak "l'Echo-Liberté" Lyon-eko kasetaren egileari egin dion aithormena:

"Artchapezpikutegiak ezagutarazi duelarik "Sainte-Eugénie" ospitalean izanen zen zeremonia girichtinoa, anitz elhe kurritu da bazterretan; orduan nahi ukhan dugu jakin GERLIER Kardinalearen ahotik beretik berri horren segartamena.

Huna zer aithortu daukun, "Sainte-Eugénie" ospitalean egina izan den cherbitchuaren ondotik: "Jakirik HERRIOT presidentaren osagarria nolakatua zen, laster ethorri naiz Cannes-tik, igande gratsean. Bereala telefonatu dut "Sainte-Eugénie" ospitalerat; jakinarazo dautet eritasunak ari zuela osoki hartzen. Astelehenean, goiz-alde ondoan, joan naiz HERRIOT Presidentarren ohe-bururat, hogoi urthe hontan elgarren adichkide gindelakoan. Hatzeman dut ezagutza osoan. HERRIOT Anderearen aintzinean egin diotan galditza huni "onhartzen tuzia girichtino ihorzketak?" President Jaunak garbiki ihardetsi du " BAI ".

Gure solasaldia jarraki dugu aintzina beste ekhei batean. Gerochago, uste ukhan dut zuhurtzia zitakela ene galderaren erreberritzea: "onhartzen tuzia girichtino ihorzketak?" Lehen aldian bezain deplauki ihardetsi daut: " BAI ".

Horra zer dion bere artikuluan "L'Echo-Liberté" Lyon-eko kasetak. Ber aithormena irakurtu dugu "Le FIGARO" kasetan, Martchoko 29-ko zenbakian. Diote bestalde, soñatu duen serorak, hil aintzin presentatu dion kurutzefikari pot eman diola anitz aldiz, erraiten zuela Andere Serorari: "Andere Serora, lagunt nezazu huntsa hiltzen".

HERRI IHORZKETAK

Lyon-eko hirian eginak izan tzazko herri ihorzketak. Hiriko etchean emana izan da hilaren kutchia eta Lyon-eko jendea gau eta egun luzaz ibili da haren aintzinean, bere auzapez ohinari egiteko omenezko agurra. Martxoaren 30-ean, iagitz atsaldean, herri ihorzketak egina izan dire, René COTY Errepublikako Presidentaren aintzinean. Mintzaldi bat bakarrik: Guy MOLLET-ena, ziola: "osoki errepublikanoa zen eta, politiko alderdi guzien gaiznetik, kontseilari errespetatu eta behatua, haren esperientzia aldi bat baino gehiagotan izan baita baliosa".

o

o o

Nahi ginduke orain zerbait erran Frantziak galdu duen gizon haundi horren biziaz. Aithortu behar dugu berriz ere chehetasunak frango eskas ditugula, ezen, gure ezagutian bederen, ez beita oraino lan mamitsuri eginik izan HERRIOT ekheia ren gainean. Beharko da zonbeit ilabete edo anhitz urthe idurikatu zerbait agertu aintzin, ez beita dudarik Frantziako edestian HERRIOT Jaunak zati eder bat bathe izan duela eta norbait idazlek egun batez nahiko dakola eskaini zor zaion ospea.

LYON-EKO AUZAPEZ

Troyez hirian sorthua zen 1872-eko Uztailaren bostean. Ez izanagatik familia aberats batean sortua, bere ikhasteak egin zituen eta jarraiki mail gorenetaraino. Hartze hona izan behar zuen, ezen erakutsi du anhitz aldiz kultura zabal eta aberats baten jabe zagola. Ez balitz politikan sarthu, beharba Frantziako idazle hobenetarik jelgiko zitaken. Hogoi ta bi urthetan lehen jelgi zen agregazioneko konkurean eta hogoi ta amabi urthetan presentatu zuen letra-dortorgoaren ekheia "Madame RECAMIER et ses Amis" deritza idazti aipagarria eta bikaina. Liburu horrek erakusterat emaiten dauku berdin edeslari

gothorra jelgi ahalko zitakela edesti sailean. Deskantsatzeko bezala idatzi ditu beste zonbeit liburu, hala nola: "LYON N'EST PLUS", "FORET NORMANDE", "JADIS". Musika sailean aldiz utzi dauku: "VIE DE BEETHOVEN" 1929-ean argitarazia.

1904-eko urthean Ampère ikhastegian erakusle bezala aurkitzen dugu eta ber urthean Lyon-eko zen nechkato batekin ezkondu zen. Ber urthean ere Lyon-eko kontseiluan izendatua izan zen eta ordutik gioz sekula ez da kanporat igorria izan, auzaphez kargua jasan behar izan duela 1905-etik heriotzeraino. Lehenik achuant gisa hautatu zuten eta gerochago 1905-ean, Victor AUGAGNEUR-en ereplazant ezarri zuten Lyon-eko auzaphez.

Frantziako haundienetarik den hiri nagusi huntan HERRIOT Jaunak ibili dituen lanak anitz dire: ala bizitzalen osasunaren artatzearen alde; ala ikhaskuntzaren alde; ala hiri hortako induztria eta komertzioaren estranjerean ezagutarazteko eta salbiden errechteko. Nola ez aipara orai mundu guzian halako fama eta arrakasta duen Lyon-eko feria, 1916-ean moldatu zuena? HERRIOT-en obretarik ederrena ere "GRANGE-BLANCHE" ospitalea; nahi ukhan zuen tresna hoberenetaz muntatua izan zadien. Gisa berean asko obra balios eta Frantzia guziaren ongiarentzat.

JAUN PRESIDENTA

1936-etik 1940-erat: Deputatuen Ganberaren President.

1946-etik 1954-erat: Nazioneko-Biltzarren President.

Atseginekin ikhusten zuketen gizon haundi hori mintza-alkhirat iragaiten; atseginekin aditzen haren botz ozena, sartzen bezala zela bihotzetan barna, gogoak berotuz, kheinu batez finkatzen zuela bere gogaiaren garrantzia. Bazakien ederki mintzatzen, ez segurki jendea nahiz lilluratu, bena charmatuz nahiz aijeago izpirituetan sararazi bere doktrina. 1946-ean Frantsesek deitzen balin bazuten Nazioneko-Biltzarren presi-

dent bazakiten ez zutela gizon gazte eta ez eza-
gutu bat deitzen (deja berrogoieko gudua aintzin
bost urthez ber kargua kudeaturik ukhana zuen),
bena bai omen haundiko gizona, hartan ezartzen
zutela beren konfiantza. Kargu berri hortan ere
enplegatu ditu bere indarrak eta ez da egon ahal
izan auherrik. Palais-Bourbon-eko aldean den
president-otelean erezibitzen zituen bijitatzai-
leak, bethi gisakoki eta beroki. Haatik, Alemanek
erbestu beitzuten, gibelerat itzuli zen bere osa-
garria azkarki anderaturik; gerlako ondorio hori-
ek bethi emendatuz bazoatzen eta jenatzen zuten
bere moimendu eta harat-hunatetan; haren urhatsa
eztitua zen. Halere ez zuen galtzen laneko kha-
rra. Chankha bat eskuan, beste eskua bere uchera-
ren sorbaldaren gainean pausatutik, egun guzietz
bazoan bere apartamenduko barnetarik Biltzarra-
ren saletaraino eta biziki nekez jartzen bere
alkhian.

Etsitu gabe, deputatuen jardunak kudea-
tzen zituen artoski, bere larderia guziarekin.
Gorputz higatu horren barnean ezagun zitaken ha-
ren izpiritu chorrotch eta biphila bere distiran.

1953-eko Abendoaren I-ean, ezaguturik
bere indarrak ahulduz zoatzila, Biltzarrari eza-
gutarazi zuen, LE TROQUER Jaunaren medioz, ez zu-
ela presentatu gei 1954-eko urtharrila, ez ziola
geiago ihardok Presidentgoako karguak dakarzkan
eginbide dorpheri. Orduan Biltzarrak eman zion
ohorezko titulua eta eskeini egotegi bat Parisen
berean.

GOBERNAMENDUKO BURUZAGIA

1924-eko bozkak.

DREYFUS-en afera denboran (1898-1900)
HERRIOT sarthu zen politikan. Orditik ikusten
dugu sail horri osoki emana. 1924-ean bozkatzek-
ak egin zirelarik Léon BLUM zen Zozialichten a-
intzindaria eta Edouard HERRIOT aldiz Radikale-
na. Bi alderdi horiek patchuerkatu ziren "CARTEL
DES GAUCHES" deritzan batasunaren moldatzeko.

Batasun hori dela medio HERRIOT Kontseiluko President gisa hautatua izan zen bozkatze horietan. Berehala bermatzen da erresumen arteko aferen antolatzerat, ala ekonomia ala gizarteko zeretan. Halere Frantzia barnean ez dezakete laizismoaren alde lehentchago hasi oldarra bara eta huna HERRIOT-ek Frantzia barnean jarri gei duen politikaren programa, lau phuntutan:

- Laiko-legea Alsace eta Lorraine eskualdetako eskoletan jartzea.
- Kongregazionen kontra 1901-ean bozkaturia izan zen legea finkatzea.
- Vatican-eko enbachadorea kentzea.
- Eskola bakarra (Gobernamenduko eskola).

" Cartel des gauches "-en egintzak.

I.- Alsace eta Lorraine eskualdeak.

1801-eko akordioaren arabera eraikiak ziren eta kudeatuak Frantziako eskualde huntako eskolak: lehen mailako eta normaletako eskolak sinesdunen araberrazkoak (Protestant, Judio, Katoliko). Bigarren mailako eskoletan girichtino ikaskuntza obligatu da. Eskola horiek guziak Gobernamenduak behar ditu lagundu eta pagatu.

HERRIOT-ek nahi izan duelarik eskola laiko legea jarriarazi Alsace eta Lorraine eskualdetan, jendetze guzia harrotu da eta 24 deputatu Alzaziano eta Larrainiano althatu ziren "statu quo"-aren alde. HERRIOT-i behartu zitzaion Alzaziano eta Lorrainiano jenden nahiari amor eman.

II.- 1901-eko legearen finkaraztea.

Lege hau bozkaturia izan zen WALDECK-ROUSSEAU minichtro zen denboran. WALDECK-ROUSSEAU aphezen kontrakoa zen eta zion Kongregazionekegin lana galgarri zela erresumaren batasunarentzat. Orduan asmatu zuen chedea Kongregazioneak behar zirela Errepublikaren pean sumetitu, ziola Frantzia sobera nonbre haundian zirela eta on-

tasun anitzen jabe; beren eskoletan gazteria guztia biltzen zutela eta erlijione katolikoan altchatzen; errepublikaren alderako ahiergoan atchikitzen. Ez zituen alta Kongregazioneak nahi ezeztatu bena bai heien indarra ttipitu, heien-tzat dretchoaren arabera zerbait aphailamendu nahiz eraiki. Orduan izan zen bozkatua 1907-eko Uztailaren I-eko legea: Kongregazione zonbeiti bakarrik uzten zuena eskolen zabaltzeko dretchoa eta emaiten erakusteko baimena. Kongregazionen kontrako gudu hori garrazkiago jarraikiko du COMBES-ek, WALDECK-ROUSSEAU-ren ordain hautatua izanen delarik 1902-ean. Huna hiru phuntutan COMBES-en programa:

- Kongregazioneak gudukatzea.
- Ikaskuntza erreberritzea.
- Eliza eta gobernioa elgarretarik behechtea.

HERRIOT-en politikak ez du garratz aire hori. Bena ez dugu ahantzi behar errotik errepublikano dela eta beraz ideia errepublikanoez hantua, Elizaren alderateko ahierkune bitchi batekin. Besteñez ere behar gire ohartu haren gogoa hazia izan dela laiko doktrinan eta 1900-etik hunarat izan diren aharra eta eztabadetan zerbait gisaz, guti edo aski, parte hartu izan duela. Ez da aren harritzeko bere aintzinagokoen ber oldeari jarraikitzen balin badda. Haatik behar dugu erran badakiela gauzen abilkiago eta ederkiago presentatzen. Bena aski abila izan bazen ohartuko zen aije 1924-eko jendetzea ez zela 1900-ekoa bezalakoa; 1900-en eta 1924-en artean izan dela 14-eko gerla eta geroztik Frantzian beste mantalitate bat zela, gerla aintzinokotik arras diferenta. Frantziako populuak bazuen aski elgarren arteko aharraz eta eztabadez; asko sofritu izan du Alemanien kontra egin behartu zuen gerlan eta orai bake pochi bat baizik ez zuen bilatzen. Aije ulertzen dugu orai HERRIOT-ek bere programa nahi ukhan duelarik aplikatu Kongregazionen kontra, nola jende chehea altchatu zen lege horren kontra. Jende cheheak ez du nahi utzi bere burua lilluratzerat, are gutiago engantzerat. Bere jite bereziaren arabera maite du zuzentasuna eta ez dezake onhart gerla denbo-

ran etsaiaren gudukatzen ikusi dituen aphez eta fraideak berriz ere izan ditezen kasatuak, lehen-go denboretan bezala. Ezen ohartu beita heiek zaukatela bihotzean Aberriaren alderateko egiazko amodio bizia. Ez du nahi Kongregazionen kontra zerbait egina izan dadien eta bere gain hartzen du heien begiratzea. Zer egin dezake gizontto batek, izanikan ere zorbat nahi boteretsu, jende chehea, populua, baetsan, oldartzen delarik bere gutuko ez duen zerbaiten kontra? HERRIOT-ek ez zuen gehiago aipatu legerik! Ichil ichila amor eman behartu zitzaion!

III.- Vatican-eko enbaxadorea kentzea.
Zenatoren ganberan phuntu hau ez zen onhartua izan.

IV.- Eskola bakarra.
Nahiko zuen Gobernamentuko eskola bakarra. Ez zitaken beste eskolarik zabal.

Katolikoek ederki ihardoki zuten eta HERRIOT-en amentsa horrela baztertu. Haatik ereusitu zuen urririk haurrak eskolatuak izaita bigarren mailako eskoletan; gisa hortan iduritzen zitzaion langile ta laborari semek aijeago egi ten ahalko zuztela beren ikasteak, aijeago ere neltzen ahalko zirela goragoko mailetaraino.

o

o

o

Artikulu hau urhentzean pentsaketa egi ten dugu zer jujamentu ekhar HERRIOT Jaunaren gainean. Aladere gure begi kolpea gurea da eta ez beste batena. Halber jujamenduarentzat: gure jujamendua osoki gurea da. Nola ere begistatzen beitugu norbait eta barneraino ikertzen, halaber gure jujamenduaren mamia. Ez dugu emanen jujamendurik, ezen gizon baten aintzinean ez beita gauza baten aintzinean bezalako izamena ukhaiten ahal. Gizon bat behar da bethi errespetuz behatu, Jainkoak egina duelakotz eta Jainkoak bakarrik

beitezake bere osoan (gorputz eta arima) ezagut, eta beraz jujamendu egiazko bat ekhar. HERRIOT-en gainean dakiguna da, bere biziko azken mementoan Jainko maiteari hel egin diola, Eliza Ama sailduaren alderat bere begitartea itzuliz. Nor giren Jainkoaren aintzinean, hortan dauke guzia. Zer izan den gure bizia Jainkoaren aintzinean; zer gure gogoeta eta gure egintzak.

Alta badute gizonak ere jujamendu bat ekartzeko, ezen gizona gizonen artean bizi beita eta beittitugu elgarren alderateko eginbideak. Denek bizi behar elgar lagunduz eta elgar maitatuz. Bizi behar ere erresuma baten barnean, eta erresuma horren ongia arthoski bilatu behar. Gizon bakochak baditu bere eginbideak bere Aberri eta Gobernamentuaren alderat; anitzetan eginbide horiek ahantzirik, gure dretchoak baizik ez ditugu aipatzen. Guk ere behar dugu pharte hartu gure lurreko erresuma bakotcharen egiten; nahi ukan behar dugu gure erresuma bakotcharen izaita eta haren haunditasuna, haatik lurraren gainean moldatu izan diren beste erresumak errespetatuz bai ere oraiko denboretan alde guzietan moldatzen ari diren erresuma berriak.

Frant iarentzat HERRIOT-ek egin du anitz ez dezakegu guk erran zonbat, ezen ez beittitake chuchen izart gizon baten lana edo merezi duen bezala aski estima. Anitz egin duen hortan bada on eta tzarrik; kalte frango egin duke bere ideo logiari jarraikiz, ez dugu uste gachtakeriaz edo martzurkeriaz; uste zuen untsa egiten zuela eta, bere gisan, Frantsesen ongia bilatzen zuen. Eta uste dugu, gure iritziz bederen, Frantziako edestian teki berezi bat enanen zaioa, gizon politikero haundi bati zor zaion bezala.

F. Arnaud ERDOZAINZY-ETCHART (ofm)

ORSAY-n (Paris)

GIZONA TĀ GOI-ĀGERPENĀ

Ba-dira Jenesis liburuan esakun soil bitan azalduta, Aita Jainkoak, irazan-lan guzien buruntza bezela burutu zitun bi egite, zein baiño zein aundi ta miragarriagoak: "Et creavit Deus hominem ad imaginem suam..." (1,27) eta "Et benedixit die septimo et sanctificavit illum..." (2,3).

Ordutik, bere izatenaren muñfietan darama josirik gizonak ainbestetan ukatu nai izan dun bestegandikotasun ori. Egin-ezaren eragin bat besterik ezta, irazaki bat besterik ez.

Irazakitagun orrek etengabeko oiartzuna dagi gizonaren bizitza osoan zear. Edonun eta beti "Ba-danarekin" estu-estu lotuta dāger. Izakiaren eskuetatik zinzilik dago irazakia, Jainkoaren eskuetatik gizona.

Bere urte orotan zear, etengaitz dan oiartzuna lotura orrek. Eta alaxe da izan ere. Lokarri ori dala-ta, gizonak Izaki orrekiko betebearrak dauzka: bere Jaun da Jabetzat aitortu gizatarunaren gun izkutuān Berak itsatsi dizkion

agiaduak bete. Orra jatorrizko erlijioa. "Et creavit" ari dariokion ondore besterik ezugu, oiartzun eten-ezin aren garatzea.

Baina Jainkoa etzan ortan gelditu. Gizonarenganako maiteak eraginda, on-puska besterik ezpaitzan, "... sanctificavit illum", goizatezko maillara jaso zun. Eta orra nun datorkion gizonari sekula amestu ere egin ez tun beste izakera berri bat. Ordudanik beste eginbear eta beste itxaropen batzuk koka zaizkio barnean. Oñ goi-izatezko erlijioa.

Jausi zan ordea goi-mailla ortatik lenengo gizona, guzion aita, ta arekin batera giza-mota osoa. Eskerrak Aita Jainkoak betidanik emanda zeukan errukizko erabakiari, eskerrak bere Len-Semeak odolaren bitartez lengoratu gintuanari. Ordutik goi-bizitzaren poza dugu berriro biotzean.

Bi "statu quo" oiek (abstrazio utsetik jaioa bata, gertatzezkoa bestea) gogoan ditugula, goazen orain geurera. Goi-agerpenaren bearrik bai al du gizonak bere jomuga lortzeko? Zeatzago esan: 1) Jatorrizko erlijioa bear bezela ezagutu al izateko bearrezko al zaio gizonari Goi-agerpena?

2) Bai al du gizonak Goi-agerpenaren premirik goi-izatezko mailla orren ezagutzara eldu al izateko?

Orra bi arazo ezarri. Demaiegun erantzun biori bigarrengotik asiaz, lenengoan baitago kokka ta or luzatu bear izango baitugu.

- - -

1) Goi-izatezko maillaren ezagutzeari gagozkiola: Goi-agerpenaren premian arkitzen al

da gizona? Zalantzarik gabe, bai; ta premi gofi-
an arkitu ere. Ori nundik dakigun? Goi-izatezko
maila orren zertzetatik bertatik.

Goi-izatezko maila bere zertzetaz,
gizonaren izateaz goitik dagon zerbat da. Goi-
izakera ori artu dezake gizonak bere baitan; me-
tafisikak dion "potentia obedientialis" ortan
dago grazi-izakerari buruz. Baña bere izatez,
bere izan utsari bagagozkio, eztu orren egarri-
goserik. Beraz goi-izatezko mailaren ezagutzara
iristeko goi-bizitzaren Sortzailleak berak bear
dio orren albiste eman, Berak agertu bear dio.
Gizonak Goi-agerpenaren erabateko premia dauka
ortan.

Berauxe zan Vaticano-ko Eliz-Batzafak
erabaki ziguna. Gure lenengo auziari buruzko itz
batzuen ondoren onela dio: "...Non hac tamen de
causa revelatio absolute necessaria dicenda est,
sed quia Deus ex infinita bonitate sua ordinavit
hominem ad fidem supernaturalem, ad participanda
scilicet bona divina, quae humanae mentis intel-
ligentiam omnino superant..." (D 1786), bein Ja-
inkoak bere ontasunagatik gizona goi-sifesterako
egin zun ezkeru, onak Goi-agerpenaren erabateko
bearra daukala, alegia.

2) Lotu gakizkion orain lenengo galde-
kizunari. Jatorrizko erlijioa bear bezela ezagu-
tzeko Goi-agerpenaren ze premi dauka oraingo e-
goeran gizonak?

"Bear bezela" ezagutzeko diot, au da,
erlijio orren egirik eta betebearrik buruenak e-
zagutzeko; ots, egietan Jainko notinkor baten
ba-dalazkoa, ta bere tasunik berezienak (ardura-
tasuna, urrikaltasuna, zuzentasuna, gizonaren
Jabe ta jomuga izatea), animaren ezilkortasuna,
ta beste munduko merezi-saria; betebearretan
berriz, gizonaren izatezgoari so eginda agertzen

zaizkigun jatorrizko legeak: Jainkoarekikoak, besteeekikoak, eta norberetikikoak alegia, guziak izan ezta ere nagusienak bederen.

"Oraingo egoeran" gañeratu degu ta bearrrezko zaigu oso zeazpen au. Gizona beste egoera batzuetan ere egon baiditeke ta jazo ortan Jainkoak beste era batzuetara ere ezagunerazi baitezaioke erlijio ori, naiz erakus dezaioten amitz jakintsu egoki sortuaz, naiz giza-izatezgoz landako jakituria ixuriaz, naiz beste era askotara.

Gizona esatean, eztugu bakoitz bezela artu nai, gizadi bezela baiño, ezpaitute biek premi berdina. Azalkizun onek bete-beteartzen duna "gizataldea" da beraz eta ez gizon au edo ori: onek edo orrek joka-lege onen menpetik iges egin dezake.

Biresanez: oraingo egoera ontan euki ai dezake gizonak guzi orren berri Goi-agerpenaren laguntza gabe?

Vaticano-ko Eliz-Batzar berak au dio, oraingoko aipaturiko itz aiek baiño len: "Huic divinae revelationi tribuendum quidem est, ut ea quae in rebus divinis humanae rationi per se impervia non sunt, in praesenti quoque generis humani conditione ab omnibus expedite, firma certitudine et nullo admixto errore cognosci possint" (D 1786), ots, oraingo giza-egoeran, Goi-agerpenetik datorkigula guziori, berez ulergarri zaizkigun Jainko-gauzen albiste egoki, ziur eta zuzena. Pio XII'garrenak bere "Humani Generis" enziklikean argi ta zeatzago mintzatzen zaigu: "Divina revelatio moraliter necessaria dicenda est, ut ea quae in rebus religionis et morum rationi per se impervia non sunt, in praesenti quoque generis humani conditione, ab omnibus expedite, firma certitudine et nullo admixto errore cognosci possint" (D 2305), au da, erlijio ta

oitura gauzetan moral-premizko dugula Goi-agerpena oraingo gizadiaren egoera ontan, berez adigarri zaizkigunak guziok ziur-zuzen eta egoki ezagun ditzagun.

Bi zatiko auek elkarrekin erkatzen baditugu, bereelaxe dagerkigu bion arteko kidetasuna. Ba-daude ordean bigarrenean, lenengoak eztauzkan zeazpen batzuk: "Moraliter necessaria... in rebus religionis et morum". Ederki jarria orratik lenengoa!

Izan ere, orixe da adimenak, bai a posteriori (kondairak errien erlijio ta oitureri buruz diokigunetik), bai quasi a priori (gizona-ri psikoloji aldetik begiratuta) egiztatzten dizona.

Kondaira ikusi besterik eztaukagu or-tarako. Erlijioak (oraindik asko eztala A. Lang-ek Tylor-en aurka baieztu, ta G. Schmidt-ek kul-tura-edesti bidez egiztatu egin duten bezela) geroago ta bide zuzenetik, ots, Jainkobakar-za-letasunetik okertzenago joan izan dira. Nolakoa zan esate baterako, aspaldi artan grezi-erroma-tarren kulturarik gorenetakoa ura zeukaten erri aien erlijio-bizikera? Egitik saiestuagoa ezin.

Jesukristo jaio aurreko bigarren gizal-dian idatziriko "Sapientia Salomonis" liburuan (13; 14) dakusazkigu ederki orduko bidegabekeriak. Jainkobakarra gurtu bearrean, amaika sasi-jainko gurtzen zituzten: izaditik artutakoak zenbait (naiz izadiko indar izkutuak, naiz eguzkia, naiz ludia bera), gizonak egifiko esku-lanak batzutan, gizona bera ere bai bestetan (erromatarren arte-an enperadorearekin egin oi zan bezela). Lekutan dago Jainko notinkorra!

Ta orrezaz gañera, zilleizti-barrutian zeukateen ustokerrak! Nola bai! Zilleiztiaren oiñarri diren giltzegiak ere etzituten ezagutzen

da: gizonaren eskukotasunaren berri ziurrik ez, animaren ezilkortasuna kilinkolo, Jainkoak gizonaren gain daukan agintea or nunbait, beste munduan (baldin bada go beintzat) bakoitzari emango zaion saria ez jakin. Errex ikusi ditekeltze gi sendo oien eza, zeren iturri izan ditekelt: likiskeria ugari, esku-lana gutxietsita, norbere erailtzea jokaerarik bikaiñena, morroikeria, guda ankerrak etab.

Gure egunotan berton ez al dugu ikusten Goi-agerpenaren argia ezetsi dutenak nora doazen? Zokoratu dituzte egungo filosofilariak goi-ager-tuak eta or dabilte zer siñistu ez dakitela, e-tika zerez oiñarriztu jakifi ezifi.

Bestalde, ezin ukatuko diegu errieri egizko erlijioaren billa gogo onez ibilli diranik, erlijio-irria barne-barnetik baitatorkio berez gizonari. Etzituzten aletin txikiak egin zenbait filosofilarik egia arkitu naian, esaterako, So-krates-ek, Platon-ek, Zizeron-ek eta Seneka-k antziñatean, ta azken aldi auetan berriz Goi-agerpenez landa ari izan diran beste ainbatek. Guziek erori dira okerrean, eztute jatorrizko erlijioa bear bezela atzeman.

Oker-egite ori ezta beraz ango edo emengo bakarrik, gaurko edo orain bi milla urteko. Ori, Goi-agerpenaren dirdira euki eztanero, edo-nun eta beti jazo dana dugu.

Zer esan nai du onek? Gizonak egi oiek ezagutzeko fisikor almenik eztaukala? Ez, ori ez; Mailla ortako egiak Goi-agerpen bidez jakinda gero, ulertu al izan baititu giza-adimenak, beraz lortu ditzakenak baitira, Elizaren teodizea ta etikan agiri danez.

Gizonak ba-du ortan egi oien ezagutzara iristeko almen, almen fisikorra. Eztu izatezko ezintasunik. Ala ta guztiz ere, gizadi danez eta

oraindako baita bakoitz denez ere, Goi-agerpenez at eztitu sekula bear bezela ezagutu. Izatez, gizonak bere baitan daraman indarrean soilik begiak jartzen baditugu, ezagutu bear lituke. Gertatzez ordea eztazaguzki ez inoiz, ez inun. Ots, moral-ezintasuna dauka gizonak egi oien ezagupenera iristeko. Moral-ezintasun ori betetzeko berriz zezeren bearra du. Ta ona nun datorkigun Goi-agerpenaren premia, ain zuzen ere moral-premia, "revelatio moraliter necessaria" Humani Generis-ak dion bezela.

Berdina da quasi a priori psikoloji aldetik begiratuta ateratzen dan ondorioa. So dagiogun bestela gure tartean bizi dan gizon orrexen izakerari.

Bi eratara ezagutu lezake jatorrizko erlijioa: norberak egindako azterketaz edo-ta besteek erakutsita.

Lenengo bideak gauza onik emango eligukena agirian dago. Aunitzek eztaukate kaskarra ortarako egiña. Beste askok astirik ere ez; naiko lan damaie eguneroko ogiak. Ta batzuk baiño geiagok alperkeria ere ez tute txikia. Orrezaz gainera, elirake aski urte banaka batzuk orrelako egiak sakonki ta egoki dan bezela arakatzeko; luzaro ari bear izango luke ortan gizonak. Buruenik, lan oiek eginda gero, egirik-eza da askotan lortzen dana, ezpaita ttikia giza-ulermenaren auleria bera ere. Oiek orrela izanik, utzi dezagun orain norberaren eskuetan egi-arakatze ori. Ezagutuko ditu, bai... aizerik eztan urtean.

Besteen erakuspenez beifipein ez ote lituke ezagutuko? Ezta orrela ere. Ta nun dauden lenengo, jatorrizko erlijio orren ezaguera egokia dutenak. Alako bi anakorik ezta ludiak oraino sortu. Eman dezagun ordea, ba-dirala olakoak... Zenbat izango lirake? Danera ere, gutxi, gutxiegi

gizadi osoarentzat. Gutxi oiek gaitetikoeri -ta ba-dirala mundu ontan izatekoak- erakusten aste-ko, gibela, gibeltzar aundia bear izango luteke euki. Maikutza ortan jokatzeko, eleuzkateken -aginte ta jurisdikzio bearrean izango lirake gaitiera. Ta gero nola sinist-erazi besteeri? Geienean gerta oi dan bezela, ezpailuteke ziurtasun aundirik izango arazo askotan; ta euren artean ere, zilleizti-galetan bereziki, iritzi desberdiñak izango bailituzteke, naiz ta gauzarik argienak izan.

Itz bitan esan: Gizonak, egiaren jabe izan nai badu, Goi-agerpenaren premia dauka ta ez txikia. Orixe da kondairak eta psikolojiak eo batez dasaigutena.

Zurutuza-tar Joseba K.

Arantzazu-ko teologilari

ERABILLI - ITZAK

Goi-agerpen: Revelación
Bestegandikotasun: Abalietas
Goi-izatezko: Sobrenatural
Jatorrizko Erlijioa: Religión natural
Izatezko: Natural
Zertzeta: Definición
Giltzegi: Principio
Zeazpen: Concretización
Erabateko premia: Necesidad absoluta
Ustoker: Error
Norroikeri: Esclavitud.

.....

MEZA SANTUA ETA ZINESTUNEN BIZITZA

"Sociologia religiosa" deritzaion jakintza berriak, laguntza bikaña daramakio oraingo bidaliari. Au dala-ta, gaur Prantziko apezak beren aberriko erri guztiak ikustatu ditzakete., oien Jainko zaletasunaren taupadak oartuaz.

Beste garrantzi aundiko egigai artean, Kristau bizitzaren onenetako dan ezaupeida, azaldu diete. Erri bakoitzean igande mezara joaten diranen zenbatzak.

España bertan ere, onelako lanetan asiak dira. Morcillo gotzai Jaunak Bizkaiko Eliz Barrutian egintzuana, guretar-tean oraiñarte egin dan aundi ta ederrenetakoa da. Zenbatza onen bidez, Bizkaiko Kristautasunaren berri gaur asko dakigu.

España guziko Eliz-barrutietan, Morcillo Jaunak Bizkanean egin zuana, egingo balute, laister ziur eta ongi jakingo genuke nolakoa dan Españaiko Kristautasuna.

Baña, naiz igande mezara joaten diranen zenbatzak garrantzi aundikoak izan, saskonkiago ezagutu nai badegu gure Kristautasunaren egikera ta nolakorasuna, zenbaiterañokoa dan gure katoliken bizitzetan, meza santua zer dan billaketzea beartuak gaudela uste det.

Zenbait lekuko elizara joaten ez diranen zenbakiak, bildurgarriak ba dira, bigarren azterpen

onenak, askoz negargarriagoak izango ote liraken ustetan nauzu.

Zoritxarrez, ziñestun geienari iruditzen zaie, apaizari bakarrik dagokiola Meza Santua.

Igandero Meza denboran, elizan egon bear ori, onartzen dute, bañan, or bukatzen da oien egite guztia.

Gizonak sarritan, koru azpiko illunpean iskutatuta, meza noiz bukatu zai, aspertuta egoten dira, eta apaizaren "Ite Missa est", izaupide izaten dute, danak presaka elizatik irtetzeko, ateruntz jotzeko.

Emakumeak geienetan Jainkozaleagoak diranez, Meza denboran, idatzi onak irakurtzen, erro-sarioa errezatzen maiz igarotzen dute... bere edertasun eta apainkeriak azaltzen ere, ez gutxitan.

Gizonak Jainkoari egin dezaioken eskeinkizunik bikañena dan opari onetan, gure ziñestunak, ordu erdi latz eta aspertua besterik ez dute arkitzen.

Gero berriz, guraso, apaiz eta auzoko lagunak utzita, beren errietatik alde egiten dutenean, leen elizara lotutzen zituzten lokarri gabe, beralaxe igandeko meza utzi eta elizatik aldenduta gelditzen dira.

Auxe da Españiko ziñestun askoetan gertatzen ari dan, samintasunezko ikuskizuna.

Ez da gizaxo oiena bakarrik oben ori, ez. Oben ortan, bidaliak ere ba du zerbait aitotu be-
arra, ez dielako mezaren oparia, bere aunditasun eta edertasunean azaldu.

Igandero mezara joan bear dutela. Joaten ez badira, beren biotzak, oben larriz illunduta geldituko dirala eta onelako makiñabat erakutsi, entzun dituzte; baño Meza zer dan, eta Jesukristoren oparian ziñestunak daukaten egitea, ori, gutxitan edo beñere ez dute entzun.

Ez diegu beren biotzetan sartu Meza santuaren mamia.

Ez dizkiegu azaldu, Pio XI edo XIIgarre-

nak, Kristau soilen opari santuko parte artutzeaz dauzkaten erakutsi bikañak.

"Apaiz eta beste ziñestun guztiak, Opari agurgarri orrekin batu bear dituzte beren eskeintzak, opari santu, bizi eta Jainkoari atseginkor bezela eskeñiaz".

"Zipriano deunak dio, Jaunaren oparia ez dala bear dan santutasunez eskeñiko, Jesukristoren Pasiokin batera, gure oparia eskeintzen ez ba degu"(1).

"Eta, ez da arritzekoa, Kristau soilak orren garaitasun aundira altxatuak izatea. Uguztaren bitartez, Kristau danak, Jesukristo apaizaren gorputzeko zati bezela egiñak dira eta beren animetan irarritzen dan ikurtonatzen bidez Jaungoikozko gurtzera iskinduak gelditzen dira, Jesukristo beraren apaiztasunetik, bakoitzak bere izakerari egoki zaion bezela parte artuaz"(2).

Badakit, Opari santu onen sustrairano eldutzeko eta Aita Santuaren erakutsiak, bakoitzaren bizitzetara, oso eta egiz eramateko, Jainkoaren lagutasun aundia bear dala eta zoritxarrez, Kristau asko aza lean geldituko lirakela.

Bañan, ez al da egia, ikaskizun oiek beren bizitzaetara eramango luketen ziñestun zintzoak ugari dirala eta oraindik meza santuaren garrantzi aundia igarri ez badute, inork, bear bezela azaldu ez dietelako dala?

Gure errietan diran ainbeste biotz onek, zeinen eginkizun bikaña meza santuan daukaten jakingo ba lute, gure Kristautasunak asko irabaziko luke. Kristau soillek ere, apaiz bezela ez izan arren, opari au nolabait eskeintzen dutela esan liteke ta.

Orrela denak, mezaren Eskeintzara eldu zai egongo lirake, beren otoitz, asmo, eta egite guztiak apaizarekin eta Jesukristorekin batutzeko.

Askotan esan oi da, gizonak eleiz gauzetan, otzak dirala, Bañan oieri esngo nieke, etziraigaz Loyolan eta Arantzazun izan, Gautar-Gurgintzakoak egin zituzten batzarretan.

Ura biotz ikara, millaka gizon aien, su
ta garrez betetako otoltzak entzutean;

Eta... zergatik ain bero, orrenbeste gi-
son? Ez ote zan, an "zerbait" egiteko zirala on-
gi zekitelako?

Leku askotan zorionez, Meza Kristaueri
beaz bezela azaltzen, ederki asiak dira, eta nere
ustez, gaur langillen erakundeak dira, Meza san-
tuaren urtzikolar, sakonkiago sartuta dabiltzanak.

Egin bea Jainko Altsuak, geroz eta obe-
toago azaldu dezagula meza santua, ziñestun bizi-
era guzitan, kristautasun egizko eta usaiduna, a-
gertu dedin.

Goena tar Karlos S. J.

(1) Encycl. "Misericordissimus Redemptor".

(2) Encycl. "Mediator Dei".

ANTZE TA ELERTI

"NUNDIK NORĀ MUSIKA?"

Musika-gai edozeini buruz zerbait edatzeko agindu didate. Erti-alor au gutxi jorratua omen degu-ta. Ta neri egugo eresertiarren egoera gai erakarkorra oti zitzaidan. Zirika zoliak nabaitzen nituan barnean lan oni ekiteko, ta azkenean asierari eman diot. Ez uste arren, lan osca izango dezunik. Batetik ezut iturri askorik arkitu nun edateko, ta bestaldetik egungo eresertia beste erti guzien gisa, se traka nasi baten antzo agertzen zaigu. Ta goazen arira.

Ta lenengoz zer adierazo nai dute erdal dunak "moderno" itzakin? Doixtarrek Schlagwort esaten duten itz oietakoa omen degu au ere, esakuntz egiña alegia. Berez esangura aundi gabeko itze.

Zer da ordea, eresertian, modernoa? Zer ez? Aldiari soilik ote dagokio, edo-ta irispen sakonago ote? Egungo eresertiari izendatzen al zaio moderno? Ola izanik oraingo ereserti guzia modernoa litzake. Onela uste bide du Strawinsky gaurko ereslaritarik bikaiñenak. "Lo moderno, dio, es aquello que es de su tiempo y debe estar a la medida y en la posición de su tiempo". (Ikus "Poética musical" laugarren ikasgaia. Tipología musical, 103 or.) Onen gardiz eresertia gizaldiz zer erantsi dituan tankera guztiak modernuak izan dira beren garaian.

Westphal musikologoari axaleko xamar deritzala iritzi au ta mamiragoño sartu nai du. Onen ustez moderno esakuntzak, ereserti aro bati asiera eman dio. Orain arteko teknika-oñarrien i-

rabiatze-aldatzea egin digun musika-aruari. Menderik mende orain arte jabe ziran ereserti-arau-diak jaurti ta siestu dituan eresertia litzake. Eres-edesti-aldi berri bat. Eresertiaren uler-sentiera-aro berri bat. Renacimiento, Klasiku, Erromantiku-aro aundiak igaro ziran bezelatsu, gaur "Moderno"aroa litzake. Euskeraz "egungo" edo obeto, "berri" itzakin adierazikogenduke, erderaz ere "moderno"aren ordez, "nuevo" erabiltzen dute-ta-

Ta zein litzake aro onen nabari berezitasuna? Westphal'en iritziz ab imis, muiñetatik herrituriko eres-joskera.

Onek esanarekin gogoia bare geldituko? Guztiak ez beintzat. A. Della Corte ta Pannain beren "Historia de la Música"n artean. Ara auek esana:

Ertian joskera, teknika, guztia daiteke, eta deus ez daiteke ere. Guztia da, gogai artistikoa izateratu, kanporatzen duanez. Ezta ezer, erti-lanaren barne gogaiaren izaera adierazteko, atzemateko ez baita naiko. Teknikara jotzen degu lenbizi erti-lan bat ulertzearren. Ezaupide bat da. Ezta ordea dana ezaupide orretan bukatzen. Ezaupide orrenpean dagoana atzi bearra degu. Ezaupide ori sortuarazi, bizi ematen dion anima.

Westphal jauna, zorroztasun aundiz eginik ere, ezaupidean takatzen da aurrera gabe, ezaupideak guztia osatuko bai-lukean. Berarentzat dana otsak jaurtitzen dituzten artu-eman-arauditari asi eta bukatzen da. Teknika-alderdia anatomista baten gisa aztertzen du. Eta egia esan, argi dizdira lilluragarriak jaulki ditu gaurko Armoni-baitan. Baña, gorputz-azterketan gogo betetzen du.

Ereserti berria osorik barruntzeko animari so egin bear diogu. Gorputza bizitzen, suz-pertzen duan animari. Otsak bere naitara sortu, zuzendu, aldatu ta ansten dituan animari.

Askok teknik aldeari begiratuta, ereserti berria Debussy'rekin asten dala diote. Anima alderditik ere berdin esan diteke. Ereserti berria Debussy'rekin asten da. Beraz, zuzen, egungo eresertiaren aita izena ezarri izan zaio.

Labur-labur azalduko dizkitzut gaurko

ertiera guziari bizi ematen dion anima orren berezitasunak, onurakorrago baitzaigu guri ere, bear bada, lenbaitlen gorputzera jo eta bera ikusmiratzerazera.

Egungo eresertiaren estualdia gaurko nortasunaren estualdiarekin batagortzen omen da. Ogeigarren gizaldiko musika, nortasunaren kinka, zalan-tza dezu. Emeretzigarrenge gizaldiko Erromantikuaroa, nortasunaren agiri lirikoan nabaritzen zan. Nortasun ori, ordea, agortu-edo egin bide da.

Nortasunaren ogortzeak, keraren agortzea dakar ondorioz. Kera nortasunaren agiri zolia baita. Eta egungo musika kerarik gabea azaltzen zaigu. Baita batek baño geiagok esan ere ertian ez-tala keraren bearrik, ori ertia errotik ukatzea zala oartzeke.

Erti berriaren beste berezitasun bat: ertilariak berari begira lan egiten du, ez erriari. Erria saiestu, alde batera laga duala diradi. Bere anima, bere izaera, bere axanpa, larri ta kinkekin zertu nai du.

Tamalgarria gaurko ertilariaren egoera. Oscar Esplá/españitar ereslari bikaiñak beltz xamar ikusten zun ereserti-sapaia "Musica" aldizkarian "Función musical y Musica contemporánea" artikuluan. Eresgillæk eztu igarotako, egungo es dan eresgintza-erari itsatsi nai, ta bestetik gaurkoa kerarik gabe, nortasun izpirik gabeko ikusten du. Orregatik, ogeigarren mendean musika-sentimema ain ondatua arkitzen. Ainbeste joera, ainbeste berrikeri.

Goazen orain banan banan gaurko eresertiaren ezaugarri agirienak ikertzera. Bearrezkoa zaigu lenen Claude Debussy munduan argia ikusi duten ereslari aundienetakoari burua zuzentzera.

Verlaine ta Mallarme'k lertian, Manet eta Courbert'k margo-ertian antzo, Debussyk "impresionismo" izendatu duten erti-joera sortu zigun eresertian.

Azal-azaletik aztertuko degu, eta eresertiari ekarri dizkion berezitasun aldetik bakarrik. Debussy'k soiñu-otsa, armoniarengandik jarei utzi du. Eta arkipen onek uartzte berriak zbalduko dizkio ogeigarren gizaldiko ereserti guziari.

Len akorde bakoitza etzan berarentzat. Beti beste baetra jotzen zun,urrungoa ta aurreko-arengandik askatuta etzun esan-gurarik; musika zearka zebillen. Debussy'k otseia indar erakarkor eta erabakor ori alienatu egin die. Akorde bakoitza aske da,berak bakarrik du indar aurrekoari so ein bearrik gabe. Eresertia goitik-berakoa eratu du.

Len nota-malla edo eskala zortzi nota-koa gendun,bost tonu eta bi tonu-erdiekin osotua. Debussy'k sei tonutan zatitzen du maiz,orregatik hexafonica edo sei-tonukoa izena ezarri diote. Len ereskidetasuna edo armonia iruko tartekoekin (Intervalo de tercera) sortzen zan,orain sarri Debussy'k laukoekin eratzen ditu. Ereskaitza len etzun berez baliorik,orain ereskideak aiña lortu du. Sartaldeko eresiera zenbait ere erantsi dizkio gure arteko musikari.

Orain arte ereskikera (modo) garrantzitsuenak aundi ta txiki ziran. Ereserti guzia bi era auetan mamitua agertzen zitzagun. Orain ordea,Debussy'k bere naitara edo barne-giroak eskatzen dionean,eztu diek saiestu ta beste eratako berriak erabiãtzeko ikararik. Len ain jaun ta jabe egiten zan tonu-ereskikeraren erakarkizuna (atracción tonal y modal) bigundu,auldu egin du Debussy'k.

Ballarme'ren olerki batean argiturik garatutako "Prelude a l'apres-midi d'un faune" eresti erdiragarrian eman zion asiera musikaera berri oni. Aitaturiko edesti ori gizaldi ontan sortutakoan balioetsienetakoa omen degu. Orrekarion ezta! mozkorgarria! Debussy' ren edatutakorik ederrena "Pelleas et Melisande"antzerkia dezu.Antzerti edestian garrantzi aparteko degulan au,denaz arri pitxi istatuenaz josia.

Ez uste ordea,joera au berez erne zanik.Debussy gaztetan Errusi aldean izan zitzazun,eta ango musikalari itzaltsuenen eragipen bizia jaso zizun.Batez ere,Cui,Belakireff eta geintsuena Mussorgs-ki'rena.Bestaldetik,Wagner-en eresertiak sakon-sakonean ikutu zion,bere joerak arenarekin moko-z-moko jaio nai ba zun ere.

Eragipen aundia izan zun Debussy'ren musikak. Granados,Albeniz eta Falla aldi aueta-

ko Espāñi'ko ereslaririk erpiñenak bertan jetsi zuten gogotsu. Baita ere gure Aita Donosti'k, baitipat bere lenen aldian, gero beste bide ausardi-agotsetai ekin izan ba die ere. Eta labor esan, ordu-gerozko ersegille geientsuenak Debussy'ren musikaz blei-blei egin dute lan.

"Impresionismo" joerak eman duan ereslaririk gallurrena Maurice Ravel izan da zalan-tzarik gabe. Euskalduna, Zibaure-n jaioa, Faure'n ikasle izana. "Impresionismo"z oretua agertzen ba zaigu ere, alere nortasun bizi ta nabarikoa da. Bai ereskidetasunean, ta bao orkestaratzean ere. Bere "Daphis et Chloe" ta "Ma mère l'Oye" balletak oso entzunak dituzu. "Zazpirak bat" sifonia ere badu.

Joera ontan sartu dezakegu gure Escudero'ren maisu Paul Dukas. Berea da "Sorgin-ikalea" batzuen gardiz aldi ontako Poema sinfonikoetan aipatuenetakoa, ta bikaiñenetakoa.

Beste musikaera bat "Expresionismo" izena eman diotena da. Musika uts-utsaren atzetik dabil au. Eresertia aski omen da bera bakarrik gogo-sentipenak zertzeko ta aske ibilli bear omen du beste ertiengandik, ez kanpoko munduaren, elertiaren morroi. Gañera, ereslariak eres-destia alde batera bota, ordu arteko musikaera guztiak galetsi ta bat-batean datorkiona notetan jarri bear omen du.

Schering doixtarrak erditu zun zorakeri au. Dan-danean iñork jarraitu ezpadio ere, askoeri atsegín izan zaie ur oietan murgildurik egeri-egitea. Ala Scriabine, Busoni, itzaltsuenak jartzeko.

Schönberg XX'gn gizaldiko berezi-apartekoenetakoa, aldi batean musikaera ontatik xurgatu zuan. Baña bai azkar saiestu ere, ta Debussyren eragipen gogorra nabaiturik, aren tonu-banatzeari ekin zion, tonutasunaren ukatzearaño iris-ko. Eta tonugabeko eresertia jaio zan. Musikaren ondabidea askorentzat.

Guk eresi bat entzuten degunean, barnean degun almen batez, soiñu-nota guztiak alkar elkartzera jotzen degu, eresiaren nota guztiak bat-

batekin erkatuaz. Nota orri eresiararen erdiko, jauna jabe bezela agertzen da, ta beste guziak beragatik dute izatea. Noten kidetasun orreri tonotasuna esaten diogu, ta oñarri dan notara tonika. Tonotasun edo noten elkartasun oiek bi eratakoak dira garrantzitsuena: aundia ta txikia. Lenen tonotasun auek egibidez zuzenetsi zituena Giuseppe Zarlino izan zan, XVI-gn gizaldian. Ta orduetik onena tonotasun, edo len esan degun bezela "ereskikera" oietan sendotuak edatu dituzte beren lanak. Orrela eresi bat do aundian edo re txikian esaten degu dagoala, eresiararen nota-oñarria edo tonika do danean, eta tonotasuna edo ereskikera aundia bada. (Ez dagokit orain noiz aundia edo txikia leiken azaltzea).

Orain tonotasun orren gabeko musika egiten jarri zaizkigu. Atonalismo esaten dute ereserteri ori. Guk tonugabekoa itzakin adieraziko degu. Ereserteri au zuzen egosteko ezikuntza bereziaren bearra dezu, mami-mamin itsatsia baitaukagu-ala aziak izan geranez- len aitatu tonu-joera ori. Oso gauza eder eta entzungarriak mamitu dizkigute tonugabeko eran. Aipaturiko Schönberg ez- ezik beszenbaitek ere erabili dute era au: Honegger, Erik Satie, Roussel, Milhaud prantzitarak, Hindemith, Webern, Egk doixtarak, Respighi italiarrak, Bela Bartok eta Zoltan Kodaly magiarrak. Denak ereserterien lenen-mallan dabilzanak, ereserteriera au erabilliarren bakoitzak bere nortasun nabaria dutenak eta azkenengo biak beren ereserteria erri-erriko iturrietan jetsitakoak. Aita Donostik ere onelako pindar batzuk jaurtizzen ditu bere azkenengo musiketan.

Tonugabeko ereserteriera au politonalismoa dalakoakin ere lotu dezakegu. Politalismoa, edo tonu askotakoa, eres-zati bat batean zenbait tonotasunetan gantzutua dagonen da. Eragipen apartekoa sortzen du biotzean ondo erabiltzen danean. Egon Wellern (Viena 'n 1885) atsegiñekoa da era au. Escudero "Arantzazu" Poema sinfonikoan ere olako izpiak arkitu ditzazkegu.

Azkenen Schönberg' k beste era bat dabil: dodekafonismo edo amabi tonuzkoa. Onek aita, Joseph Hauer du, Viena 'n 1883'an lenengo aldiz argia ikusitakoa. Oñarritzat eskalako amabi nota-

erdiak artzen dira. Saldo batzutan nai bezela eraztu, ta gero naiz zearka naiz goi-beraka aldatu, irauli ta nastu. Bai zertzelada ederra aterako! Orrela daude Schönberg'en pianorako bost ereski, pianorako suite ta abar. Albam Berg bere ikaslea oratn gogo-bete ibilli zaizu. Baña era au dan bezela oso-osorik erabiltzen danean ezperen, iguin garri dirudi. Ta Oscar Espla'k len aitatu artikolan ondo inharrosten du. Ia berdin litzake au: artu ume batek zenbait margo ta plasta-plasta igurtzi orma batean. Zer aterako? Onenan Chef d'oeuvre'en bat .

Beste teknika-berrikeri edo tasun--zer esango- batzuek ere ikusi ditugu. Orain arteko eskala tonu ta tonu erdiak osotzen zuten. Luidwige Haba'k (1893, Checoslovaquia) tonu laurdenekoa atera digu. Musika asko garatu du orrela ta ori emateko piano berezi bat egiñarazi.

Ezin lan burutu beste ereslari bat aipatu ezik. Schönberg'ekin gaurko ereslaririk apartekoena: Stravinsky. Musika-mundu bere-bere bat sortu digu. Itz egin al leike Stravinsky'ren musikatzaz oroki? Stravinsky'ren tankerarik eztagola esan oi da. Etzun armoniarik ikasi izan nai. Bein, batzar batean "eresgille ospetsu" izena eman ziotenan, berak au esan: "Ni enauk eresgillea, eres-idorotzalle bat baizik". Gure mendeko axanpa, larria, kezka daramazki beste gaurko ereslarien buru. Urduri, ezta inon bare geldi. Lan batetik bestera, beltzetik zurira aiñako ezberdin agertzen da. Batzutan arkaiko aintsiñausai lilluragarritz, bestetan orain azken-aldiko era guzti giroz jantzita, danetik danera dioa. Ogeigarren gizaldiko musikaren kinka gizarazten du, beste inork baño obeto, egokiago. Baitipat bere ritmotan -Afrika ta Ameriketatik jasotako "jazz" eta poliritmia- aundi, ezin-esan zaigu.


Margo-ertian cubista-era dalakoari erkatua izan da Stravinsky eresertian. Bereak dituzu: Petrushka, Le Sacre du Printemps, Les noces, Eresi-sinfonia, ta abar. Meza bat ere bai.

Ta bukatu egin bearko. Barka azaldu litekean -lan baterako geiegi, eta bear nuan oro esan ez badet. Eztakit ereserti berrian asia

zeranentz. Gauza aipagarri-onak egin dira beintzat.
Eta gure XX'gn.gizaldiko mundu onen agiri ta ix-
pillu garbia izan nai du.

Iturria'tar Joxe.(o.f.m.)

Arantzazu'ko teologilaria.



OLERKI MUSA

Zatoz neregana,
Olerki Musa,
Zatoz, ta laztandu nazazu
Ezkongai gisa.
Zurekin batera,
Olerki Musa,
Zurekin batera, bai,
Egiten ditudala
Lanak
Arro ta lasai.

Eztut bildurrik
-Biotz gaxoen seme bildurra-
Zurekin bat
Lan dagidan
Guztiten.

Olerki Musa
Ta etorria izan
-Noiztikan?-
-Ez jakin-
Olerkariakin
Ezkontzen diran
Eder ezkongai.

Etorriaren besotik
Laztan bezela eldurik,
Ta Olerki Musaren
Muiñ goxoaren
-Zeruko ezti xoremen-
Dardarpean,
Bai pozik, ta irripar
Biotza sugar,
Sentitzen naizela
Nere ezkongaiaren
Senar.

Olerki zelaiak
Erregin badute,
Ezkongai ta gazte,
Baratz ortara jo degunok
dakigu
Erregiñ orren
Bizi eredu.

Ikusgaitza da,
Ikusgaitza,
Ta lo dagianean
Badirudi
Aitzkorriko arkaitza.

Ez ordun asperrik
Deadarrrik egin.

Igetargiak parre egingo dizu,
Burla ta iruzur
Inguruetako
Iendi ta gallur.

La degianean

~~-arren-~~

Utzi pakean,
Norbaitekin
Izango baita,
Ordun ere,
Amets goxotan.

Olerkariok dakigu,
Biotzean sentitzen baldegu,
Olerki Musaren
Bizi eredu.

Bere billa joaten geranean,
Sarritan,
Bere gorputz poxpoliñ
Ezkutatzen du,
Ta ezin
Dezakegu
Gorputz arimen begiakin
Berarekin
Alkartu.

Ta nork ezer esango?
Olerkariok dakigu
Olerki Musaren
Bizi eredu.

Alperrik ordun
Zeruetako izar gaxoei
Argia eskatu.
Lirñir ta kettu
~~-Zorion gaigaria-~~
dzetz esango disate
Parre ta algaraz.

Itxasoaren zabal ederrak
Irri egingo dizu,
Ta bere aunditasunarekin
Burla burlaka
Aspertu.

Lora goiztarrak
-Anai dituzte
Zeru izarrak-
Ez dizute emango
Ederrik,
Ez perfume.

Ta txori guztiak,
Beste alditan
Txio-txioka jolastiak,
Mututu egingo
Zaizkitzu...

Olerkariok dakigu
Olerki Musaren
Bizi eredu.
Lo dagianean,
Edo gurekin
Oztopo egin
Ez nai dunean,
Alperrik dela
Bere billa
Izerditan
Lan egitea,
Buru austean.

Oi Olerki Musaren
Kapritxo ta naikerien
Aize xoramen!

Ta gutxien ustean,
Olerkaria lotan,
Arazo lanetan,
Egaaka datorkizula
Ta goiztar bailitza
Lore mardule,
Mufi dagizula
Ezpañ berotan.

Zeruko argitan
Koroaturik datorkizu,
Ta mufi dagizu,
-Olerki Musaren musu-
Ta bereala
Alde egiten dizu.

Biotz garrari
Eutsi ezirik
Zutitzen gera
Olerkari gaixoak,
Ta Olerki Musaren berri
Irauli nai izaten degu
-Sarritan alperrik-
Musu aren
Oroigarri.

Kapritxoak dituztela, gero,
Kapritxoak,
Olerki Musaren
Mufi beroak.


Aldegin dagianean,
Etorriaren beso laztanetan,
Otz gertatzen gerra
Ta irauli degun olerkiak
Mufi aren antzik ez dula
Esaten degu
Triste ta penaz...

...Beraz, beraz,
Nork lerrotan jarri
Olerki Musaren
laztanen berri?

Sabin Berasaluze

Arantzazu

1957



AMA-SEMEAK...

Epallaren amaseian A-
rantzazu'n apaizgoa ar-
tu zuten euskal gazteei.

Barne-giroak Arantzazu'ra,
euskaltasunak iturburura
narama egoz...
seme pirpiraz, Ama laztana,
zure oinpan gertatzen dana
ikusi gogoz.

Jostari zakust, zarkoi Aliña,
egun baitzaizu kilima oña
erromes taldez:
Gazte zerrenda gutxitakoaz,
"Kristotasunaz", ots, apaizgoaz
kili-amatsez.

Arantzazu'ko Amarez babes,
jomuga irritsez orok erromes...
Oi gaztedia!
Al banizueke eskuz ikutu,
ikusi begiz, indar estutu
biotz txindia!

Dardar urtika gaur "Arantzazu",
gazte lurruna naro daukazu,
jeiki txairoan.
Baita-zirrara ziztagarria,
gazte-batasun, pake-sukia,
kolko beroan.

Arantzazu'tik Euskalerrira,
argi albañi, izpi dizdira
dario egun.
So egizute, Aitzgorri mendi
ibar ta zelai, baso ta gaindi...
Ikus euskaldun:

Eliz barruan, otxanki,
maite jarior laztanki
gazte sorta bat otoitz beroan...
Amaren babes izaki,
nork dezake gaur biozti-sua
seme jarduna sumaki?

Auzpezki orra, burua
esku artean lotua.
Gogo aleaz ixil ausnarka
laguntzat Ama gozua;
barne ziniko asegarrizat
Jesusño aldaretua...

Apaiangoaren joranez
zeru giltzaen minleiez,
Aloña'ratu dira erromes
-euskal bizi diranez-
bizitz gordiña txertatu naiez
Jaingo Amarez amasez.

Iñigo Loyola'kua
-gaindegirako autua-
emen izan da, gau-bijilian
bizitz berrira sartua,
jaulki zunean: "Ni izango naiz, ni
erri santuren santua".

Ama onekin zun mintza,
damu ta garbi-eskeintza
eta Arantzazu'n, euskaldun baitzan,
asi deuntasun lugintza.

Ordutik degu gure Iñigo
"Argi" onexen len-printza...

Iñigo kide zakustet, gazte,
xurgatuz zeru-lurrintza,
Amaren esku, apal utziaz
gerokoaren argintza:

Seneak: Arantzazu'ko Ama,
"Seme nazu" eta
errones natorkizu
intziriz beteta.
Gaztarotikan dizut
maitemin, leiketa;
ezti deritzait, zeru
zurekin izketa.
Entzun zaidazu baldin
ba-dezu arbeta.

Amak: Gazteño, "Amašemeak" gera,
Atoz, Amaren besarka artzera...
Torizu opai,
maitasun gordai,
nere biotza, gaztetzaren-kai.

Seneak: Arantzazu'ra nator
errones, bidari,
esker pozgarri baten
zale ta eskari.
Ene biotzak negar
ta malkoa dari...
Ama, gaurtik ez naiz ba
Jesus'en Jaupari!
Zaitetz bizitza zear
neretzat gidari...

Amak: Elukoi lili apaiz lanean,
argi dirdaitsu mundu barnean;
ori zaitteke

-bear zenduke-
nere laguntzaz, indar ta neke.

Semeak: Jaupatza bidez nazu
munduko argia;
ongi dakust bidea
elorriz josia...
Zuk ere aulki dezu
arantz-elorria,
Jesus'ek berriz oe
Gurutz ta zauria...
"Indazu, Ama, bular,
ausardi etsia".

Amak: Zuek zerate munduko gatzak,
zuen lanketa ortantxe datza.
Jaupari zera,
Kristo antzera;
danen ixpillu, jarrai aukera.

Semeak: "Zure ta nere Euskalerria,
nekalkide emen daukazu...
Anaiak ditut. Ni izango naiz, ni
erri santu onen santu...
Berak ezin dun Ermitagintza
neronek naidet osatu" (1)
Ama, banao, lagun zaidazu,
barne saminak gozatu.
Torizu, Ama, Jaupaltza eta...
Agur...! Onetsi nazazu!


Amak: Neroni nazu lagun ta kide
Jesus Jainkoa etxe-bizkide.
Zozaz, semea,
gordin zaita...
Ara Arantzazu'n, Ama zurea...

Jaupari gazte, bedi zuengan
Ama-oroipen sutua;
apaiz lanari lotu biotza,
zuzendu, jaso mundua.
Mamitu gaurko "ni izango naiz, ni
erri santuren santua"...
Iñigo dezu jardun orretxen
eredu jator, landua;
berak asi dun "Ermitagintzan"
ba-dezu, gazte, lekua.

Joxe-Agustin, Pasiotarra

I-go urteko teologilaria

(1) ARANTZAZU EUSKAL POEMA, 160 or.



SAGRARIO - OÑETAN...

I

Arrats dirditsu, amesti batez,
maiteki ire ondora
urbildu niñun... Biotza su-gar!...
Zenbait oroi kutun gogora!!...
Iskanbil-zaratak bareturik,
ixil... lo ezti eitera
aiñ xamur... eztiki gertutu ni...
ire biotz-muin xoillera!!...

II

Eguzki-dirdirak laztan gozoz
Jexus ire lo-kabia
miazten zien goiko leiotik...
urratuz illunaldia...!!
arrats-gorri bare aren gear,
aiñ ixil... aiñ bakar...baño,
zer uan mar-mar otoi xoillean
esaten... kutun eneño?...

III

Argitxo bat aldare alboan
poil-poilki kutun-otoiean
Jexus'ekin jardun eztin... zegon...
marmario ixillean!!...
Bañan... ots... ots... nun dituk ba ire
maite-mindak... kutunak,
ire biotzak barne-zauzkada
gozoan maita oi ditunak?...

IV

A! Oben latz, astun, berdin-gabe!!
Zeruen jabe
txiro... bakarti...billotsik,,zegok!
Jexus txit nere!!
Irten biotz kabitik maite-gar,
ase egarri
beregari maitekiro edanez
odol-edari...

V

Jexus barne-muñda errukiz ler
zaidak i bakar ikuski.
Ire maite txinpart-gar nork uler!..
Ire taupadak nork senti!!...
Or akuts ixilki muxioka,
barnea otoika ixuri
naiaz. Geiago!... ir'odol-aragi
biurtzen nere goi-bizi!...

VI


Bañan... Jexus ainbat negar-zotin
nola sagrarioan darik,
maitasun-minugarretan ire
alboan ni ikusirik?...
-Ai! Adixkide kutun-maiteño,
agian oar ez dek ik
oben beltzean nigandik urrun
dabiltzela gizon izutik?!...

VII

Jexus'ek dasait:
"Aixkide maite
erruki nazak
ik beintzat".
-Maite-katez loturik biotze
xeilki ire min-zauriak

xamurkiro miazten, benetan
gau t'egunegon nai diat.
Jexus laztana!...
oroi biguñia!...
Ar nere otoi
ixilduna...!!

Muxika'tar Luis Mari Anaia
Villaro'ko Sakramentinoa



EURIA

Begira nago.
Gorputz eroriak kizkurtzera aler;
Gogoak nazka ta egiñaren alke.
Gogoak arrauri... Zerbaiten zera ote?...
...-Bi begiak zabal begiratzen nago
euri mardulari. Euria bai naro!-

Amaika bulho, dena nasian
Dena batera... Bulkoak nigan.
Ortzea bultza. Motela, lantxerrez giro.
Arkaitz zugaitezak euri-jario.
Etengabeko zurrut izadik.
Ta auxe daukat nik:
Bere izkutua "ni" bihurtarik.
Izkutu-zunda...

Pataaltasuna, erori naia,
Txoro det ames-aria;
Baño atsegin. Eten eziña.
Dena batera,
Dena batera.

Sorginpikoeta.

Arantzazu, 1957, 111, 6

ARGITAN

Egun bat zan.
Nere izatearen egun bat.
Argitan negon;
egun artako argitan,aidetan...
...ezer ez dan egunean.

Bizitz zarata beti bezela:
Bazebiltzan gizonak,
Abere egazti jarduna,
Ari zan izadia...
- Egun artan
Goikoak ikutu nindun
Egun artan.-

Ni artean txiki
Argitan,ez-kezkaz,ez-ateri.
Txikitako aide ta argitan.

* * *

Aldia ezerreztu da.
An nago -gizon- ez-kezkaz ez-ateri
~~asi-es~~ agunari so. Autatu nindun.

Orain gizon,orain apaiz:
Ixillaren ederrak nigan
Azkenik-ezaren naia
Labaintzen du.

Sorginpikoeta.
Arantzazu'n.

ELURRAK MIN...!

Erdalckeriz izor-odeiek mendiak ditu
Pozoiz kutsutu;
Mendi-erpiñak, aran loriak
Ur galduz loitu.

Neguz, elurrak oial zuriz
Estali ditu,
Elur lodiak, mendi ta aran
Oro guritu.

Mara-mara, jausi ta jausi,
Oro biribilduz,
Maluta zuriz erdalckeriak
Zearo zanpatuz.

Goikoak zitun erpin t'aran
Erdalckeritik euskaldu,
Aroak zear Bereak bere
Gorde izan nai bai-ditu.

Elurrak meetuz, gallurrak arinduz
Ibaiak dira loditu;
Mendi-izerdia, mingotsa bai litz,
Erdal-kutsuz da errekaratu.


Ibaiak, erdalckeriz izor,
Bitez lurperatu.
Pozoidun ur ok ez bitez
Euskal-itxasoratu;
Odeiak berriro
Ez gaitzan erdaldu.

Elur urtze egun otan
Mendiai negar lodia dario:
-"Negarra...poz-negarra
Dala ezin uka..." ,dio.

Ez bait-zuten mendiak nai
Beren erraiak pozoiz kutsatu...
Ezta gure mendi-biotzak
Kanpotiko odoletan loitu.

Zein zaitugun aundi, Jauna,
sortu guzietan!
Zein aberats, Euskalerra,
zure mendietan!
Gorde beza, Jaunak,
bere izakeran!

"Egur-Bide"



-145-

SASKI-NASKI

AMAREN MAITASUNA

TA

UMEAREN EZIKERA

Amaren oro ordezeko bate maitasunik gage azi izan diran umeen ezikerak utsune aundia darama. Utsune onek emango ditu bere garaien dagozkion aleak. Gure "Seaska-Etxe"-etako surtegiak damaizkigukete adibideak ugari. Ona bat.

Patxi B. bi urteko umea da. Ama neskar, bere gorputza edonori saltzen dion emakume moralgabea. Patxi irugarren sasikoa du. Arobost bat illabete betetzean berekin darama umea. Garai ontan ez daki ibiltzen. Gero, bi urte egitean "ama" beste itzik mintza ezin du. Biberoria bearrean dago. Amak ez dio arretik. Beti goibel, beti illun, beti buru-zalatzaka, irriparririk ez.

Amak maitasunik ez diola agertzen-dagoita amabost urteko emakume baten ardurapean jartzen dute. Onek semetzat artzen du ta mimoz ta arretaz inguratzen. Iru illabetera joaten gatzazkio ikustalditxo bat egiteko asmoz, eta berak irikitzen digu atea; berak jostallutza aundi bat erakutsiz: "Au dana nerea da". Arrerako betebearrak egiten erakutsi di. Bete. egin ere poliki dagizki. Zoragarria dago. Iru illabetetan kidekoen mallara igo da.

Patxi amaordezko on bat arkitu zun. Orrek bete lenengo bi urteetako utsunea. Zorion ori egokitu ez balitzaio bere adimen erakerak bateraz edo ezer gitxi aurreratuko zukean. Zea-ro zozoturik gelditzeko arrisku aundian daude amaren edo ordezeko on baten maitasun eta arreta-

rik gabe azi diran umeak.

datzi ditudan epurrak TELDMANN Jaunak gai oni buruz Ginebran eman zun eleka bildu ditudan ezkerok, badezko deritzait elekatzaille berak abaiak eman jartzea:

"Amaren maitasunik ezak umearen adimeran geiberarik sortu ez dezan, bearrezko bi arau auok betetzea:

a) Lenengo ez dedilla ama umearengandik alden du. Bugurre, maite ta zaindu dezan eta bear duau eskeirtasuna eman dezaion. Umeari arretik ez dion ama leyatsu batek errez sortuko ditu aren adimen eraieran garrantzi aundiko goiberak, batez ere bere buruarekiko eskiergabetasun negargarri bat.

b) Bigarren indartu umearen "ni"-a, nortasuna, gurasoen aldetik, amarenatik batez ere, amai gabe azaltzenaizaion atsegiñarekin. Gelegikeririk gabe bano, umeari adierazi egin bear zailo bere aurrerapenak gurasoei ematen dien atsegin eta poza".

Ayestaran-dar Xabin (ofm)

(Arantzazu-ko Teologari)



EBERKERA

EREDU...

Onurakor derizkiot ebertarrek bere izkuntz zaarraren lantzeari nola ekin dioten jakinaraztea. Eredu bikaina euskaldunontzat: Bi mila urte zear ludian barreiatuak bizi izan diren ebertarrak, egun -arrigarri bai!- beren arabascen aberrian tinkotuta dakuskigu. Aberri txikia, baino aberri. Txoriak naiago beti bere kabi txiki ta txiroa, kaiola aundi ta ederrena baino. Argi dager lurrak soilik aberria sortzen ezteuena, ez eta gorputz-odolak, gogoak baizik. Ebertarrak naiz-ta ludian barrena ostikopean sakabanaturak ibilli bear izan, zoria surkeztu zaienean aisa altxa dute beren ametsetako aberria. Naiz-ta barreiatuak ibilli izan aberri bat zeguten munduan; gogo bat zuten lokarri, amets bat, jomuga bat, onaze bat. Gogo-lotura onak eutsi die batasun arrigarrienean gizaldien zear.

Buruz jokatu dira aberri-aldiztatze ontan. Izkuntza -Kristok orain bi mila urte mintzo izkuntza- dagokion maillan ezarri dute. Esanik ez aberri-izkuntz bezela artu ta agindu dutena. Iepesalen-go eskola ta kaleetan, egun bi mila urte bezela, eberkera entzuten da. Aldizkariak, egunkariak, erratiak, ta egungo bizikeraren azalpen guziak eberkera dute bide bakarra.

Eztute alere lan makala izan eberkera "berritze" edo "egokitze" ontan. Eberkera aspaldidanik ildako izkera zenun. Ondorioz, aurrerapen ta kultur-mailla guzietatik at egonik. Berpiztu bearrean arkitu izan dira, ta egungo jokabidetakako "egokitu" bearrean bates ero. Ze bidetatik jo moldatze arlo ontan ?

Ebertarrek jakin dakizutenez, ludiko bazter guzietatik bildu dira Israel errian. Ingelesak, italiarrak, errusitarrek, doixtarrek, bakoitza bere oitura, gogo-grina, eta izkerakin. Sartaldeak gizaldien zear ebertain izaerari erantsitako kera berezi ori ezin batbatean erauzi beren baitatik. Are gutxiago europeitar izkuntzetan edandako kultur-giroa. Naiz-ta guziak bein an ezarritu ezker eberkeraz jabetu izan bear, bakoitzak bere errialdeko kutsua damaio. Nola ainbeste joera ta kutsu bide-bateratu?

Bi bide aukera dituzte auzi naastu onen ebakitzeko. Bata mordoillozko eberkera, ta garbi-zalea bestea, arrotz-orbanik gabekoa. Egunkarietan-eta biak naasian darabilzkite. Kultur eta teknika-itzak geienik europeitar errotikoak dituzu, baiño beti-beti europeitar itz orren aldamenen eberkera garbikoa edo ebertain sustraikoa arkituko dezu. Aspalditxotik eduturik duten ebertain iztegia ere berdin jokatu zaizkitzu. Ikusagun ebertain-iztegiako edozein itz: Biblioteka, adibidez: ספרייה (bet sefarim); library, bibliothéque, bibliothek, biblioteca t.b.).

Aldizkarietan eta egunkarietan ere berdin-berdin dagizuteke. Idazlan barruan ingelerazko itz aunitz naastuko dizkitzute baiño ez ondoan edo nota txi batean eberkerazkoa jarri gabe. Onela arian-arian begi-belarrietatik, asmaberri itz oiek bizitza artzen ari dira ta ezpainetara labantzen. Neke aundirik gabe eberkera sartzen-sartzen ari da eta egungo bizikeraren edozein arazoetarako gai egiten. Batasuna ere onelaxe datorkio izkerari.

Gutako batek YAKIN aldizkariako idazlan baten ondoren ERABILLI-ITZAK ikusi zualako muzin egin zuan, onela esanka: "Ori ere euskerari gerta bearrekoa ! Egingo nitek mundu guzian euskerak bakar-bakarrik egiten ditula olakoak. Noski, itz-asmutzen ari zerate ta, esanaia ere ezarri egin bear. Etzirudidak itxurazko gauza!". Eztenkada eman zidaten itz ok, baiño urruno egunean ebertainak berdin jokatzen zirala jakin nuenean, ta ez gainera jakintz-aldizkarietan, egunkarietan ere bai, bereak eta bost artu bear zituala ta,

auxen dut lantxo onen xede, iztun orreri jipoi bat eman!

Askotan izan ere, gauzak bear luketen eran ikusi nai genituzke. Izkuntz-arlo ontan, euskera beste izkuntzen maillan edo beste izkuntzekin erkatu nai genduke, baiño berez dager onela dakusanaren itsukeri edo miopekeria. Iku-sagun euskera dagoan eran eta eritzi oker asko aldaturen ditugu agiz. Euskera batasun arloan ere askotan berbera gerta oi da. Baita euskera lantze arloan ere.

Batek euskera-euskera bear degula, irentsi ez gaitzaten: bestak berriz, euskera erailtzen ari gerala lantze-joera onekin. Onek erriarentzat bakarrik idatzi bear dala ta euskera errexean noski; arek euskera garbienean egin dala, bestela euskera ikullu ta sukalde gaietarako tresna besterik eztala izango-ta. Bate biduala euskerak sustrai-aberastasun aski bere baitatik kultura edatzeko. Besteak kultura orokar danez gerkerak bidetik doala ta aberkeri itsuegia litzakela euskeraren sustraietatik millaka itz-berri asmatzen astea. Nori jaramon egin?

Biek dute zalantzarik gabe bere egiapurra. Egi da batetik, oraingokoari begira bear zaiona. Zer irabaziko genduke etorkizunerako euskera lantzen lertzea, onek bizi-mailetatik aldegin badigu? Auei, noski, euskera xeetuan egin bearko zaie, eta euskera landua arian-arian eman, aspertu ta goaitu ez ditezen eta irakurtzea nekeegia gerta ez dedin. Ez al da bidezko ta senezko naiz idatzietan naiz egunkarietan itzberien ondoan itz arrunta edo erdera-itza jartzea? Bidezko ere da mota guzietako aldizkari, idazti ta zernai euskera errikoian azaltzea, inor jipoiu gabe.

Gerokoari ere begira bear zaio. Giza-kondairak jira-bira asko eman oi ditu-ta... Be-arrezko da euskera lantzea, jakin-gai guzietara egokitzea. Kulturadun euskaldunak zer dala-ta beste edo arrotz larretara jo bear? Inoiz gainera eskolak eta unibersidadeak jasoko badira bearezko zaigu gauzak garaiz gertzea.

Bi gauz lortu bear ditugu arazo-mota ontan, biak oso bearrezkoak: lena euskerak erri-erriaren izkuntz bezela irauñ dezala, ots ez dezala eritzi noizpait erri xeak euskera aberats eta jakitunen izkuntz danik; bigarren aberats eta jakin-jendeak ez dezala euskera erri-xearen izkeratzat jo eta arrunten gauz bezela gutxietsi. Ontarako bi euskera motak dira oraingoz beintzat zein baiño zein bearrezkoagoak. Gaur edo biar biak baturen dira ziur-ziurki, batez ere egunkariak eta erratiak eta bestelako egungo jokabideak euskeraren bitartez diardutenean.

Gerkerak bidetik edo euskera-uts bidetik jo bear duan? Zergatik ariate ertzetatik eldu bear au? Geienik erditik joan oi da egia. Berdin ere deritzait arlo ontan. Jainkoari eskerrak joan ere ontara dijoala derizkiot oker ezpanaiz. Bi joera ditugu euskera-lantze arlo ontan: biak etekingarriak. Batak baliteke ertsiegi jokatzea euskera garbizale alderditik. Baita besteak ere arrotz alderditik. Biak dituzte beren arrazoiak, eta ez nolanaikoak. Aurrenekoak euskera "esperanto" bat edo gerta dedin bildur. Bestea euskera izkuntz "extranbotikuren" bat gerta dedin bildur. Zenbait erriak garbitasun-uts aldetik ebaki dute auzi au, eta eztira ez il ez atzera gelditu. Besteak berriz bestetik. Guk nondik? Erdetik uste. Krutwig jaunak nere ustez ba-zuan bere arrazoiak. Euskaldun etzanez buru utsez jokatzen zan. Gu berriz euskaldun izan ta buru-biotzekin jokatzen degu. Ondo atereak dauden itzak, zergatik ez zabaldu, ez erabilli, ez jardun? Jakin-gaietan nork ezta "elerti" ereserti" ta era ontako amaika itz zabalduak onartuko? Zergatik eta beste batek bestela ezinda "sexuala" "soziala" trigonometrikua" t.b. oek bezelako itz-kerak erabiltzen baditu muziñ egin?

Erokeria, alperrikakoa ta kaltegarri derizkiot ba alkar-muturka ariate antzo ibiltzea. Ez dut auzia ebaki detanikan esaten -enuan asmorik ere- baiño gauzak luzaroagoko ikusita beste tankera bat artzen dute. Idatzi ugari eta berez datorkieke euskerari batasuna, egokitasuna, ta zernaitarako trebetasuna.


Baten batek esanaik digu YAKIN aldizkariak ORIXE jaunaren kutsua daramala. Ezteguna euskeraz geren nortasuna agertzen. Egiñiko molde batzuetan edo esitzen gerala. Baliteke nor orrek arrazoi puska bat izatea. Guk ote degu erru guztia? Idaz-tankera, idaz-nortasuna edo estiloa irakurtzeak sortu oi du geienik kerari dagokionez beintzat. Zer irakurri al izan degu guk gazteok Orixe, Zaitegi ta joera ontako beste zenbaiten idaztiak baino? Idazti oiek beren kutsapenez igurtzi edo ikutu izan bagaituzte, gurea ote errua? Idatzi beza beste aibeste onela epaizten gaitunak eta atsegiñez murgilduko gera bere idaztietan. Kutsatu gaitzala orrela dionak.

Onetxek ebakiko lituzke orrelako arazotxo asko. Besteen indarrak desegin bearrean obe lukete batzuk zertxobait geiago egin!

Ona ba eredu ederra eman ebetarrek. Gu baino bi geiago izan dituzte berenekoa altxatzeko, baino baita egundoko oztopoarriak ere. Gaindu dituzte geienik oztopo denak. Iraupen eta kemen arrigarrienaz ordea. Bi milla urte ez lur ez aldekorik egon diralarik, begira zertara iritxi diran!

Bastarrika tar Iñaki

Arantzazu o.f.m.



EUSKAL

FILOSOFIA TANTOKA

Ba-dago ala, euskal-filosofiarik? Ez eta bai. Jakintza bezela artu ezkerok ez. Baña bada beste filosofi bat ere: jatorrizkoa, alegia. Eta ori bai, ba-dago euskeraz ere. Euskaldunek ere ba-dute beren adimena, eta gauzen zergaitia eta nundia miatzeko sena ere bai. Filosofariek bezela ez dituzte landu beren usteak. Orrenbeste gabe asetzen zan aien adimena. Baña gauzak eta auen nundiak adierazten zituzten beren kerara. Gauzen azken zergaitia ezin asmatu zutenean beste munduko egille bati egozten zioten. Adimenak ezin zezakeana fedeak osatzen zien; baña ezin egon zitezkean gauzak zergaitztu gabe. Orrela sortu dimitoak eta sinisteak; eta auek dira erri guztietan filosofiaren kondairaurrea.

Ez nai z emen asiko euskal-mito ta siniste oiek miatzen; euskaldunek zituzten filosofi-ideak nola adierazten zituzten baizik. Etekin aundia ekarri baidezaiguke idea auetan sakontzeak, filosofi-iztegi bat nola eratu jakiteko. Emen kausa-efekto nozioa euskaldunek nola adierazi duten ikusi nai nuke.

Jakitun ez baidira, argi ta garbi bereziturik ez baña gauza xeetan banaturik emango dizkigute idea oiek. Adibidez: ez digu erriak esango zer dan gizatasuna, zerau esango digu bai-

zik: gizona' beteti bestera, ibiltzen dala, azi egiten dala, itzegiten duala, parre egiten duala, et... Gero jakitunak' zer ba-dan eta zer ez dan ikusi, eta gizonaren zertzeza edo definizioa emango digu.

Kausa ta efekto ideakin ere berdin. Eguneroko esakeratan zeazturik daude. Ona eguneroko gertakizun bat, guztiok ikusi eta bizi duguna:

- Pellori ez diote batere atsegiñik ematen eskolako liburuak, naiago du txori billa joan mendira. Atsalde ederra dago; piper egin eta ez du eskolara joan nai.

Baña zera gogoratzen zaio: piper egin zuan beste batean' aitak jakin, eta berebiziko jipoia eman ziola, eta igandean dirurik ez, eta eskolako zinera joateko txartelik ere ez, eta b... Eta zera pentsatzen du: orduan ori gertatu zitzaion EZKERO, maixua beti berari begira egoten dala-TA, mokoluzeak beti izaten BAIdira, oraingoan ere aitak jakin dezakela KO, eta igandeko dirua ez galtzea GATI, eta zinerako txartela eukitze ARREN.... joan egiten da eskolara.

Ikusi dugu: Pelloren naimena etzan gai berez eskolara joateko, eta gaiezatasun ori' aitarenen bildurrak-eta kendu diote. Orixe da, ba, kausa ta efekto izatea. Kausak' (aitaren bildurrak-eta) bere indarrez eragin (indar egin dute motikoaren naimenagan) eta zertzeko gai etzana (eskolara joateko ainbat indar etzeukan Pelloren naimena) zertu egiten du (eta Pello' eskolara joaten da).

Ori' eguneroko gertaera batean ematen diran kausak aditzera emateko. Elatz aundiz jarri dizkizudan izki oien bidez adierazten du euskerak kausa-idea. Baña oiek' ez dira guztiak, ezta gutxi-go ere. Miatu ditzagun idea oiekiko esakun geiago:

-TA : Eguzkia ez da ikusten lañotu egin du-TA.
BAI- : Pozik dago Pello jokua irabazi BAIdu.
-KO : Gaxorik zegolako ez da etorri-
BIDE : Anaiaren eriotza dala BIDE aitaren etxera joan da.

EZKERO: Ikusi duzun EZKERO esaidazu nolakoa zan.
-N, -TZAT: Txintxo dabi Joxe amak dirua eman dezaio (dezaion TZAT).

- ARREN : Edozer emango luke orrek etxera joateA-
RREN.
- GATIK : AitaGATIK da ain urrutitik.
- ERA- : Naigabeak ERASan dio orrelako astakeria.
- IRA- : Anaiak IRAGarri dio etsaiaren asmo txar-
ra.
- RA- : Illunak etxeRatu du.
- ARAZI : Bildurrak esan ARAZI dio.
- KARI : Zer KARIaz egin zuan ori?

Ba dira geiago ere noski, baña naikoa izango ditugula uste dut nere asmorako. Ikusi duzunez ez dira bata bestearen berdin orko esatera oiek. Baña adimena piska bat txorrostu ezkeren atzi genezake alako zera berdin bat guztietan. Daretan arkitzen dugu "nolabaiteko GABETASUN bat". Lenengo zerbaiten GABE daude; gero beste batek kentzen die GABETASUN ori, eta ZERBAIT BERRITAN biurtzen dirala esan genezake: DUN egiten dira.

Lenengo adibidean, esate baterako: Lenengo, eguzkia laño GABE dago; ekartzen du aizeak lañoa, eta lañoDUN egiten du eguzkia, eta aldaketa orregatik ez da ikusten. Orra, ba, aizeak bere eragitez lañoGABETASUNA kendu, eta eguzkia estali du.

Au ez da ikurkizun oiek atxurtzen eta sakontzen asteko tokia. Batezere ezertarakotasun edo praktiko aldetik begiratu nai nioko emen. Besteak utzi, ba, eta "ARAZI" ta "-GAIPI", oiek jorratu nai nituzke.

Kausa ta efektoren arteko artuemand edo kausatze ori adierazteko apanteko kitza da "ARAZI": guztiz egokia, eta uste bano zeatz-gabe-agoa edo abstraktoagoa. "ARAZI" itza miatzen asi bagaituz, iru osaki arkituren ditugu. "ARAZI" da gon guztietan ba-dago ARAZTEN duan bat, eta bai ARAZIA dan beste bat ere. Alegia iru zera daude: ARAZLEA (efficiens), ARAZKETA (causatio) eta ARAZ-ki edo ARAZKIZUNA (causatum, effectum). Ez al da, ainzuzen, orixe kausatasuna?

Seguru asko ez genduan sekula bururatu izango, kausatasunaren ikurkizuna ain neurri neurrian gure erri xeak eman zezagukunik. Itz-objederra dugu auxe noizbait filosofigintzen asi

gaitezenerako.

Ba-daukagu beste itz edo izki bat ere kausa ikurkizuna bete betean ematen diguna: "GAITI" atzizkia, alegia. Oso ardura aundiko itza da, gaiñera, auxe. Onetxen bidez adierazten dizkigu Euskerak eskolastikoen "efficiens, materialis, formalis eta finalis" kausaren eta arazkiaren arteko aremanak. Eta oso erritiarki adierazi ere, gaiñera. Ona esakera aukeratu:

"Egillea GAITI, arazlea GAITI dago ori gaizki (causa efficiens); gaia GAITI da ori biguna (causa materialis); kera GAITI da ori polita (causa formalis); jomuga GAITI ez da ori zillegi (causa finalis).

Erderazko "kausa" orren bidez esan nahi duguna "GAITI"aren bidez esaten dugu euskeraz. Eta erderaz lau kausa-mota daudela esaten dugun bezela, lau ARAZ-mota edo GAITI-mota daudela esan genezake: EGILLE-GAITIA, GAIA-GAITIA, KERA-GAITIA eta JOMUGA-GAITIA. Osaturik gelditzen zaigu onela kausatasunaren ikurkizuna. Auekin errez izango du bakoitzak gaiñerako zeazpenak ondoriotzen. Ez dut gaia aitzeko asmorik artu. Nere xedea bear aibat argi ta garbi dagola uste dut. Erri-filosofia sakontzeak zerbait bidetxur iriki dezaiguke euskal-filosofia egiten asi gaitezenerako.

Orain, adibidez, nik erabiltzen ditudan itz batzuk jarriko dizkizut. Zeuk eritzi, eta ongi arki baditza... eta gaizki baderizkizu pozik artuko nuke zure ustea, euskeraren aurrerapena besterik ez baidut billatzen emen.

Pernando Mendizabal-ek (ofm)

(Arantzazu-ko Teologari)

ARAZGO: causa.
ARAZIA, ARAZKI: efecto.
ARAZPEN, ARAZKETA, ARAZERA: causatio.
ARAZLE: efficiens.
ARAZTASUN: causalitas.
ARAZGARRI: causabilis.
ARAZKAITZ: incausabilis.

GAITIA: causa.

ARAZLE-GAITIA: causa efficiens.
GAIA-GAITIA: causa materialis.
KERA-GAITIA: causa formalis.
JOMUGA-GAITIA: causa finalis.

Gaiñerakoak* premiak moldatuko ditu.

"GLORIA PATRI...", EUSKERAZ

Askotan galdetu izan diot nere buruari zer dala-ta euskaldunak "Gloria Patri" otoitza latiñeraz egin bear duten. Tamala da benetan Elizak dituan otoitz ederrenetako bat txinkik ere ulertu gabe mintza bear izatea! Baiño zer dala-ta gelditzen det nik... Ezin asma ezin usma dezaket jokabide onen zio sakona; sakona izan bear nunbait nik ezpaitiot puntarik ere somatzen! Bidegabekeri aundiagorik!

Parregure baiño urrikal-gure sortzen didate gure euskaldunen latin-saio oek. Eztiet nai izanda ere beiñere oraindik osorik entzun. Errosariotan nabarmen asko azaltzen dute zer dioten ezta kitena. Agurmaritan egundoko zarata ateratzen dute. Eltzen azkeneko Gloria ta marmari ixil bat besterik ezta entzuten.

Ezta ba zailla dalako izango? Erriak ba-du ba bere "Gloria"errikoa ta errez askoa? Ona: "Gloria Aitari ta Semeari ta Espiritu Santuari, asieran zan bezela orain eta beti gizaldi ta gizaldietan. Amen.". Ba-da beste bat garbiagoa: "Aintza Aitari ta Semeari ta Gogo Deunari, lendanik orain eta beti gizaldiz gizaldi. Ala bedi".

Ezin al dezakete apaizak eta praileak otoitz eder eta labur au euskeraz erakutsi eta zabaldu?

Iñaki Bastarrika o.f.m.

ELKAR ⁻¹⁵⁸⁻ — IZKETA

ALEMANIA'KO KATECISMO CATOLICO'REN INGURUAN.

(Eskutitz edekia A.Goitiari)

Egan"en argitaldutako nere kritika bat aipatzen dezu ta bizkorki jorratzen Aita on orrek, ARANTZAZU'n, joan dan illean.

Nere kritika ura, etzan teori-kritika, praxis-kritika baizik. Alderdi guzietatik ori agetzuten nere errenkada aiek. Zuk ere igarriko zenuon noski bañan toeri-aldeetik eraso naogago izan diozu, nik orduan nionari. Alderdirik errezenetik.

Nere kritika, bildur-kritika zan, bildur batek eragiña. Kalte bat galerazi nai nuan nik. Kristau ikasbide berri batek gaur Euskerari lekarriokean kaltea. Euskerari... eta baita Kristau ikasbidearen erakusteari berari ere, batez ere gure euskal-errietangure baserrietan... Bildur ori zeri on nere kritikari alde guztietatik.

Orain dana alperrik da. Kaltea egiña dago. Katezismo berria batorkigu. Guk Gazteizko gure Eliz-Barrutian berrogei urte lehenagotik eginginda genedukan lana, orain egin da España guztirako. Guk orduan egin genduana Españaiko Eliz-Barruti guztietan ere orduan egin izan balaritza, bear bada, gaur etzan egin lana egin bearrik izango. Astete eta Ripaldarekin soil-soilik gaur ezin bizi zitekean. Ori edozeinek ikusten zuan. Eta azkenik etorri da etorri bear zuana. Ez ain ordu onean guretzat. Ori da nere iritzia. Ez noa emen, nere arrazoi-bide guztiak berritzera.

Guk lan ori orain berrogei urte egin genuan. Dr. Pildain -gaur Palmaetako, Kanarietako Go-

tzai argi dan Dr.Pildain- izan zan lanaren egi-
llea. Ez bait-zan edozein bat...Eta,ala ere, guk
dakigu zenbat eta zenbat kosta zan orduan "dotri-
ña berria" errian sartzea. Gotzai Jaunen Aginduak
gora-behera. Erriak ederkitxo egiten dute olakoe-
tan "peso muertorena". Ori parroko Jaunak dakite
iñork baño obeto "Conbentuetan eta Seminarioetan
askotaz ere gutxiago kosta oi da gauzak berritzea
ta aldatzea". Gaur zer gertatuko dan bildur gera
gu,oso bildur. Euskerazkoa utzi,ta askok eta as-
kok -eta ez kristautasunez- erdera joko duten bil-
dur gera. Geroak esango du.

Bañan ez bait-da ori bakarrik;ez bait-
da errien nagikeri eta inerzia bakarrik. Euske-
razko kristau-ikasbidearen kontra izan bait-da
beste arriskurik ere...Esango al-degu bere izen
jatorrez? maniobra? Ez dakit ba nik. Erriaren in-
nerziaz gañera beste zer-edo -zer-ere ibilli izan
da beti gai onetan. Ez dakit zer politika-usai
dariola ta azpi-jana ere egin bait-zaio baztarret-
tan. Gezur eta abar. Edo-ta gutxienez ez-jakiñez.
Batzuren batzuek uste ere uste bai-zuten ez dakit
zein gobernuren egunetan sortua zala:Dr. Eijo ta
Garay' ~~gogunetan~~ gogunetan eta aginduz egindako Kristau-
ikasbide ~~andik~~ andik eta ia ogei urtera egiña zala,a-
legia,eta nik al-dakit zein itzaletan...Ola min-
tzatzen ziran gure maniobrazaleak...Eta zer esan-
go zuten orretaz gañera,"Krist -zentriko izan
bearrean,ego-zentriko" zala jakin ba-lute?.

Olakoxe bildurrak nerabilzkian nik ne-
re kritikakxo ura egitean,eta baita geroztikako
besteren batean ere.

Bañan, len ere esan det-eta,orain nana
alperri da...Eta jarrai dezagun aurrera.

* * *

Nere kritikari simplista-usairen bat
ere arkitu diozu zuk. Abejondaiola zure sudur
bizkorrari,Aita Goitia! Nere sinplekeria,insinu-
cio bat zan,nik nere bildur-laborrian negian in-
sinuacio bat: Catecismo Católico dalako ori made
in Germany dala-ta beste gabe ez gendukeala artu
bear,ta gure lehengo zaarra zokoratu,nion nik.
Sinplekeria.Eta zuk beste olatsuko insinuacio ber-

dintsu bat neri erantzun:Berria dala-ta beste go-
be ere ez gendukela berria ezetsi bear. Bañan ez
bait-diot nik berriari bildurrik berria dalako,
beste zer arengatik baizik. Dana dala:nik nere
bildurrean sinplekeri bat esan,eta zuk beste bat
erantzun...ez al-derio, Kiozu?.

Bañan beste olako sinplekeri batzuek
geiago ere,pozik esango nizkitzuke oraintxe. Eta
auze bat:Besteak beste,Alemania-ko Catecismo Ca-
tólico berri ori (orrenbeste ad Cor.eta ad Gal.
eta ad Thesal.guzti oiekin) De catechizandis
rudibus ez baño, Catechismus ad Parochos bat o-
beto gertatuko ez ote dan,ots,Catechismus ad Ca-
chistas bat,umeem eskuetan ipintzeko aunditxo
ta jakintsuegi...nolanai dala ere,gure ta beste
iñungo ume,naiz baserri naiz kaletarren eskueta-
rako geiegia.eta,ola ola,gero ere, umeentzako e-
ta pro rudibus laburpen bat egin bearrean arki-
tu ez ote geran arkituko...Biaje ortarako ez ba-
it-zan bizkar-zaku-bearrik...

Bañan ori geroak esan bearko du;eta gau-
den ixillik onenbestez.

Eta agur dizu,beste gabe,zure Apaizkide
Lekuona zaharrak.

P.D. A.Berasaluze' rentzat.

Bai; errenkada oietxen babesean,postda-
tatxo bat A.bizkor orrentzat.

Zuk ere nere kritika nere Egan-ko kri-
tika, - etzendum bear bezela artu. Arbi-txikia-
ri zuk ere ostroetatik eldu zenion. Eta ola esa-
ten dizkidatzu gero ainbeste gauza YAKIN'go eran-
tzun bixian,Pedagogiak berrogei urte oetan egin
dituen aurrerapen arrigarriai buruz.

Nik,ez det uste,olako aurrerapenak uka-
tu nituanik nere kritikan. Ain aundiak al-diran
geldetzen nuan baizik. "Ain aundiak" alegia,Do-
trina Berririk etorri oi diran kalteen aldean,
kalte aiek bezain aundiak,alegia."Ain"ortan ber-
dinkatze bat,ots,konparazio bat eskutatzen baita-
da,dakisun bezela.Eta berdikatze orren beste ar-
tas-muturra,orixe bait-zan:ni ainbeste bildyrtzen
ninduan -eta naun- Eusjeraren kaltea. Bañan dana
dala berriz ere;kaltea egiña dago.Geroak beza Itz.

GOIKOATEXEARI erantzuna:

Azkenengo YAKINEko "alkar-izketan" argitara genduan zuk idatzi karta. Garrantzi aundiko puntuak ikututzen dituzu bertan, bere egiturari dagozkionak alegia.

"YAKINEk obe luke olerkirik edo literatur-idaztirik ez artu" diozu bertan. Arrazoiz diozu ere. Auxen da gure asmoa. Olerkiak ezik bestelako literatur-lanak ez genituan nai. Baiño zerorrek diozun bezela literaturari buruzkoak bai, ots filosofi edo iakintz-aldeetik egiñak. Ipuiak, literatur-saioak eta era ontako idazlanetarako ba-dira beste aldizkari ugari. Goikoetxeak arrazoiz dionez ez du YAKINEk "bere igitaria aien saillean sartu bear". Ez genduke iñola ere iñorren aurka edo kaltez jokatu nai!

Olerkiak? Lazkao'koak ziotenez izango dira an emen Euzko Gogoan eta orrelako goi-mailletako aldizkarietan beren olerki-saioak aurkezten ausartzen ez diradenak. Gontzat YAKIN ondo omen letorke-ta...

YAKINen joerari buruz iritzi ugariago nai genituzke. Askori daukana atsegin zaie. Beste zenbaiteri atsegiñago litzaieke filosofi ta teoloji gaietara mugatuko balitz. Dana dala YAKIN aldizkaria landara berria degu oraindik eta gure naitara zuzendu genezake. Eztegu ontan geron iritiziz ezer erabaki nai. Azaldu etzazute denak zeuon iritziak eta aria-arian irizkidetasu-nera iritxiko gera. Goikoetxean oartu ontan denak bat gatzela derizkiot,ots, gure YAKINEk jakintz-maillakoa bear dula izan.

Iñaki Bastarrika

AITA GUREA DALA- TA, ERANTZUN BIDEZ!

Len ere iñoiz -oraindik oraintsu, gañera- esan izan det eta, gure Kristau-ikasbidea-ri ukituren batzuek egitera datozen idaz-lenak, egia esan, dal-dal-dal inintzen naute ni. Orrekin ez det esan nai, gure Kristau-Ikasbidea uki-eziña danik. Bañan bai ukiketa oietan arduraz ibille-bearra, oso arduraz ibilli-bearra dagona.

Pernando Mendizal o.f.m., gure "aita gurearen" kritika bat dakar YAKIN'en azkeneko zenbakian.

Ondo etorriak izan ditezela kritikak. Ortara-ko edeki digu YAKIN'ek bere azken-orrietan Galde-erantzun edo Tribuna Libre dirudian atal ori. Bañan Tribuna Libreko galdeak erantzuna ere eska-tzen bait-du. Ortaraxe natori ni gaur atal ontan bertan. Pernando Mendizabal'en kritikati eran-tzun txiki bat ematera.

"Euskerazko "Aitágurea" ez dago ondo, ta aldatu egin bear litzake". Orixe da Pernando Mendizabal'en iritzia. Iritziaren guna. Eta, ortara-ko zenbait premisa-edo ipiñi ondoren, ontara el-tzen da gure kritiko txorrotxa bere iritzi-erres-kadan: "Au ola izaki (haec cum ita sint?), euske-ratu dezagun bear bezela "Aita gurea", ta esan: "Gure aita, zeruetan zaudena... barka izkiguzu gure zorrak GUK ERE GURE ZORDUNARI BARKATZEN DIZKIEGUN BEZELA".....

Galde bat egin nai diot Fernando Mendizabal'i: Zeintzuk zor barkatzen dizkiegu guk gure zordunari? "beren" zorrak noski? ori ja, beintzat, or esan nai zendukeana... Bañan, esan, ez bait-dezu esaten ori zure esatekoan; "beren zorrak" ez, "gure zorrak" baizik... "Guk(gure zorrak) barkatzen dizkiegun bezela". Orixe da, esate orren indarra. Bai ba, GURE ZORRAK bait-daude, goratxuago, txintxillik bezela ataltxe ortan, eta GURE ZORRAK baita, eta ez besterik, durundiz gure belarrietan ere - entzuleen belarrietan ere, atal ori irakurtzean edo entzutean. Gure barkatzeak ez du or, ori beste kizunik, ori beste zerkirik, ori beste complemento zuzenik, joserakera onean, sintaxis jator batean.

... Len esan dedana: oso arduraz ibilli bearra dagola ukiketa oietan.

Premisa-antzeko lehen-itzetan ere ba'legoke zer-esanik, artara ezker. Ariraentxo datorren zerbait aipatuko det bakarrik.

Onela dio Fernando Mendizabal'ek: "Euskal-a-ditzak, bere justutasunaren justutasunez, ezin dezake kizuna adierazi gabe utzi; naiz zuzenkako(directo), naiz zearkakoa izan kizun ori"...

Orrek, ordea, ez bait-du esan nai, aninguruan naita-ez zuzenkako kizun ori bear duanik. Ba'dira zenbait egite, olako zuzenkako kizunin gabeak. Adibidez, begiratu, lagundu, deitu, si nistu(passim), eutsi(passim)...eta oien artean ain xuxen, barkatu, askotan. Adibidez: "Txikiña da ta, barkatu egin bear zaio". (-Zer barkatu, gero? -Ezer ez;orixe, barkatu)

Askotan diot; ez beti. Batzuetan izango da barkakizun zerbait. Adibidez -ain xuxen, befiz ere: "Barka izkiguzu gure zorrak" diogunean. Bañan beti-beti ez bait-da izaten olako barka-

kizunik, exprese beintzat. Eta orixe gertatzen da, ain xuxen au ere -nik uste- Aitagureko bigarren "barkatzen diegun bezela" ortan. (-Zer barkatu, gero? -Ezer ez; orixe, barkatu). Or ez bait-dago barkakizun expresorik. Eta ola utzi diteke, ain ederkitxo, bat ere erabaki gabe barkakizunaren zenbatasuna(- zki'rik gabe, alegia). Bat? asko? Ez bat, ez beste; indefinitum.

Ez al-derizkio Fernando Mendizabal'í?

Bañan indefinitum onek merezi azalpen apur bat geiago. Eta Fernando Mendizabal'ek berak e-mango digu ortarako bidea.

"Texto-inguruan -dio- (bi itz) sicut et agertzen dira; eta oiek erkaera edo konparazio bat adierazten dute. Bi atal daude or, sicut et oiegaz lotuta: bata, "dimitte nobis debita nostra;" eta bigarrena, "sicut et nos dimittimus debitoribus nostris"... Orregatik, guri barkatutakoak "asko" diran bezelaxe, guk barkatutakoak ere bere bat dira "asko"...

Seguru al-dago Fernando Mendizabal bere iritzi ortan? Seguru al-daki erkaera, konparazio ori ortarañokoa dana? bata askoduna dalako bestea ere askodun egiterañoiko indarra duala, alegia? erkaeraren bi muturrak zenbatahun bera eukierazterañoiko indarra, alegia? Ez bait-dira "sicut et" guztiak olakoak.

Ba'da otsaundiko "sicut" bat "bezela" bat -Biblian- Jaungoikoaren Dekalogoan, ain xuxen-orrenbesterañoiko indarrrik ez duana, erkaera bat izan arren, orrenbesterañoiko berdintasunik gabe konten dana. "Diliges proximum tuum sicut te ipsum". Latifiekzo "sicut", euskeraz "bezela" bait-da, bañan ez "aña"; "bezela", bai, bañan "aña" ez. Jaungoikoaren Dekalogoan ez bait-zailgu eskatzen maita dezagula gure lagun urkoa geuron buruak "aña", geuron buruok maita ditugun "beze-

la" baizik: geuron buruok maite? lagun urkoa "ere" maite, alegia; bañan au ura"aña", ura "ainbat", ura "bezainbat", ez...maite bai; bañan zenbatasunean berdintasunik gabe.

Ez ote-da beste orrenbeste gertatzen gure "sicut et" ontan ere? Ez al-derizkio Fernando Mendizabal'i? Konparazioaren bigarren muturra "indefinitum" dala, alegia? Indefinitum, Fernando Mendizabal, indefinitum! Ez da ori bezelakorik olakoetarako! Ez bat, ez asko; "indefinitum" ...zenbatasunik gabe. Olaxe ederki.

Beste oar bat. Onela dio gure Fernando Mendizabal'ek; "Sekulako erderakada batez asten degu otoitzik ederrena: "Aita gurea"... Gure elkarizketan ez degu inoiz ere orrelako josketarik erabiltzen. Ez degu esaten: "aita gure etorri da, seme gureak egin du, eta abar..."; "gure aita, gure sema, eta abar... baizik".

Esaera zabalegia ta neurri-gabetxoa dezu ori. Universalegia (orokarregia) ta absolutoegia (bal-dintzagabeegia). "Gure aitaren" arau orrek ba' ditu bere bereizkuntzak; eta -ain xuxen, berriz ere- otoitzarik ederren ortan gertatu ditek, ederkitxo, bereizkuntza oietan bat izatea. Nik beti alaxe uste izan det. Besteak beste.

Ara. Esan dezagun erderazko itzez -barkatu-. "Euskeraz genitivoa nominativoaren-edo aurretik ipiñi bear dala", arau da euskeraz. Arau orokarra, orokarrik bada. Bañan ez beizkuntzarik gabea. Orokarrak dala ta, ez degu egin bear orokarregi.

Busturiko Madalen, ta Olaberriko Josetxo ta Lasturko Milia, ola esan oi dira arau orokarrez. Bañan, bereizkuntzaz esan izan da, baita, "Madalen Busturiko", ta "Josetxo Olaberriko", ta "Milia Lasturko" ere. Goiko Jauna "Jaun goiko" esan izan dan bezela. Ta "Gurutze Santu Lezoko" ta "Ana

Guadalupeko" etab.

Ez genituzke esan bear zenbait esakera orokarregi, zabalegi, neurrigabeegi. Gauzak, ikusiaren gañean, neurtuta esan bear genituzke. Nere iritzia gai onetan auxe izan da beti: genitivoaren arau ta lege onek euskeraz beti ere bereizkuntza bat egin izan duala notin-izenetan (nombres propios de persona); dala Josetxo, dala Madalen, dala Milia, gure notin-izenak alegia ba'dakitela genitivoaren aurretik joaten; beti ez bada ere, "ba'dakitela" noizbeinka, olako piruetatxubaren batzuek egiten, piruetatxo jator-jatorrak.

"Madalen Busturiko",
gabian-gabian
errondian dabilta
zure portalian.

"Josetxo Olaberriko":
zer dezu negarrez?
- Amakezkontzerako
dirurik eman ez.

Arren! ene Andre "Milia Lasturko"
Peru Garziak egin deusku laburto;
egin dau andre "Marina Arrazolako"
ezkon bekio, bere idea dauko.

Mondragoeri artu deusat gorroto;
giputz androk artu ditu gaixtoto:
Iturriotz-kalean Andre "Maria Baldako",
Arte-kalean Andre "Otxanda Gabiolako"
Erribalean Andre "Milia Lasturko".

Euskera jatorrez, bi eskutakoak dira -"ko" oiek, ikusten danez. Naiz batera, naiz bestera, jator asko erabiltzekoak. Bat bezain beste. Biok jatorki.

Askotan esan izan da, "Jaungoiko" izenaren jostkera, gure jostkera jatorraren aurka-aurkakoa dala... Pentsatu al-degu ondo, ori esatean?

Ez det uste olakorik esan ditekeanik. Antziñatxoko formula degu "Jaungoiko" formula. "Ama Guadalupekoa" bezelaxe; ta "Gurutze Santu Lezokoa" ta "Madalen Busturiko" etab. etab. Antziñako formula da ori. Bear bada, "casu" ortan, "Goiko Jauna" ta "Busturiko Madalen" baño antziñagokoa, besterik dirudian arren. "Casu" ortan, diot, notin-izenetan, alegia. Len notin-izenetan barra-barra esan oi zan, Milia Milia lasturko ta Otxanda Gabiolako... ta Jaun Goiko. Jaungoikoaren izenean, "Jaun" ori errez artu liteke notin-izentzat. Adibidez, "Jaun zerukoa". Iñoren arritzerik eta protestarik gabe, esan ere. Alik eta gu sortu geran arte. Gu izan gera olako protestanteak. Bañan, zuzen-bidez?

Berdin gertatzen bait da, gutxi-gora-bera, "gure" kin eta -"ren" ekin ere. Lenengo begiratuan eta, itxurarekin itsutu-ta ari izaten gora askotan izketan. Aita Gurea "sekulako erderakada" da. Bai-ote? Ikus dezagun lasa. Ikus dezagun estutasun ta itsumaturik gabe.

Aitor dezagun beti ere, lenengo, ta bein betiko, posesivoen lege orokarra euskeraz alaxe dala: lenengo, jabea; ta ondotik gauza (lenengo, genitivoa; ta urren nominativoa-edo): "Gure aita", "aitaren etxea". Lege orokarrez, ori alaxe da. Bañan beti ta beti, ta bereizkuntzarik bat ere gabe?

Nik esan dezakedanez, ez. Ba' dira noiz-baitzuek, ola egiten ez diran noiz-batzuek.

Ara. Neri bein gertatua esango det emen. Beste askoren artean, auxe. Arrasate'ra joan nintzan bein, an Karraskain baserri urrutiko gizonarekin egotera. Aren aita zanaren berri jakin-

garri batzuek jakin nai nituan. Semeak, aita zanaren berri asko eman zizkidan. Bañan -eta e-
men dago nere gaurko aria- nere gizonak bere
aita zana aipatu bear zuan bakoitzean, beti ta
beti onela esaten zuan: "Aite geure, depuntue".
Olaxe eten gabe, aldi bakoitzean, "Aite geure,
depuntue" ta "Aite geure, depuntue"...

Beste bat. Guztion ezaguna da, arako, "Lua,
lua, txuntxurrun berde" asten dan seaska-abesti
jator ura. Orra bada: seaska-abesti ortan, le-
nengo ta bigarren ahapaldian onela dio:

"Aite geuria" Bitorijan da
ama manduen artuta.

.....

"Aite geuriak" ditu asko dauka
ama perijen salduta".

Eta oietaz landa, gure belarriak oitu asko-
ak daude txiki-txikitatik, auek bezelako itz
eta esaerak entzuten: "Praixku guria ta Lukex
zuena".

... -Gaizki esana! oker esana!!... -Bai-ote?
Nik, or - goragoko beste aietan bezela- okerra
ez baño beste zerbait arkitu-uste det. Bereiz-
kuntza bat; lengoan bezela, notin-izenentzat e-
gin oi dan bereizkuntza bat.
Praixku, Lukex... ta berdin baita "Aita" ere.
"Aita" notin-izen bezela erabiltzen bait-da as-
kotan euskeraz, eta baita erderaz ere ("Padre ha
dicho"; "el padre"ren ordez, alegia).

"Notin-izenakin" diot. Bañan ba'da beste no-
iz-bein bat ere, polit askoa gai onetan; "licen-
tia poetica" esan liteken noiz-bein bat, casu
polit bat. Ara, sobera dakigu, joskera orokarrez,
"beraren billa" esan oi dana; bañan bai bait-
degu gure Parnasoan onoko bestelako loratxo au
ere:

Ai! Au gabaren zoragarria!
Jesus jaio da Belen'en.
Etxe onetan sartu ote-dan,
"billa gabilta beraren".

Olako lore polit batek ondotxo merezi bait-
du bereizkuntza bat; "licentia poetica" bat,
alegia... erderazko olerkietan "de Maria las
grandezas" eta esan oi diran bezela, gure oler-
kietan ere "beraren billa" esan bear, "billa
beraren".

(Nik neuk erabili izan det iñoiz olako "li-
centiarik", beste Gabon-kanta batean: "Agur, a-
gur, Mirentxu! / Agur, bai, agur, Miren! /
Zu izango zera(i) Ama / Aitaren Semearen".
Aiatren Semearen Ama" esan bearrean, "Ama Aita-
ren Semearen").

Gure Sintaxis-legeak ostikopetzea dala guz-
ti ori?... Ez, gizona, ez; ezta urrik eman ere.
Ori ez da, lege orokar eder batean, edergarri
berri bat bezela, bereizkuntza bat aitortzea
ta ezagutzea besterik. Gauzak itsumustuan ez
erabakitzea; ikusiaren gañean neurtzea baizik.
Orixe.

-Ez al-dezu beste esan-bearrik?

-Bai; ta auxé: "Gure Aita zeruetan zaudena"
esan bearrean, obe zukeala-Fernando Mendizabal'
ek, beste ukitu bat geiag- egin-da, onela esa-
tea: "Zeruetan zauden gure Aita" -olaxe eskatzen
bait- du gure relativoaren joskera jatorrak -,
edo-ta oraindik obeto: "Zeruetan" zeran" gure Ai-
ta", zeruan ez bait-dago egonean, betiko ari-
izanean baizik, gure zceruko Aita...-

Baña norafío joango giñake ola asi ezkeroy

Gauzatxo bat falta zait oraindik gai onixe
buruz esateko, ikutu oiei buruz esateko. Gure

Fernando Mendizabal'ek ekarri dizkigun ikutu-gai guzti oiek eta asko geiago ere mai-gañean ipiñi zirala orain ogeita-amazazpi urte Gazteizko Teologo-Batzordeak gure Kristau-ikasbidea aztertu ta eratu zuanean. Bañan ikutu-gai guzti aiek jakingarriak ziran arren -gaurko Fernando Mendizabal'etak bezela aiek ere- etzala izan aiek ontzat emateko iritzirik Batzorde artan, arrazobide bakar aundi-aundi bategatik: Aitagureari ta olako otoitz-formulari, ezertxori bada-ta, zor zaien itzalagatik; ez formula oiek aspaldi-aspaldikoak diralako bakarrik, gizarte-formulak diralako gañera ... eta, gañera, ez, guk askotan us-te izaten degun bezain gaizki eratuak, ikusi degun bezela.

"Nola zeruan, ala lurrean" bakar-bakarrik aldatu zan orduan: "Zeruan bezela lurrean ere". Eta ori, Nafarroan -eta baita Guipuzkoan ere zenbait aotan- erabiltzen zan era zalako.

Gañerako guzti-guztia, ezta-baida sakon-ondoren, zegon bezela utzi zan. Eta olaxe jarraitzen du... Bañan ez da oraingo kontua, geroztik ere norbaitzuk aldakuntzaren batzuek eskatu izan dituztena, Madalen Busturiko'ren errondietan bezela,

"orain baño len".

Bañan kontuz ibilli bearra bait-dago, gazte-jendeekin batez ere.

M. Lekuona

JAKINTITZAK

Azkeneko YAKIN irakurtzen ari nintzan. "adimen goitarren berezitasuna" artikulua ren atzean, 80'gn orrialdean, iztegitxo bat dakar, eta amaian' oar au: "Idatzlan sorotik atera ezkerero itz auek beren indar guztia galdu lezake te. Orregatik, otoi dagizut, arren, beren baratzen aztertu ditzazula". Itz auetre' eman didate gai, orain esatera noan ontarako.

Itz oiek' bide-eman didatela esan dut. Ez dut iñor epaitu nai. Ezta gauza berririk esan nai ere; guztiok dakizuten zertxobait zantatu baizik. Nor da bere buruaren jabe; eta baidu eskubide bere gauzetan nai bezela jokatzeko. Eta ala bear ezkerero, bere gauzak adierazteko' erabili ditzazke itzak, bai zarrak eta bai berriak, berauen izatezko esanaletan edo irudibidezkotan (metaforikotan) ere bai. Au' erriari idazten edo jakintza egiten ari ez danean batezere. Zera izango litzake emengo lege nagusia: esan nai dezaguna' argi eta garbi edierazi. Gaiñerakotan' "pictoribus atque poëtis quidlibet audendi semper fuit aequa potestas". Ona, ba, nik idazle bakoitzari' bere eskubide guztiak agurtu!

Baña auxe idaroki-edo nai nuke. Gauza

berriak itz berriz esaten asi gaitzenezan' eman dezaio gulara itz bakoitzari bere esanai objetiboa; eta itz orrek, bai bere auzokoekin dagonean eta bai bere bakarrean, esan dakigulara bere izena argi eta garbi: beti berdin.

Elederketan ari geranean' bearrezko izaten ditugu irudiak eta izjokuak. Orduan, auzkoetatik zeaztu bear ko da itz baten esanai justua. Baña Jakintzan' eginda daude gutxi asko ideak, eta nori bere izena eman bear zaio. Nastu egiten dira bestela, eta kalte aundia egin dezaio kete jakintzari. Orregaitik, kultur-itx berriak asma ditzagunean' arretaz ibili bear dugu itx berriekin burubarrukoa izatez eta berez esaten.

Iñoiz edo noiz, ez daukagulara euskal-itx egoki egokirik idea bat adierazteko?— "Dagonean' bon bon, ez dagonean' egon"—. Artu lasai erderatik, euskerazko egokirik ez dagoken bitartean. O-be duzu erdal-soñeko z dotore dotore jantzi, euskerazko z' zarpazar ~~uta~~ baño-ta. Jakintza egitekoan' ez ja ainbat ardura olako edo alako izkeratan egotea. Baña ideak neurri neurrian esatea' orixe bai dala arduradun jakintzan.

Joxe-Agustin, ez dut au zuregatik esan. Ez nuan, konejutxo bat bezela, zu narrutzeko asmorik-baña. Olaxe gertatu da. Zer egingo dugu, ba? Barkatuko didazu, e! Lagunak gera-ta. Bai Motil!

Fernando Mendizabal (ofm)

(Arantzazu-ko teologari).

LAZKAO RO BENEDITARRAK:

"Jakin" berriz, zein ederki loratzen ari zaigun, geroz ta jantziago, apaiñago ta dakinago datorkigu. Eskuetara orduko Arkibidearen billa joan zitzaizkigun begiak; begiratu betea uraxe; ainbeste lankide berri, 21 idazke bai, zenbat Elizgizon mota, gaiak bai ugari ta biziak, gañera 181 orrialde. Bigarren zenbakia oraindik, eta ain loretsu, zer ote emendik urte batzuetara! Poztu gaitezen euskalzale ta batez ere "Jakin" eko lankide guztio. Euskera maitearen bigarren udaberria asi daita. EKIN ETA JARRAI... badatorke er-e ta Uztaroa; badu oraindik bizi gure Euskera zaarrak.

21 idazle berri esnatzea ta elkartzea izan da noski, "Jakin" en egitekorik nagusia. Idazleak bear ditugu. Orregatik "Jakin" en Atariko lerro batzuk min eman digute: "Idazle zaarrak, beai zegokien tokia, besteei eskeñi diete, lankide asko izanda, aspergarri edo luzeegi gerta etzedin onako zenbaki au". Orrelakorik gerta ez dedin, ez ote litzake obe lanak arintzea eta mugatzea, neurriz 5 edo 6 orrialde arturik, lankideak zokoratzea baño?

Jakintz-mintzairaz... "Jakin" go idazlanetara begiratu besterik ez degu.. ze bide daramaten... Donostiko apaizgai bizkorren iritzia bear genuke guztio. arau...

"Jakin" en sailketa, gure iritiz ez dago ikutu bearrik. Bearrezko du "Elerti ta antze" saila, batez ere elertilari ta olerkari berrientzat. Nork du bekoki lenbiziko olerkia "EGAN" edo "EUZKO GOGO" ra bidaltzeko? ... Gañerakoan, "Ascetika ta Mistika" dalako ori ere, ondotxo sartu ditek bere tokian, ots Teologi-saillean..."

J. de A. 'k:

"Zorionak biotzez. Lan ederra ari zerate benetan. Zuen azkenengo numeroaren lan batek

ikutu nau batez ere. "Euskerazko "Aita Gurea" dala-ta"...Orain dala amobost bat egun, igande arratsaldean joan nintzan, askotan oi datan bezela, Endaya'ra... sartu naiz Endaya'ko parrokira. Jakingo dezute Endaya'ko Eleizan bi marmol-arri bikaiñak aldare nagusiaren aldamenetan; ebangelio aldean, Aita Gurea prantzezez, eta epistola aldean euskeraz... Elizan etzan iñor ni sartu nintzanean eta belaunikatu eta asi naiz Aita gurea euskeraz irakurtzen eta errezatzen. "Letra ederrak ditu benetan! Milla bider Aita Gure ori errezatu ez-ba det ba... Nola zitekean ordurarte kontuan ez erortzea?

" Gure Aita zeruetan zarena..." GURE AITA, bai, GURE AITA. Eun aldiz marmolari begiz GURE AITA esan ez ba nun, ez nuan beñere esan. Ez nintzan aurrera pasatu. GURE AITA..

GURE AITA ta ez Aita Gurea. Ta dagola aldia iruditzen zait. GURE AITA esatia zerbait esatia ba dala iruditzen zait. AITA GUREA esatia berriz... Gabean etxean errosarioa esaterakotan etxekeandreak: "Tira, tira... Zuk asmatuko dituzunak oraindik..." Bai, etzan nik asmatua. Endaya'ko eliz-arriak eta Arantzazuko Teologoak asmatua, eta arrazoi... GURE AITA -- Ala bear du izan dudarik gabe..."-

JAUREGI'tar Luis, Jaunak:

"-Gazte oiek artu duten lana, benetan bikaiña ta onurakorra deritzait. Bigarren zenbaki ori besterik ez tet ezautzen, baña antza-ematen diot ziñez dala garrantzitsua eskuartean dabilkiten lana. Asmoa zer-esanik ez: bizi geran garai auetarako bearrezkoa. Nai-ta naiezkoa zaigu euskeraz edozein gaietaz itz-egiten jakitea, eta orretarako "Yakin"ek bidea erreztuko digu guziei. Apaiz-gaien bitartez ikasiko degu apaizak, gure apaizgaitegietan ikasi bear genduan e-

ta ikasi ez genduna; beste izkera guzien artean gure euskerak burua jasotzea nai ba-degu eta dagokion begiruna eta aintzara igoerazi, bide zuzenago eta egokiagorik eztaukagunere ustez. Jakitunak beren ezpañetatik bota zutelako, erri xea ere euskera baztertzen asi zitzaigun, eta orain guk aintzakotzat artzen degula ikusten ba-du, berak ere alaxe artuko du. Bigarren zenbaki ontako gaiak, aukeratuak, ugariak eta ederki borobilduak daude. Jarrai orlaxe, gazteak...! Jaungoikoaren eta gizartearen aurrean zuen alegin eta lanak txalogarri dira-ta.

... Nere iritziak ezer gitxi balio du gaur, noski, baña zenbait garaietan euskera-soroan nere goldearen zulo-arrastoak nabarmen ageri ziran. Orain nere atsegiñik eztiens gazte kementsu oien idazlanak artu eta patxaran irakurtzea det.

BELLOC-etik.

Arantzazu-ko txikiari

agur eta eskerrak.

YAKIN edertuz doa. Zer lana egiten dute zuen gaztek! ... Hartu ditugu zuen hogoi-ta bat eskutitzak. Baionan dire jadanik.

Ikusiko dute hola hemengo haurtxoek badi-rela, mendiz bertzalde hortan, eskual-ume egiazkoak.

Txikien bihotzetan da Eskual-Herriaren ge-roa; denak langile onak balin bazaizte eta denek bat egiten baduzue salbatua da Eskuara.

Agian sari asko irabaziko duzuela eta hemengo txikien partez, bihotzetik agur!

LIBURU BERRIAK.

ARGI-BIDE TXIKIA. Zugasti apaizarena.

140 orrialdeko liburutxo polita. Umetxu-entzako apartekoa. Emen ikasiko dute gure aurtxoek Jainkoarenganako eta gizon zitzo egiteko bidea. Goxoa oso liburu ori. Euskalerriko ume guzti guztiek euki bear luketen liburua. Askok esaten dute ez dagola umetxoentzat ezer euskeraz; eta naiko egia, tamalez. Oraingo onek beintzat bete du txu-foa ezeze Zulo aundi bat ere. Betozkigu garain onen olako liburutxo polit ugari eta ez da geiago esan al izango Euskalerrian "aurtxoentzako libu-rurik ez dala egiten".

Or arkituko dituzte umetxoak goizeko ta gabeko otoitzak. Or ikasiko dute Meza Santua bear bezela entzuten; eta Jainkoa eta Ama Birjiña bear bezela maite maite izaten. Euskera gozo gozoa dauka gaiñera, eta abesti-xorta ere bai atzekaldean.

Ez galestia ere gaiñera: 18 laurleko. Artu eta zeuk ikusi. Esango didazu oker ote nabillen esandakoak esaten.

Zorionak eta URRENGOAN EKARRI ASKC

P.M (ofm).

ARPIDEDUN-KONTUA:

Ba-dira batzuen batzu YAKIN jaso ta ezagutu ta arpidedun-izena ematen eztutenak. Gauzak ondo ta zuzen emateko arpidedun izan nai luketenak adierazi bezate beren izen-abizenak eta señak bidaliz. Geuk aurreneko aldiz bidali-takoak saritu bearrik eztaukate -bearrik esaten degu- ezagutu dezaten bialtzen bait zaie. Bein ezagutu eta atsegin bazaie eta arpidedun izan nai badezate izenak-eta bidali.

ORDAIN-KONTUA:

Lenagokoa adierazi bearrean gaude. Dirua aurretik edo YAKIN artu bakoitzean ordain-du bear da. Guk argitaraldi bakoitza ordaindu bear du zuek saritutako diruarekin. Ez uste izan emen zimendu bezela diru-kutxak dauzkagunik. Nola bidali? Ba-dakizute sobretan dirurik bialtzerik eztagona. "Giro postal" orren bitartez bialtzen da baiño beti-beti YAKINerako dala adieraziz bestela Arantzazu'n kartera asko daude. Gutzako onena eskuz bialtzea. Argi?

IDAZLAN-KONTUA:

Urrenekoa Udazkenean aterako degu. Lanaka ortarako INAZIO egunerako bidali,ots, 31 Uztailan. Egun ortarako lan denak emen egon bear dute. Lenago ba-daude obe. Batez ere teolojiko lanak dauzkatenak lenbaitlen bidali aurrenak izan oi bait dira kopiatzek! Zintzo joaktu.

YAKIN

- A M A I A -